goiena
DEBAGOIENDARROK DIOGUNA
2011-12-2
EGUBAKOITZA
488. ZENBAKIA
11. URTEA
DOANEKOA
GOIENA.NET
TOKIKOM

Mendizabal, finala irabaztera

Bihar jokatuko du promes mailakoa | 28

Aitor Mendizabal. | XABIER URTZELAI

Pedro Biteri Arana filantropoaren biografia kaleratu dute | 14

Deklaratu ostean, epaiaren zain daude sei debagoiendarrak | 4

Goiena Kluba: abantailak eta dirua aurrezteko aukera paregabea | 2

Elai Taldeko ordezkariak ziurtagiria eskuan dutela. | GOIENA

Copreciko ordezkariak Guggenheim museoko ekitaldian. | JOSE FELIX DIAZ DE TUESTA

Bikain ziurtagiria eman diete

Euskara planak sustatzeagatik saritu ditu Jaurlaritzak: Arrasatekoa da bailaran jasotzen duen lehen udala, eta urrezkoa eman diote; Elai Taldeak bigarrenez jaso du urrezkoa; Copreciri, berriz, zilarrezkoa eman diote. | 12

Inazio Azkarraga-Urizar, Aintzane Lasa eta Jose Felix Diaz de Tuesta, Arrasateko udaletxean. | JOKIN BEREZIARTUA

Ibar osoan ospatu da Euskararen Eguna

Ekitaldi ugari egongo dira asteburuan | IKUS 'HERRIAK' SAILA

"Oso garai zailak izan ziren guretzat Arrasateko alkate izan nintzenekoak"

Jose Antonio Ardantza | Lehendakaria | 8

Beste bidegorri tarte bat egiten hasiko dira laster Oñatin

Zubillagarekin lotuko du herria eta 3,9 km izango ditu | 4

SINADURAK

Ikasgelara bueltatu beharra | 6
IÑAKI CASAS

12 | **Olentzero 'batua'**
ANDER ETXEBERRIA

Ateak zabaltzen | 26
XABIER AGIRRE

40 | **Gabonetako bonbardaketa**
IDOIA ETXEBERRIA

ASTEKO GAIA 2 | DEBAGOIENA 4 | IRITZIA 6
GUTUNAK 7 | HERRIAK 11 | KIROLA 28
KULTURA 31 | ZURE IRAGARKIAK 35
TELEBISTA-IRRATIA 36 | EZKONTZAK 37
ESKELAK 37 | NON-ZER 38

Debagoieneko Tobera, Tobera?

Goiena Klubeko bazkide egitea, abantailak eta dirua aurreztea

▸ Asteleheneko 'Goiena' papera etxean jasotzea
▸ Pendrive bat opari eta birendako bazkaria zozketan
▸ 4.000 bazkide ditu egun Goiena Klubak, oraingoz

JOKIN BEREZIARTUA | ARRASATE

Duela bi urte pasatxo abian jarri zen Goiena Kluba izeneko gurpilak gero eta erritmo biziagoa darama, Debagoienean zehar dituen 4.000 bazkideei ahalik eta zerbitzu osatuena emate aldera. 4.000 gara, baina gehiago izan gura dugu, eta, horregatik, heltzear daudenei erraztasun eta abantaila guztiak eman gura dizkiegu.

Hasteko, orain bertan bazkide egiten direnek Goiena Komunikazio Taldearen pendrive bat jasoko dute opari. Eta hori gutxi balitz, gurekin bat egitea erabakitzen dutenek zozketa paregabe baten sartzeko aukera izango dute: Getariako Astillero jatetxean bi lagunendako bazkaria eta herri bereko Balentziaga museorako bi lagunendako sarrera.

Bazkidetzea, ezin errazago

Eta zer egin behar den bazkide egiteko? Oso erraza da, hainbat modu daude: 943 25 05 05 telefonora deituta, *www.goienakluba.com* webgunean eskaera orria beteta, *kluba@goiena.com* helbide elektronikora mezua bidalita edo Goiena Komunikazio Taldearen edozein ordezkaritzatara joanda. 50 euro da urteko kuota, eta, beraz, azkar asko amortizatzen den ordainketa da.

Prozesu azkar baten ostean Goiena Klubeko bazkide egiten denak honako abantailez gozatuko du: asteburuak Debagoienean eman duenaren berri izateko asteleheneko Goiena papera etxean bertan jasotzea, *www.goiena.net* webgunetik PDF formatuan deskargatzeko aukera, baita hainbat zozketa eta promoziotan parte hartzeko ere. Goiena Klubeko txartela erabiliz hainbat negoziotan deskontuak izan daitezke; deskontu zehatzak hemen daude ikusgai: *www.goienakluba.com*.

Bi urte, eta aurrera begira

Bada, Goiena Komunikazio Taldeko publizitate saila gustura dago duela bi urte ereindako haziak ematen dabilen fruituekin. "Balorazioa positiboa da eta orain arteko 4.000 bazkideek ere horrela esan digute", adierazi dute.

Orain, fruituok hazten segi dezaten lanean dihardute: "Eskaintza erakargarriak lortzeko lan egiten segituko dugu".

Denetariko erabiltzaileak

Bazkide berriak eta aspaldikoak batu ditugu

JOKIN BEREZIARTUA

UNAI GISASOLA | BAZKIDE BERRIA

"Astelehenekoa jasotzeko egin nintzen"

Duela bi hilabete inguru egin zen Goiena Klubeko bazkide. Klubeko kide egitea erabaki zuen batez ere asteleheneko *Goiena* papera jaso eta asteburuan gure bailaran gertatu denaz informatuta egoteko. Bazkide egiteko prozesua oso azkarra izan zela dio. Txartelak ematen dituen abantailen berri eman zioten, baina oraindik ez du erabili.

J.B.

FLOREN ARANA HAINBAT SARI IRABAZITAKOA

"Oso ondo dago, gomendatzen dut"

Floren Aranak ez die Goiena Klubeko zozketei hutsik egiten. Eta beraz, hainbat sari irabazi izan ditu: bideokamera, LTDa, puzzlea, zinemarako sarrerak... Oso pozik dago klubeko kide izateaz, eta bertakoei lagundu egin behar zaiela uste du. Edonori gomendatzen dio: "Urtean 50 euro bakarrik dira. Zalantza barik, merezi du".

bastidasukaldeak
www.bastidasukaldeak.com
Opari egiten dizugu
SUKALDE BAT EROSTEAGATIK
abenduaren 31 baino lehenago
GARBIGAILUA ETA LEHORGAILUA
Promozio hau ez da bateragarria beste eskaintza batzuekin.
AZPEITIA tel.: 943 15 05 10 | ZARAUTZ tel.: 943 89 49 99 | BERGARA tel.: 943 76 70 58

J.B.

PABLO BONILLA
BAZKIDE BERRIA

"Aproposena da euskara ikasteko"

Euskara ikastea erabaki zuen eta euskaraz irakurtzeko medio aproposena *Goiena* papera dela uste du. Internet bidez egin zen klubeko bazkide, duela bi aste. Txartelak ematen dituen abantailen berri eman diote baina kide denetik denbora gutxi pasa denez, ez du abantaila horiez gozatzeko aukerarik izan... oraingoz.

J.B.

MONSE ATXA
ZERBITZUEN ERABILTZAILEA

"Abantailez musu truk gozatzen dut"

Aspaldi egin zen Goiena Klubeko bazkide. Gustura dago, eta "oso ondo" ikusten du abantailez gozatzeko aukera izatea, eta musu truk, gainera. Donostiako Aquariumera joateko eta gasolina botatzeko orduan Goiena Klubeko txartelak ahalbidetzen dizkion deskontuez gozatzeko erabili izan du txartela, batez ere.

Laguntzaileak, ezinbesteko zutabe

Txartelaren abantailez gozatzeko aukera zabalaren barruan, adibide bi

JOKIN BEREZIARTUA

JON LARRAÑAGA
GAES ETA MULTIOPTICAS

"Bezeroak erakartzeko egin ginen laguntzaile"

Bergarako Zurradero kalean dauden Gaes eta Multipoticas denden arduraduna den Jon Larrañagak duela urtebete erabaki zuen Goiena Klubeko laguntzaile egitea.

Zergatik erabaki zenuen Goiena Klubeko laguntzaile egitea?

Bezero gehiago erakarriko genuela uste genuen eta horregatik egin ginen Goiena Klubeko laguntzaile. Klubeko bazkide direnak etortzen dira eta erabili egiten dute txartela.

Hori bai, aitortu beharra dago Bergaran Arrasaten baino gehiago erabiltzen dela txartela.

Ze abantaila eskaintzen dituzue?

Gaes entzumenerako dendan %10eko deskontua eskaintzen dugu eta optika-dendan, berriz, %15eko deskontua. Oso pozik gaude Goiena Klubeko kide egin izanaz.

JOSE LUIS GALINDO
TXIKI ZOO

"Bailaran ezagutzera eman nahi genuen"

Aretxabaletako Mitarte kalean dagoen Txiki Zoo animalia-denda eta ile-apaindegiko Jose Luis Galindok dioenez, urtebete daramate Goiena Klubarekin kolaboratzen.

Zer dela-eta erabaki zenuten Goiena Klubarekin kolaboratzea?

Bailara osoan gure burua ezagutzera eman nahi genuen. Horrez gain, bertako ekimen batean laguntzea beti dago ondo eta horregatik pentsatu genuen bat egitea.

Zein abantaila eskaintzen du Txiki Zoo dendak Goiena Klubeko txartelarekin?

Bezero finkoendako dira abantaila nagusiak. Txakurrendako ile-apaindegi zerbitzuan, adibidez, seigarren zerbitzua doan egiten dugu. Urte osoko bisitak hartzen dira kontuan. Bestalde, animaliendako zenbait osagarritan %50erainoko deskontuak egiten ditugu.

J.B.

Berriendako, pendrive bat eta zozketa

Orain bertan bazkide egiten direnek Goienako Komunikazio Taldearen pendrive bat jasoko dute automatikoki. Eta ez hori bakarrik: bazkide berriak Getariako Astillero jatetxe ospetsuan bi lagunendako bazkari bat eta herri bereko Balentziaga museorako bi sarrera irabazteko zozketan sartuko dira. Oso erraza da Goiena Klubeko bazkide egitea, hainbat bide daude: *www.goienakluba.com* helbidean eskaera orria betez, 943 25 05 05 telefonora deituz, edo *kluba@goiena.com* mezu bat bidalita. Goienako edozein ordezkaritzatara joanda ere badago aukera.



Goienako pendrivea.

Getariako Astillero jatetxea eta Balentziaga museoa.

M.L.

MIREIA LARRAÑAGA
ZUZENDARI KOMERTZIALA

"Ordaindu beharreko 50 euroak erraz amortizatzen dira"

Goiena Klubaren txartelak eskaintzen dituen abantailak kontatu dizkigu Mireia Larrañaga Goiena Komunikazio taldeko zuzendari komertzialak.

Zergatik egin behar gara Goiena Klubeko bazkide?

Hiru dira arrazoiak. Batetik, Goiena Klubeko txartelak berak eskaintzen dituen abantailak daude. Negozio ezberdinetan hainbat deskontu eskaintzen ditugu; adibidez, gasolindegian deskontua. Eta gainera, zozketetan parte hartuz hainbat opari banatzen ditugu: kultura ekitaldietarako sarrerak, nekazari turismoetan egonaldiak, otarreak, liburuak, arropak, telebistak... Horrez gain, Goienako hedabideetan eskela eta sailkatuetan deskontuak egiten ditugu. Beraz, txartela erabiltzen bada, urtean ordaindu beharreko 50 euroak erraz amortizatzen dira.

Arrazoi bakarra aipatu duzu. Ez ziren hiru arrazoiak?

Bai. Klubeko kide egiten direnek asteleheneko *Goiena* papera jasoko dute etxean, Degaboienean asteburuak eman duen guztiarekin.

Eta azkenik, ezin dezakegu ahaztu Goiena Klubeko kide egiten diren guztiek laguntzen dutela gurea moduko euskarazko komunikazio proiektu bat sendotzen.

"Txartelak hainbat deskontu eskaintzen ditu negozioetan"

Oñati-Zubillaga bidegorria egiten hasiko dira laster

Aldundiak 1.905.770 euro bideratuko ditu lanotara

MONIKA BELASTEGI | BERGARA

Gipuzkoako Foru Aldundiak bizikletaren erabilera bultzatzeko eta bidegorri sare egokia osatzeko politikarekin segituko du, eta aurten beste bi bidegorri zati egiten hasteko dirua bideratuko du, beste diru partida batzuetan aurreztea lortu duena aprobetxatuta.

Bidegorri tarte horietako bat Oñatitik Zubillagarainokoa da. Bidegorri hori Epele (Arrasate) eta Oñati arteko bidegorriaren zati bat da eta egiteko beste zati bat ere falta zaio: Zubillaga-Elorregi-Epele (Arrasate), hain justu ere.

Zubillaga-Epele zatiko lanak esleitzeke egon arren, 2012an egingo dira. | GOIENA

Ezaugarriak

Oñati eta Zubillaga arteko tartea egiteko 1.905.770 euro inbertituko ditu Aldundiak. Urte bukaera aldera hasiko dituzte lanak eta 10 hilabetean bukatzea espero dute.

Oñatiko kaskoa industrialdearekin eta lantokiekin lotuko du, Arboletako irteeratik Zubillaga auzoraino. Hala, eguneroko erabilerarako garrantzitsua izatea espero du Diputazioak.

Hain zuzen, 3,9 kilometro luze eta 3,5 metro zabal izango da, eta, erabilerari dagokionez, bizikletek eta oinezkoek erabilera partekatua izango dute, eta zenbait tokitan ibilgailu-zirkulazioarekin erabilera mistoa ere izango du. Horrez gain, argiteria izango du.

Zubillaga-Epele tartea

Zubillaga eta Epele arteko zatiari dagokionez, esleipena egiteke dago. Gauza batzuk egin dira (beste proiektu batekin elkarlotuta zihoalako), baina gauza asko falta dira eta itxita dago, arriskutsua delako. Zati hori egiteko 1,9 milioi behar dira, 2012ko aurrekontuan aurreikusita dago eta Aldundiaren planetan lehentasuna du. Esleipena egindakoan, zortzi bat hilabete beharko dira bukatzeko.

Atez atekoaren "onurak" nabarmentzeko eskuorriak

MIREIA BIKUÑA | ARRASATE

Arrasateko eta Oñatiko Zero Zabor taldeek eskuorriak banatu dituzte etxerik etxe, Debagoienean, atez atekoaren dohainak nabarmenduz. Hain zuzen, PSE-EEk orain dela aste batzuk bailarako etxeetan zaborren kudeaketaren eta atez atekoaren inguruan banatu zituen eskuorriei erantzuteko banatu dituzte. "Zaborraren kudeaketa hika-mika alderdikoietatik aldenduz, informazio garbia jaso eta hausnartzera animatzen zaituztegu, gaiak eskatzen duen seriotasun eta sakontasunarekin", diote.

Sei arrazoi

Sei arrazoi ematen dituzte atez atekoa sistema onena dela argudiatzeko: hondakinen %90 birziklatzen dira, erraustegia ekiditen du, osasuna eta ingurumena gehien errespetatzen dituen sistema da, materia organiko guztia batzen duen sistema bakarra da, lanpostu berriak sortzen ditu, eta sistemarik merkeena da.

Atez atekoaren aldeko hainbat testigantza jaso dituzte.

Eguazten eguerdian Bergarako San Martin plazan egindako elkarretaratzea. | GOIATZ ARANA

Eguaztenean Madrilen deklaratu ostean, epaiaren zain dauden sei debagoiendarrak

Garbi dute epai txarra etortzeko arriskua badagoela, baina esperantza dute

M.B. | ARRASATE

12:00etan hasita, Pablo Ruz epailearen aurretik pasa ziren eguaztenean, banaka, azkeneko Korrikan presoen irudiekin antxintxika egiteagatik deklaratzera deitu zituzten sei debagoiendarrak. Euren abokatuaren galderei soilik erantzun zieten, ez epaileak berak ezta fiskalak egindakoei ere, eta, ondorioz, ordu erdi eskas iraun zuen guztiak.

Seiek onartu zuten presoen argazkiak eraman izana, eta azaldu zuten helburua ez zela terrorismoa goraipatzea, presoek Euskal Herrian egoteko duten eskubidea aldarrikatzea baizik.

Deklaratzera joandakoetako batek, Ibai Redondo bergararrak, esan du garbi dutela ez dela "euren kontrako akusazio bat", presoen gaia puri-purian dagoen uneotan, "mugimendu horren kontra egiteko ahalegin bat" baizik. Berdin esan du debagoiendarrek erakutsitako elkartasunari dagokionez ere: izugarria izan dela, baina eurei emandako babesa baino gehiago, presoen kolektiboari emandakoa dela.

Epaiaren zain daude orain, eta etor daitekeenari buruz galdetuta dio oso argi dutela "epai txar bat etortzeko arriskua badagoela, baina esperantza ere" badutela.

Mobilizazioak hiru herritan

Eguaztenean bailaran egondako mobilizazioei dagokienez, Antzuolan, Balzers Oerlikoneko langileek elkarretaratzea egin zuten goizean. Bergaran ere jende ugari batu zen plazan egindakoan; baita Arrasaten iluntzean egindakoan ere. Bergarako udalbatzak elkartasun mozioa onartu zuen, gobernu taldearen aldeko botoekin, EAJren abstentzioarekin eta PSE-EEren kontrakoarekin.

Zuberoako otarreak eskatzeko azken eguna abenduaren 5a da

Zuberoako otarreak gura dituztenek abenduaren 5a baino lehen egin behar dute eskaera *zuberoako.ikastola1@orange.fr* helbidean. Ordainketa egiteko zenbakia 30350036190360056389 da. Otarrean, ardi-esnez egindako kiloko gazta bat, kilo erdiko ezti potea, patea eta etxean egindako bizkotxoak daude, eta 40 euro balio du.

Otarreen salmentatik batutako dirua Sohütako Eperrak ikastolaren handitze lanak ordaintzeko erabiliko dute. 110 ikaslek dihardute han.

Otarreak abenduaren 16an banatuko dituzte.

EUSKADI LITERATURA SARIA 2011
-saiakera-
Moroak gara behelaino artean?
Joseba Sarrionandiaren liburu ezberdina.
Bertan aurkituko dituzu pertsonaia historikoak
eta gerla kolonialei buruzko gogoetak, aitormen
pertsonalak eta iritzi politikoak, biografia bitxiak
eta pasadizo sinesgaitzak, hizkuntzei buruzko ideiak...
PAMIELA argitaletxea
www.pamiela.com

ENEKO AZKARATE

Rufi Etxeberria eta Iñigo Iruin Huhezin

Ezker abertzaleko kideak Huhezin izan ziren astelehenean, MUko Eskoriatzako fakultateko ikasle eta irakasleek gonbidatuta. *Paradigma. Euskal Herria ispiluaren aurrean* izenburupean, bizi dugun aro berriaz aritu ziren entzule askoren aurrean.

Abenduko zubirako eskaintza zabala prestatu dute Turismo bulegoek

Bisita gidatuak, erakusketak eta museoetara bisitak antolatu dituzte gaurtik

MIREIA BIKUÑA | ARRASATE

Urteko azken zubia badator. Abenduko zubiak turista asko ekarriko ditu gurera. Hori horrela, Debagoieneko turismo bulegoak, museoak eta erakusketa gelak gertu daude ongietorria egiteko. Gaurtik hilaren 11ra arte eskaintza zabala prestatu dute. Hurrengo astean jaiegun asko daude, eta horrek aukera ematen du zubia antolatzeko. Hori kontuan hartuta, zortzi eguneko eskaintza prestatu dute turismo eragile guztiek.

Askotariko bisita gidatuak

Bost turismo bulego daude Debagoienean (Bergaran, Oñatin, Arantzazun, Eskoriatzan eta Leintz Gatzagan), eta guztiek eskainiko dituzte bisita gidatu bereziak. Guztiek zabalduko dituzte ateak bihartik hilaren 11ra arte, Eskoriatzakoak izan ezik; hori hilaren 5etik 7ra zabalduko dute. Informazio gehiago *www.turismodebagoiena.com* atarian dago.

Bestalde, turismo bulego horietatik, askotariko bisita gidatuak egingo dituzte ia egunero: Bergarako erdigunea, Eskoriatzako erdigunea, Oñatiko harribitxiak, Arantzazuko santutegia, gatz museoa, Arrikrutz kobak eta Arantzazuko parketxea ezagutzeko bisitak, hain zuzen ere.

DATUA

5

TURISMO BULEGO

Horiek dira Debagoienean dauden turismo bulegoak. Zubirako guztia prest dute.

Gainera, Elgetako Intxortako ibilbide tematikoak ezagutzeko irteera bi egingo dituzte: hilaren 4an eta 18an. Izena aldez aurretik eman behar da derrigorrez (943 79 64 63).

Jardunaldi gastronomikoak

Bisita turistikoez gain, baina, beste eskaintza batzuk ere baditu Debagoieneko Mankomunitateko Turismo Sailak. Arrasaten paintball (*www.arrasatepaintball.com*) eta segway ibilbideak (*www.en-medio.com*) egiteko aukera izango dute turistek.

Azkenik, Debagoieneko IX. jardunaldi gastronomikoen barruan, bisita gidatu bereziak egingo dituzte: *Gomiztegi baserria eta artzain txakurren erakustaldia* delako bisita egingo dute hilaren 4an eta 11n eta *Iturriko gatza mahaian gozo* delakoa gainerako egunetan.



MUko ikasleak hirugarren sarituarekin. | GOIENA

MUko bi ikasle saritu dituzte 'Get Up Orona' lehiaketan

Julen Joseba Maestrok lehen saria irabazi du eta Beñat Mitxelenak, bigarrena

M.B. | ARRASATE

MUko Ingeniaritzako azken urteko bi ikaslek, Julen Joseba Maestrok eta Beñat Mitxelenak, *Get Up Orona* lehiaketan lehen eta bigarren sariak irabazi dituzte.

Lan baliagarriak

Maestrok *Igogailuan argiztapen eraginkorrerako modu berriak* lanagatik jaso du proiektu onenaren saria –1.500 euro–. Proiektuaren helburua argiztapen-erantzun berriak ikertzea izan da. Ikerketan, ingurumen irizpideak aintzat hartu eta argiztapen-intentsitatea simulatzeko erremintak erabili dira. Proiektuaren ezaugarri nagusia da oso praktikoa dela eta lorturiko emaitzak oso baliagarriak izan daitezkeela.

Beñat Mitxelenak, berriz, *TPU/Galdaketako kontaktu bat baliozkotzeko teknika esperimentalen garapena* izeneko lanagatik jaso du 1.000 euroko bigarren saria. Kablearen azalaren eta igogailuko polearen arteko itsaspen-neurria ikertu du, kable-polea arteko itsaspen-maila bera bermatuko duten tamaina txikiagoko poleak garatzeko helburuarekin, eragin-korragoak diren tamaina txikiagoko makinak erabiltze aldera.

Sari horiek joan zen urtean sortu zituen Oronak, ikerketa sustatzeko asmoz, eta unibertsitateko karrera amaitzen duten gazteei dago zuzenduta. Ikertzea xede duten eta garraio bertikalaren, hiriko mugikortasunaren eta eraikinen kudeaketa energetikoaren arloan berritasunak aurkezten dituzten proiektuak saritzen dira.

Barrenetxea farmazialaria omendu dute

Gipuzkoako Farmazialarien Elkargoak Jabier Barrenetxea omendu du. 37 urtez (apirilaren 1era arte) Oñatiko Kale Zaharreko Barrenetxea botikako titularra izan da. Soraluzen jaio zen, 62 urte ditu eta hiru seme-alabaren aita da.

GOIENA

Juankar Olaeta, Elkar Hezi ikastetxearen sarreran. | MIREIA BIKUÑA

Juankar Olaeta | Gipuzkoako Kristau Eskolako presidentea

"Lana baino gehiago, ardurak ekarriko dizkit presidente karguak"

Juankar Olaeta aukeratu dute lau urterako, eta Elkar Hezin duen lanarekin bateratuko du

M.B. | OÑATI

Oñatiko Elkar Heziko zuzendari Juankar Olaeta Gipuzkoako Kristau Eskolako presidente aukeratu dute. Aurrerantzean egin beharko duen lanaren gainean galdetu diogu.

Gipuzkoako Kristau Eskolako presidentea zara.

Hala da. Orain arte presidente izan denak eta zuzendariak galdetu zidaten ea onartuko nukeen nire hautagaitza aurkeztea. Baietz esan nuen, eta ondoren, zuzendarien biltzarrak bozkatu eta onartu egin zuten.

Zer lan egin beharko duzu aurrerantzean?

Eguneroko lanarekin segituko dut. Bi orduko eskolak ematen diet Batxilergoko ikasleei eta gainerakoetan zuzendari jardun egiten dut. Presidente izateak, hortaz, ez dit lan karga handituko.

Alde handiena arduretan antzemango dut. Presidente izateak bi ardura dakar: ordezkaritza instituzionala, beste erakunde edo elkarte batzuen aurrean; eta hilean behin Lurralde Historikoetako kristau eskoletako presidenteekin bilera: deialdia egin, bilera prestatu eta aurkeztu... Gainera, Gipuzkoako presidente naizenez, automatikoki Euskadiko Kristau Eskolako zuzendaritza batzordeko kide ere banaiz, eta horrek beste bilera bat eskatzen du hilero.

Zenbat urtetarako hartu duzu kargua?

Lau urtean behin berritzen da. Dena den, Gipuzkoako Kristau Eskolako presidente izateko derrigorrezkoa da ikastetxe bateko zuzendari titularra izatea. Hori horrela, hurrengo lau urteetan zuzendari kargua utziko banu, presidente kargua ere utzi beharra izango nuke.

Zenbat pertsona bateratzen ditu Kristau Eskolak?

EAEn 100.000 ikasle, 7.000 langile eta 4.200 ikasgela ditu Kristau Eskolak. Gipuzkoan 54 kristau eskola daude. Azkenik, Oñatiri dagokionez, 0-18 urte arteko 500 ikasle ditugu eta horiekin lan egiten 54 irakasle. Guztira, 350 bat familia ditugu gurekin.

Datu horiek erakusten dute ze garrantzia duen Kristau Eskolak hezkuntzan. Horrek guztiorrek ardura berezia sortzen dit.

"Kristau Eskolako presidente kargua lau urtean behin berritzen da"

ZABALIK

IÑAKI CASAS
http://goiena.net/iritzia/

Ikasgelara bueltatu beharra

Oraindik gogoan dut osabak lehen lana izan zuen garaia, Enpresa -ikasketak aise gainditu ostean. Familiako lehen unibertsitate -lizentziaduna zen eta guraso, anai-arreba eta gainerako familiakoek mirespenez begiratzen genion.

Logikoa denez, bere curriculumari esker berehala izan zuen lana. Hala ere, zapatuetan bisita egitera joaten nintzaionean, liburuei itsatsita ikusten nuen. Eta egun ere, hala segitzen du.

Zergatik segituko du horren gogor ikasten?, galdetzen nion neure buruari, EGBko ikasle nintzen garaian. Dena dauka: ikasketak, lana... esaten nion neure buruari. Bada, denborak eta errealitateak eman didate erantzuna: pertsona moduan hazi, autoerrealizatu eta, zeharka, enpleguari eustea bermatzeko.

Bizi dugun egoera ekonomikoan, gure lan-katalogoan berba eta egoera traumatiko berriak sortu dira: EREak, kaleratzeak, morositatea, ajusteak, enpresen itxierak, eta abar. Guk geuk daukagun kapital kognitiboa baliatu behar dugu lanlekuan, eta, hain zuzen, ezin gara titulazio bat edukitzera mugatu. Lanpostu bat izatearen arduradun bakarrak gu geu gara, langileok. Guk geuk zaindu eta mimatu behar dugu gure gaitasun profesionala.

Horregatik, aurrenak izan behar dugu lantokietan formazioa eskatzen; izan ere, horrek egingo gaitu lehiakorrago, eraginkorrago. Ze enpresak gura du hain giza-kapital handia galdu? Are gehiago, beste enpresa batzuek gure gaitasunetan jarriko dute arreta, gaitasunok atseden barik elikatzen ibili bagara.

Ikasgelak ez dira uzten titulazioa lortuaz bat. Haietara itzuli behar dugu, eta gure eguneroko zereginetan integratu; izan ere, hala, gure autoestimua hazi egingo da eta gure konfiantzak, edozein egoeraren aurrean, gora egingo du. Bizitzan, kirolean bezala, prestakuntza gehien zaintzen duena urrunago iristen da eta asebetetasuna lortzen du.

"Aurrenak izan behar dugu lantokietan formazioa eskatzen"

MARRAZKIZ

UNAI BUSTURIA | http://goiena.net/iritzia/



EDITORIALA

EUSKARAZKO HEDABIDE EZ PUBLIKOAK

Euskarazko hedabideek erakundeen konpromisoa behar dute

Bederatzi hilabete badira euskarazko hedabide ez publikook agerraldi publikoa eta kanpaina bateratua egin genituela, hiru helburu nagusirekin:

1-Sektorearen estrategikotasuna eta beharra azpimarratzea. Komunikazioaren eta hizkuntz normalizazioaren ikuspegitik ez ezik, ekonomia ikuspegitik ere estrategikoa eta garrantzi handikoa den sektore bati buruz ari gara hitz egiten.

2-Erakunde publikoei sektorearekiko konpromiso handiagoa eskatzen zitzaien, publizitate-inbertsio, bestelako inbertsio eta laguntza handiagoak, gaurtik bertatik hasita.

3-Horretaz gain, sektoreak egoeraren analisia egin eta analisi horretatik abiatuta ildo nagusiak erakundeekin lantzen hasteko konpromisoa hartu zuen.

2012. urtea ate-joka dugu, eta erakundeetatik sektoreari begira jasotzen ari garen mezuak kezkagarriak dira, ikaratzeko modukoak.

1-2012rako aurrekontu proposamenean jasota daudenak betetzen badira, Nafarroako Gobernuak euskarazko hedabideentzako zituen diru laguntzak ezerezean dira, 2012ko aurrekontuetatik erabat desagertuko da hedabideetan euskara sustatzeko diru partida. Gainera, 2011ko bigarren epealdiko laguntzak desagertzeko arriskua ere handia da.

2-Eusko Jaurlaritzak aurkeztutako aurrekontuak onartzen badira, erakunde horrek aurten baino 400.000 euro gutxiago bideratuko ditu 2012an hedabideen diru laguntzetara.

Urteetan, Eusko Jaurlaritzaren aurrekontu orokorrak goraka joan direnean, euskalgintzara eta euskarazko hedabideetara bideratutako diru sailak ez dira handitu; orain, aurrekontuetan estutasunak sortu direnean, ez dago gupidarik: lehendik estu dabilen sektore bati are kalte handiagoa egiteko aukera zabalduko da.

"Orain, berriz, aurrekontuetan estutasunak sortu direnean, ez dago gupidarik"

3-Gipuzkoako Foru Aldundiak 2011ko diru sailari eustea aurreikusi du –aurreko bi urteetan asko jaitsi da diru sail hori, eta ez du handituko–. Bizkaiko Foru Aldundia da 2012rako bere aurrekontuetan diru saila handitzea aurreikusi duen bakarra –47.500 euro gehiago, %12ko igoera.

4-Eta zer esanik ez Iparraldeari buruz, non euskaldun hiztunen galera bizkorra (hizkuntza politika publiko baztertzailearen ondorioz) anbiziorik gabeko hizkuntza politika batekin paraleloan doan. Enpresa pribatuek euskarazko hedabide berriak sortzen dituzten bitartean, laguntza publikoak oraindik geldialdi berean mantentzen dira eta, aldi berean, botere publiko gehienek ez dituzte kontuan hartzen euskarazko hedabideak beren publizitate kanpaina ordainduetan.

Jakitun gara sektorearen etorkizuna gure lanaren baitan dagoela nagusiki.

Guk geuk ere aztertu behar ditugula gure indargune eta ahuldadeak, sektorean elkarrekin jardunda errazagoa izango zaigula garai zail honi aurre egitea.

Zeregin horretan ari gara hilabete hauetan eta laster batean gure hausnarketa instituzioetako arduradunekin partekatu ahal izango dugu. Baina argi dugu aurrera egiteko ezinbestekoa dugula erakunde publikoen laguntza handiagoa, eta hori ari gara aldarrikatzen une honetan.

Gaur egungo erakunde publikoen dinamikak ez du asko laguntzen bide horretan, eta ezin dugu isilik geratu ikusten dugunean euskarazko hedabideen sektoreak ez duela erakunde publikoen 2012ko aurrekontu proposamenetan behar eta merezi duen trataera jasoko, ustez denen begietara sektore ezinbesteko eta estrategikoa izan arren. Horregatik, erakundeei publikoki eskatzen diegu gaiaren garrantzia kontuan hartzeko eta aurrekontuak ahalik eta gehien egokitzeko, partidak handituz.

goiena
KOMUNIKAZIO TALDEA

Argitaratzailea Goiena Komunikazio Taldea Kooperatiba Elkartea
E05 Basabe Poligonoa,
20550 ARETXABALETA
Lehendakaria Estepan Plazaola
Zuzendari nagusia Inazio Arregi

Zuzendaria Eneko Azkarate
Erredaktore burua Monika Belastegi
Sailetako arduradunak Xabi Urtzelai (Kirola), Iñaki Iturbe (Diseinua), Mireia Larrañaga (Publizitatea)

Maketazioa Iñaki Iturbe, Imanol Soriano, Kepa Martelo.
Publizitatea Mireia Larrañaga, Amaia Mundiñano, Ziortza Martin, Itsaso Berezibar, Imanol Elortza.
Testuen zuzenketa Sergio Azkarate
Harpidetza eta banaketa Marta Leturia
Administrazioa Agurtzane Gaintzarain, Ane Berezibar, Iratxe Bengoa.

EGOITZA NAGUSIA - GOIENA PAPERA ARRASATE 20500:
Otalora Lizentziaduna 31 | 132 posta-kutxa
Tel.: 943 25 05 05 | Faxa: 943 25 05 00
arrasate@goiena.com

ORDEZKARITZA ARETXABALETA 20550: Durana 11
Tel.: 943 79 86 21 | Faxa: 943 77 18 54
aretxabaleta@goiena.com

Publizitatea Aretxabaleta 20550
E05 Basabe Poligonoa | Tel.: 943 25 05 05
Faxa: 943 25 05 09 | publi@goiena.com
Harpidetza Aretxabaleta 20550
E05 Basabe Poligonoa | Tel.: 943 08 10 50
harpidetza@goiena.com
Lege Gordailua: NA-3329/2000
ISSN: 2174-369X
Tirada: 20.100 ale.
Difusioa: 19.951 ale.

OJD erakundeak ikuskatutako astekaria.

GOIENAk ez du bere gain hartzen IRITZIA eta GUTUNAK orrialdeetan, edo bestelako orrialdeetako kolaboratzaileek, adierazitako iritzien erantzukizunik.

LAGUNTZAILEAK
Gipuzkoako Foru Aldundia · Arrasateko Udala · Bergarako Udala · Oñatiko Udala · Aretxabaletako Udala · Eskoriatzako Udala · Antzuolako Udala · Aramaioko Udala · Elgetako Udala · Leintz Gatzagako Udala

Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak diruz lagundutako aldizkaria

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

GUTUNAK

Arrasateko ospitalea

Gillermo Azkarate
Bergara

Dena hasi zen txorkatila hautsi eta urgentzietatik sartu nintzenean. Ez nekien apurtuta nuenik, are gutxiago 24 egun luze bertan igaroko nituenik, sekula ospitale baten egon gabe nengoen; 24 egun bertan egon naiz euren faboreari esker.

Ez dakit zein den euren aurrekontua, ezta aurreratua den edo ez instrumentala, baina eman didaten eta jendeari ematen dioten tratua ezin hobea da, atentzio eta gertutasunez betea.

Konturatu nintzen han zegoen jendea –gaixoak– oso garrantzitsua zela; entzun dut: "Ondo lo egin duzu?"; "Minik baduzu?"; "Ez pasatu minik, eta horrela bada, deitu, horretarako gaude eta…". Hitz hauek ez dute zerikusirik aurrekontuarekin eta teknikarekin, pertsonekin baizik, hau azpimarratu nahi dut. Oso-oso garrantzitsua da.

Sendagile batek niri esandako hitz hunkigarriak hemen: "Zure arazoak konpondu arte, guk zainduko zaitugu". Gertukoak, benetan gertuko hitzak esan zizkidan sendagile hark! Denoi: eskerrik asko!

Kantu bila galduta

Nuria Bernardo
Gasteiz

Igande arratsaldean Donostian izan ginen, Antzoki Zaharrean, Euskal Kantu Txapelketaren Gipuzkoako azken saioan. Ikuskizun ederra, zinez, gaztetxo mordoxka bat taula gainean bere onenak ematen.

Han mundu guztiak eman zuen maila, kantari, musikari, teknikari, aurkezle zein entzuleek. Salbu eta, gure uste apalean, araudiak eta epaimahaiak.

Araudiak kale egin zuen, hala iruditu zitzaigun behintzat, kantariren bati musikaz laguntzen helduren bat ikusi genuelako, beste batzuek beren tresna jo, edo beren adineko musikarien laguntza baino izan ez zuten bitartean.

Bestetik, pertsona berberek maila batean baino gehiagotan parte hartu zuten; hau da, hasieran bakarlari gisa eta gero bikotean, edo lehen bikote gisa eta ondoren talde modura.

Promiskuitate horrek ez zirudien parte onekoa, eta halaxe agertu zen gero sarien garaian.

Saritutakoen izenak azaldu zirenean, gu haluzinazio baten pean ginela pentsatu genuen, gu balkoian geundenez epaimahaikoek beren lekutik beste ikuspegi bat izan zutela, beste saio bat ikusi zutela alegia. Iritzi estetiko edo musikalak albo batera utzita ere, kantari gaztetxoen promozioa egin nahi duen txapelketa batean, zer zentzu dauka banatzeko dauden zazpi sarietatik hiru pertsona berei ematea?

Antolatzaileari, Kantuzaleen Elkarteari, araudia berrikusteko eskatu nahi diogu, horrenbeste gaztetxoren ilusioak ez du merezi halako azken gaiztorik.

Iban Altuberen oroimenezkoa

Markel Irizar
(Iban Altuberen oroimenezko mendi martxako antolakuntzaren izenean)
Oñati

Pasa den igandean Oñatin, Iban Altuberen omenez egin zen mendi bizikleta martxan, merkurioak 4 gradu eskas markatzen zituen arren, mendi bizikleta, kirola, eta Iban bera maite genuenon gertutasunarekin berotu zen eguna.

Haur, gazte, guraso eta txirrindulari ugarik parte hartu zuten Oñatiko txoko eta bazterretan antolatutako martxetan, eta amaieran guztiok herriko plazan elkartu ginen, hainbat saltsatako perrexila izan zen Ibani merezi zuen omenaldi beroa eskaintzeko.

Hau dena ez zen posible izango Sarriegi, Kaiku, Baque Kafeak, Zurich, Mugarri, Codorniu eta Lizarralde Kirolak bezalako etxeek lagundu izan ez baligute. Ezta Oñatiko Udalaren eta Aloña Mendiren erraztasunei esker izan ez balitz. Baina, batez ere, trabesia honen arrakasta, bertara gerturatu ziren bizikletazale eta lagunen babesak egin zuen posible.

Horretxegatik, Iban Altuberen lagunen izenean, gure eskerrik beroenak eman nahi dizkizuegu bertan izan zineten guztioi eta hurrengo urterako gonbidapena luzatzeko aprobetxatu nahi dugu aukera.

Besterik gabe eta ongi baderitzozue, 2012ko Iban Altuberen oroimenezkora arte agurtzen zaituztegu.

Ordura arte, gure lagun Ibanek esango lukeen bezala: Egurra Narru!

Txapa Irratiaren elkartasun adierazpena

Iñigo Herreros
(Txapa Irratiaren izenean)
Bergara

Azaroaren 30ean bost bergarar eta arrasatear bat, tartean Txapakideak eta Txapakide ohiak, Madrilgo Auzitegi Nazionalean deklaratzen egon dira, Korrikan herriko presoen argazkiak eramatearren terrorismoaren goratzarrea leporatu dietelako.

Deklaratzen egon ondoren epaileak hartuko duen erabakiaren zain gelditu dira.

Txapa Irratitik gazte hauei elkartasuna adierazi nahi diegu eta horrelako egoerak salatu nahiko genituzke, presoen eskubideen aldarrikapena zilegia dela uste dugulako.

Atal honetan argitaratzeko diren gutunek, gehienez izan behar dituzte 1.900 karaktere (hutsuneak barne) edo 50 lerro. GOIENAk eskubidea du gutuna laburtzeko.
Gutunarekin batera bidali beharrekoak: egilearen izena eta abizena, herria eta harremanetarako telefonoa. Gutuna helarazteko bideak: Ibarra 6, 20570 Bergara | papera@goiena.com | Faxa: 943 25 05 13

Debagoieneko Tobera, Tobera?

Jose Antonio Ardantza | Lehendakaria

"Oso garai latzak, zailak, izan ziren guretako Arrasateko alkate izan nintzenekoak"

- 'Euskadi bihotzean' memoria liburuan Arrasateko hainbat pasarte jaso ditu Ardantzak
- Bihotzekoa izan zuenetik, "lasaitasun, lotsa, ardura gutxiagoz" beguratzen dio bizitzari

ENEKO AZKARATE | ARRASATE

Euskadi Bihotzean argitaratu berri du. Bere memoria liburua. Caja Laboraleko buruetako bat, Arrasateko alkate, Gipuzkoako ahaldun nagusi, Lehendakari eta oraintsu arte Euskalteleko presidente izan denak egin digu kontakizuna, barren-barrenetik, bihotzetik.

***Euskadi Bihotzean* liburuak baditu pasarte batzuk bailara honekin lotura zuzena dutenak...**

Urte asko, nire gaztarokoak-eta, bizitza profesional eta politiko -publikokoak, Arrasaten daude kokatuta. Une gogorrak bizi genituen, 1969an, 1970ean... Lehen grebak kooperatibetan... Baina gehienak onak izan ziren, batez ere kooperatibak handitzen, hazkundean hasi zirelako... Garagartzako planta-eta sasoi haietakoak dira. Une indartsua izan zen. Arrasate jarri zen, kooperatibei esker, gaur kanpotik Mondragoeko esperientzia ezagutzera.

Militantzia politikoa klandestinitatean eman zenuen Francoren garaian. Emaztea ere, zelanbait esatearren, engainatuta eduki zenuen...

Bai, egia da, politikan sartuta nengoen Francoren denboran, klandestinitatean, isilean, ezizenak erabiltzen genituen... 1961ean sartu nintzen, 20 urterekin, eta 1965ean jauzi zen gure erakundea. Ezkutatuta, kontu handiz, ibili behar izan nintzen. Emaztegaiak ere ez zekien ezer. Jakin zuenean, disgustu itzela jaso zuen. Negarrak... Neuk ere bai, jakina. Nire bizitza pikutara zihoala uste nuen, horregatik esan nion emaztegaiari ahazteko nirekin. Ez nekien non amaituko nuen, kartzelan, Frantziara ihes egin beharko nuen...

Mondragoeko alkate izan zeneko urtea gogoratzeko atalari *Ducados batek irauten duen denbora* jarri diozu izenburua. Zergatik?

Garai latzak, zailak, izan ziren guretako Arrasaten. 1979tik 83ra bitarte izan nintzen alkate. Osoko Bilkuretan istilu handiak izaten ziren. Hasten nintzenean berbetan, zarataka hasten zen jendea, *Presoak kalera!, Lemoiz apurtu!* eta halakoekin. Baina, ostera, Arrasatek, herriak, premia handiak zituen. Gauzak zela zihoazen ikusita, erabaki nuen, isiltzen ez baziren Plenoa bertan behera utziko nuela. Hala egiten nuen. Zarataka hasi orduko, zigarro bat piztu eta berdin jarraitzen bazuten, Osokoa amaitutzat eman eta etxera!

Diputatu nagusi izan zenekoaz, zer gogoratzen duzu?

Udaleko agintaldia amaitzera zihoala, Diputaziorako deitu ninduten. Ez nuen nahi, ze, besteak beste, nire familiak asko sufritu zuen sasoi hartan. Arrasaten bizi nintzen, Arrasate kalean. Eta sarri etortzen ziren etxe aurrera: *Ardanza cabrón, sal al balcón* oihu egitera. Bospasei urteko seme-alabendako ez zen gozoa. Baina Foru aldundiko lana lasaiagoa izan zen. Udaleko lana lubakietan egotea modukoa izan zen.

Zela baloratzen dituzu azken hauteskundeetako emaitzak?

Pozik nago. Hiru arrazoirengatik. Batetik, leheneko aldiz, ETAren indarkeriarik barekoak izan direlako eta denok aukera izan dugulako hauteskundeetan parte hartzeko. Bestetik, mapa argitu da eta lau ardatz zehaztu dira, bi espainolistena eta beste bi aukera abertzaleena. Hori positiboa da. Normalizazioaren seinale. Hirugarren arrazoia da lehenengo aldiz Espainiako hauteskundeetan euskal abertzaletasunak irabazi diola espainol abertzaletasunari.

Bilduren nagusitasuna Gipuzkoan?

Demokraziaren ostean, hasierako urteetan, nahiz eta askok uste izan gure alderdia zaharrez osatua zela, lehen indar izan ginen, nagusitasun osoz. Ni alkate izan nintzen 11 zinegotzirekin, erabateko gehiengoz. Orain, zikloa aldatu da hemen. Demokrazia guztietan gertatzen da. Normalak dira halako gorabeherak. Gainera, orain ez da indarkeriarik eta gauzak normaldu dira. Politika normaltzen doan heinean, ohikoak izango dira batzuek goian eta beste batzuek behean egotea, eta alderantziz. Herriak, batzuetan, gauza batzuk baloratzen ditu eta beste batzuetan, beste batzuk. Gure alderdia jaitsi egin dela? Normaltasunaren barruan kokatu behar dugu.

Eta EBBtik Gipuzkoako EAJri egin zaizkion kritikak orain arteko estrategiaren gainean?

Ez noa holakoetan sartzera. Gure Herriak izan ditu bi arazo gainditzekoak, Lehendakari izan nintzeneko sasoian ere. Batetik, eguneroko arazoak, langabezia -eta. Arazo urgenteak. Bestetik, arazo inportanteak. Duela ehun urte baino gehiagotik, Herri bezala, dugun arazoa. Politikariak jakin behar du, unean une, zelako arazoei eman garrantzia. Herria, burujabetza, independentzia... behin eta berriro bagabiltza horrekin eta ahazten badugu egunerokoa, pertsonaren beharra, txarto gabiltza. Une honetan, arazo larria dugu merkatuak, euroa, gure enpresak direla, langabezia dela... Iñigo Urkulluren deia testuinguru horretan kokatu behar da.

Jose Antonio Ardantza, Goiena telebistan. | ENEKO AZKARATE

"Arrasateko alkate nintzela 'Ardanza cabrón sal al balcón' ohiu egiten zidaten"

"Alderdia jaitsi egin dela Gipuzkoan? Normaltasun kontua da"

"Ajuria Eneko itunaren mamia zen normalizazio politikoa eta bakea"

"Azkenaldian Amaiurren ez dut larregi ikusi Garaikoetxea..."

Batez ere bi konturengatik dira ezagunak zure agintaldiak lehendakaritzan: batetik, sozialistekin batera gobernatu zenuelako. Zer moduz?

Hasieran txarto. 1987an hasi nintzen haiekin batera koalizio-gobernuan. Urte gogorrak haiek ere. Krisia, atentatuak... Ikusirik egoera zein zen, esan nion Ramon Jauregiri: "Ramon, edo gure artekoa konpontzen dugu edo pikutara doa dena". Orduan hasi ginen benetako gobernu moduan funtzionatzen. Orduan sortu genuen Ajuria Eneko ituna.

Zein izan zen Ajuria Eneko itunaren ekarpen nagusia?

Itunean argi jasotzen zen zeintzuk ziren eta diren gure herriaren arazo nagusiak: normalizazio politikoa eta bakea. Eta irteera planteatzen zen azkeneko puntuan. Euskaldunon bizikidetza. Demokraton arteko elkar ulermena bultzatu genuen ETAren indarkeriari aurre egiteko. Baina arazo politikoari irteerak planteatzen genizkion, eta ETAren amaieraren ostekorako metodologia ere bai.

Garaikoetxea ordezkatu zenuen Lehendakaritzan, EAJren zatiketa gertatu zenean. Garaikoetxeak non amaitu duen aurreikus zenezakeen orduan?

Azkenaldian Amaiurren ez dut larregi ikusi. Bildun gehiago, baina azkenaldian, gutxi. Bestalde, ez dakit zer gertatuko den Sortu legeztatzen dutenean. Ze, Bilduri eman dizkio boto gehienak ezker abertzaleak. Baina legezko izatea EAk eman dio, bereziki. Seguruen datorren urtean egingo diren Eusko Legebiltzarrerako hauteskundeetan jakingo dugu zer gertatuko den Sorturekin, Bildurekin, Amaiurrekin...

***Euskadi Bihotzean* zergatik?**

Bingen Zupiriaren ideia izan da. Hark euskaratu eta idatzi du liburua. Polita iruditu zitzaidan.

Bihotzekoa jasan zenuen duela hilabete batzuk. Beste ikuskera batekin begiratzen zaio munduari orain?

Bai, lasaitasun, lotsa, ardura gutxiagoz... Ezberdin. Esperientzia gogorra da halako bat pasatzea, baina gainditzen dituzu gero, gauzak beste modu batera ikusten dira.

Margarita Romariz • Etxe-Aundi Jatetxeko jabea

"Q'-a etengabe kalitatearen alde lan egitearen ikurra da"

Etxe-Aundiren helburu nagusia beti izan da etengabeko hobekuntza eta zerbitzua ahalik eta gehien hobetzea. Horregatik hasi zen Margarita Romariz, Etxe-Aundiko jabea, kalitatearen hobekuntzarako planekin lanean. Kudeaketa sistema horri esker, jatetxeak bezeroarekin eta hobekuntzarekin duen konpromisoa berretsi nahi izan du.

Margarita Romariz, Etxe-Aundi hotel-jatetxearen aurrean. IMANOLGALLEGO

Zeintzuk izan ziren sistema honen alde apustua egiteko arrazoiak?
Gure etxean beti egin izan dugu lan zerbitzu hobea eskaintzeko, eta horrela ezagutu genuen sistema. Ez gara inoiz diploma baten bila ibili, gu etengabe kalitate hobea eskaintzeko lanean gabiltza. Sistema honek balio izan digu egunero hobetzeko egiten gabiltzan lana ezagutzera emateko.

Ze abantaila ekarri dizkizue *Q* ziurtagiria edukitzeak?
Q metodoak bezeroarenganako arreta azpimarratzen duela uste dut, eta horrek ospea ematen du; hala ere, bezeroarekiko tratua lehen bezain bikaina da orain ere. Dena den, jendeak igartzen ez duen arren, sistemak barne antolamendua eta gestioa asko hobetu du.

Ezarpenaren ondorioz nolako hobekuntzak izan dituzue barne funtzionamenduari begira? Eta kudeaketa gaietan? Eta azpiegitura kontuetan?
Dokumentazioa eramateko aldaketez gain, sukaldeak izan ditu aldaketa gehienak. Orain, gure exijentzia mailari eusteaz gain, hornitzaileei eta produktuei gure buruari eskatzen diogun bikaintasun bera exijitzen diegu.

Zeintzuk dira bezeroaren asebetetzean zuzenean eragina izan duten hobekuntzak?
Etxe-Aundiren kasuan, bezeroa da gure helburu nagusia eta kalitate sistemak dituen inkestei esker gure jarrera eta produktua hobeto egoki daitezen lagundu digu.

Zer esango zenieke turismo arloko profesionalei kalitate turistikoaren *Q*-aren ezarpenerako anima daitezen?
Q-a lortzea ez dela helburua, ondorioa baizik. Guk gure jatetxearen eta hotelaren zerbitzua hobetzeko hasi ginen kalitate sistemak lantzen eta *Q*-a lortzea ondoren etorri da. Nire ustez, zerbitzu hobea eskaintzeko asmoarekin egin behar dira horrelako gauzak, eta ez sari edo ikur bat lortzeko.

Kalitate turistikoaren *Q*-aren prozesuak zure erakundearen kokatze lehiakorragoa ahalbidetzen duela uste duzu?
Q-ak egindako lana argiago erakusten laguntzen du eta horrek bezeroari ziurtasun handiagoa ematen dio. Kalitatearen alde egindako lanaren ikurra da *Q*-a.

Kalitate turistikoaren *Q*-aren kudeaketa prozesuaren barruan landutako eskumenen artean zeintzuk azpimarratuko zenituzke erabilgarrien moduan?
Guztiak dira beharrezkoak eta hobekuntza prozesuaren barruan ezin da aspektu bat landu gabe geratu. Dena den, Etxe-Aundin talde lanak garrantzi berezia eduki arren, sukaldea talde horren muina dela uste dut.

Kalitatearen kultura zure erakundean bultzatzeko nolako aldaketak sartu dituzu edo sartzeko asmoa duzu?
Behar beste; izan ere, Etxe-Aundik kalitatearekin eta bikaintasunarekin duen konpromisoa ez da *Q*-a lortzearekin amaitu, gu etengabe hobetzen saiatzen ari gara ahalik eta zerbitzu onena emateko.

Eusko Jaurlaritzak eta Turismoaren Euskal Agentziak, Basquetourrek, Euskalitekin lankidetzan, behar dituen tresnak eta laguntzak ematen dizkiote enpresaburuari, enpresa lehiakorragoa izan dadin, ondorengo programa hauen bitartez:

- **Jardunbide egokirako programak:** Helburua enpresarien "profesionalizazioa" eta jomuga-kontzientzia sortzea da. Euskadin kalitate turistikoarekin konpromiso diploma duten 494 establezimendu daude.
- **Kalitate turistikoaren 'Q' programa:** Bezeroen itxaropenak betetzea eta asebetetzea bermatzen dituen programa. Euskadin dagoeneko 273 establezimenduk jaso dute kalitate turistikoaren *Q* bereizgarria.
- **EFQM Bikaintasun eredua:** Erakundeei kalitatearekin bikaintasun mailaraino igotzea proposatzen dien programa da hori. Eredu horretan parte hartzen diharduten 14 establezimendu daude Erkidego osoan.

Jarri kalitate turistikoaren *Q* ziurtagiria zure establezimenduan!

94 607 75 86
94 404 74 70
•
turismoa.euskadi.net
euskalit.net

BASQUETOUR
TURISMOAREN EUSKAL AGENTZIA
AGENCIA VASCA DE TURISMO

Herri-baltzua
EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO
Sociedad Pública del

EUSKALIT
Bikaintasunerako Euskal Fundazioa
Fundación Vasca para la Excelencia

DUELA 10 URTE

2001-11-16

Hainbat istripu Debagoienean

Azaroa hilabete iluna izan zen Debagoieneko errepideetan, hainbat istripu izan ziren -eta, horietako batzuk larriak. Elgetan txarto adierazitako estolda batek hainbat istripu sorrarazi zituen, eta Eibarrera bidean Azkar enpresako kamioi bat bidetik irten zen, Elgetan hori ere. Aste berean Aretxabaletako gazte bat hil zen Oñatin istripuan, eta baita Arrasateko beste gazte bat ere, Markuleten.

Kamioia, Elgetan. | 'GOIBEKOKALE'

2001-11-15

Zentsua berritzeko lanean

Debagoieneko eta inguruko beste herri batzuetako 70 lagun ibili ziren Estatistikako Institutu Nazionalerako (INE) zentsua berritzeko lanean. Ibarreko etxebizitza, lokal eta komertzio batetik bestera ibili ziren galderak egiten. Nazioarteko legediari jarraituz, indarrean jarri zuten biztanleen eta etxebizitzen zentzu kanpaina berritzeko lanean zebiltzan agenteak ziren.

DUELA 5 URTE

2006-11-24

Lau urtean Deba garbi

Hala aurreratu zuen *Goienkaria* -k, Epeleko araztegiko lanak hasteke zeudela; ordurako, baina, Mekolaldeko araztegiko lanak hasita zeuden. Epelekoa egiteko Arrasateko eta Bergarako udaletan aurkeztu zuten proiektua, bi herri horietako lurrak erabili behar zituztelako obrak egiteko; 26 milioiko aurrekontua zuen.

ARETXABALETA

Idoia Elexpuru Saltsa guztietako perrexila, jendea zerbait eskatzera joaten zaionean ezetz esaten ez dakien horietakoa da Idoia; elkarrizketa hau da horren eredu garbia. | XABIER URTZELAI

"Aretxabaletan modelo ederrak ditugu, beti laguntzeko gertu egoten direnak"

Aretxabaletan Belar-Meta dendan aurkituko duzue Idoia, hurrengo erakusleihoa zein izango den pentsatzen; edo Aramaion, margo eskolak ematen. Ibarra futbol zelaian, futbol taldea animatzen, edo... Idoia Elexpuru (Aretxabaleta, 1969) ez da geldi egoten den horietakoa.

Zelan okurritu zitzaizuen denda kanpoan, Durana kalean, desfilea egitearen kontua?

Jendea probokatzea polita da, ahal dugun neurrian euren atentzioa lortzea. Erakusleihoa aldiro aldatzea izan daiteke modu bat, edo desfile bat egitea. Aretxabaletako jendea prest egoten da laguntzeko, horregatik gustatzen zait bertako jendea, eta halaxe hasi ginen, herritarren laguntzarekin desfile bat muntatu eta zerbait berezia egiten.

Nondik datorkizu modarekiko zaletasuna?

Betidanik gustatu izan zait. Begietatik sartzen zait dena; detaile txikietan jartzen dut arreta, baina ez moda kontuetan bakarrik, margolaritzarekiko zaletasuna ere horregatik datorkit, dekorazio kontuak...

Eta dendako erakusleihoa zaintzeko mimo hori?

Baliteke pinturarekiko dudan zaletasunaz harremana izatea. Koloreak, koloreen arteko oreka... Lehenago komentatu duguna, begietatik sartzen zaizkit gauzak, eta garrantzia ematen diot.

Zelan janzten dira aretxabaletarrak?

Geroago eta hobeto. Eta, batez ere gizonezkoek, egin dute aurrerapauso handia. Badaude arropak emazteak edo amak erosten dizkietenak, baina geroago eta gutxiago. Eta herriko komertzioak hori du ona, besteak beste, gauzak etxera probatzera eramateko konfiantza izaten dugula.

Miss España lehiaketan hautagai gipuzkoarrak kritikak jaso ditu, ze pertsonaia historikorekin afalduko lukeen galdetzerakoan Victoria's Secret etxeko sortzailearekin erantzun zuelako. Erantzuna alde batera utzita, zer dute etxe horretako desfileek, bada?

Ikusgarriak direla, oso politak. Barruko arropak erakusten dituzte, lentzeria, baina oso modu ikusgarrian. Bitxiekin egindako bularretakoak, kolorea eta diseinu berritzailea nahi beste... Diseinu horiek politak dira erakusteko, baina egunero erabiltzeko...

Aukeratzen dituzten modeloak ere ez dira nolanahikoak...

Diru mordoa gastatzen dute *top model*-ak ekartzen, emakume ikusgarriak izaten dira.

Idoia Elexpuru, dendako erakusleihoan. | XABIER URTZELAI

"Begietatik sartzen zaizkit gauza asko, detaile txikienetan jartzen dut arreta"

"Gabonetan, ipuin bat irudikatuko duen erakusleihoa jarriko dugu"

Zuen desfileko modelo aretxabaletarrak ez dira atzean geratuko, bada.

Ez, guk ere modelo ederrak ditugu, laguntzeko gertu dagoen jendea. Guri, baina, jende normalagoa gustatzen zaigu, guapoak direnak, horren ederrak ez direnak, gorputz polita dutenak, sendotxoago daudenak, argalak... Hurrengo desfilea egiten badugu gustatuko litzaidake nagusiekin egitea. Ikusiko dugu...

Aramaion 70 ikasle dituzu margolaritzako eskoletan. Badator artistarik?

Bai, bai, abilezia duten gazte asko daude. Dena dela, margolarien, eta orokorrean, artisten mundua ez dago oso baloratua. Nik eskolaz kanpoko jarduera moduan ematen dut margolaritza, gaztetxoetatik hasi eta 17 urte inguru dituzten ikasleetaraino. Hau da, nik ez ditut matematikak erakusten eta gazteek beste jarrera bat izaten dute eskolan. Hori bai, eskola horietatik zer ikasten duten, bada, bakoitzak gauza diferentea, seguru. Baina, euren hezkuntza prozesuan eraginen bat izan badut, bada, ondo.

Gabonetarako erakusleiho lehiaketarako gertu?

Parte-hartzeko asmoz goaz, eta erakusleihoan ipuin bat irudikatzeko asmoa daukat, ez da sekretua. Baina, erakusleihoa aldiro aldatzearen aldekoa naiz, gustuko dudalako eta jendearen arreta piztea atsegin dudalako. Uste dut ahalegin hori egin behar dugula dendariok, jendea gure komertziora sartzera gonbidatu. Askotan lotsagatik ez da jendea dendara sartzen, gero ezer erosiko ez duten beldurrez edo... Dendariok gure duguna da jendeak sartu-irtena lasai egitea: sartu, ikusi, ukitu, usaindu... eta ezer gustatu ez bazaizu, bada, hurrengoan izango da.

HERRITARRAK

NIRE HERRIAN

:) JENDEA GERTU LAGUNTZEKO

Aretxabaletak daukan gauza ona bertako jendea da, laguntzeko gertu dago beti. Eta jende zabala da; esate baterako, Aretxabaletako Aratusteek erakusten dute hori. Gure kasuan, desfilea egitea erabaki genuenean konturatu ginen inguruan jende mordoa geneukala laguntzeko gertu, eta hori eskertzekoa da.

:(KOMERTZIO GUTXI, AUKERAN

Aretxabaletan komertzio gehiago egotea gustatuko litzaidake. Uste dut denok eskertzen dugula bizirik dagoen herria izatea, baina, horretarako, herritarren erantzunak eta inplikazioak proportzionala izan beharko luke; guztiok nahi ditugu herrian zerbitzuak eskura izan, baina gero, kontsumitzen dugu herrian?

HERRIAK

ARRASATE

Aurtengo txerria, hemengoa

- 'Potxolo' dauka izena aurtengo Santamasetako txerriak eta Garagartzakoa da
- Santamasetako Komisiñuek abenduaren 7an egingo du agerraldia egitaraua azaltzeko

ARRITXU BARRUSO | ARRASATE

Potxolo dauka izena, bederatzi hilabete ditu eta abenduaren 22an, Santamas egunean, arrasatear guztien begiradak jasoko ditu. Santamasetako txerriaz ari gara, noski. Gainera, Arabatik ekarri barik, hemengoa izango da Santamasetako erregea: Garagartza auzoko Karreoena baserrikoa.

Txantxa moduan hasitakoa...

Karreoena baserriko Egoitz Zuazubizkarrek beste bi lagunekin batera dauka txerria–Iñaki Etxebeste eta Jon Baltzategi–: "Nik baserria eta eskulana ipintzen dut eta haiek pentsua, txorizoak egiteko osagai guztiak eta gainontzeko gastuak".

Potxolo bigarren txerria dute; aurreko urtean hazi zuten lehenengoa: *Rosa*. "Santamasetako Komisiñoko kideak ezagutzen ditugu, eta pasa den urtean txantxetan esan genien Arabatik ekarri barik geuk, etxean bertan, plazan erakutsitako txerri hura baino ederragoa geneukala. Txantxa moduan hasi zen guztia, baina urtarrilean, aurtengo txerria geuk ipintzeko proposamena egin ziguten".

Garagartzako Karreoena baserriko Egoitz Zuazubizkar, Santamasetako txerriarekin, *Potxolo*-rekin. | ARRITXU BARRUSO

ESANAK

"Akaso gehiegi mimatu dugu; kapritxora zaindutako txerria da"

"Jaten zikinak diren arren, asko zaintzen dute euren garbitasuna "

EGOITZ ZUAZUBIZKAR | JABEA

Lasaia, garbia eta jatun ona

Joan den martxoan iritsi zen *Potxolo* Garagartzara eta ordutik hona etxekoen mimo eta begirune guztiak jaso ditu. Zuazubizkarren esanetan, akaso, gehiegi mimatu dute: "Pentsua emateaz gain, baserriko produktuak ematen dizkiogu, garaian garaikoak: azak, kalabazak, kiwiak, sagarrak, eta abar. Horrez gain, gazuria ere ematen genion hasieran, gazta egitetik sobratzen den ura, alegia. Gazuria ikaragarri gustatzen zaio. Kapritxora zainduta dago. Balio duena baino diru gehiago gastatzen dugu hura zaintzen, baina...".

DATUA

230

KILO INGURU

Ez dute oraindik txerria pisatzeko aukerarik izan, baina 230 kilo inguru izango dituela uste dute jabeek.

Potxolo-ren egunerokoak ez du misterio handirik: jan eta lo. Horrez gain, egunero hamar minutu inguru ateratzen dute ukuilutik, apur bat ibil dadin: "Bere tokia garbitzen dudan bitartean aske uzten dut. Oso lasaia da eta bere kaxara ibiltzen da, ez digu kasu handirik egiten. Gainontzean, jan eta lo".

Askok uste dutenaren kontra, txerria oso animalia garbia da eta *Potxolo* ere garbi-garbi topatu genuen Karreoena baserrian: "Txerriak zikinak dira jaten, edozer gauza jaten dutelako, baina euren garbitasuna asko zaintzen dute, oso kuriosoa da. Hark ere txiza eta kaka beti leku berean egiten du eta sekula ez da gainean etzaten. Behien edo zaldien aldean oso garbia da txerria".

Jan eta lo egiteaz gain, *Potxolo*-k badauka beste zaletasun bat: burbuilatxoak egitea. "Askara barazkiak botatzen dizkiot eta baita ur beroa pentsuarekin nahastuta. Muturra uretan sartu eta burbuilak egitea asko gustatzen zaio".

Ilusioa bai, baina ardura era bai

Zuazubizkar pozik dago *Potxolo* Santamasetako txerria izango delako, baina esan digu ardura ere badakarrela horrek: "24 ordu pasatuko ditu baserritik kanpora eta horrek beti arduratzen zaitu. Horrenbeste lan hartu eta gero zerbait gertatuko balitz, sekulako faena izango litzateke. Ea dena ondo irteten den".

Hogei egun barru, baserriko lasaitasuna utzi eta kaleko zarata eta burrunbara etorri beharko du. Hura konturatu ere egingo ez den arren, egun batez festaren erregea izango da *Potxolo*.

OGIZUN
koop. elk.
okindegia

Ibargarai 44-46 BERGARA
943 76 45 53

Ibargarai 17 behea BERGARA
943 76 21 37

Obradorea. Zubillaga 10 OÑATI
943 78 24 13

Bikain ziurtagiria jaso zuten enpresa eta erakunde guztien talde argazkia, eguazteneko Guggenheim museoko ekitaldian. | JOSE FELIX DIAZ DE TUESTA

Arrasateko Udala, Copreci eta Elay, euskaran bikain

Euskararen erabileraren kudeaketa saritzen duen Bikain ziurtagiria jaso zuten eguaztenean, Bilbon

JOKIN BEREZARTUA | ARRASATE

Arrasateko Udalak, Aretxabaletako Copreci kooperatibak eta Antzuolako Elay taldeak Bikain ziurtagiria jaso dute. Ebaluazio irizpide zorrotzak gaindituta, euskararen presentzia, erabilera eta kudeaketan bikaintasuna aitortu zieten eguaztenean Bilboko Guggenheim museoan egindako ekitaldian. Bikain Euskararen Kalitate Ziurtagiria Jaurlaritzak banatzen du urtero.

Ziurtagiria eskuratzeko hautaketara boluntarioki aurkezten dira enpresa eta erakundeak eta Euskalitek ezartzen duen ebaluazio prozesu zorrotzari aurre egin behar izaten diote. 2008an ekin ziotenetik, 93 enpresa eta erakunderi aitortu zaie euskararen alde egindako lana.

Arrasatekoa, bailarako bakarra

Arrasateko Udala da Debagoieneko bakarra Bikain ziurtagiriaren goi mailako puntuaketa jaso duena. Are gehiago, errekonozimendu hori jaso duen UEMA Udalerri euskaldunen mankomunitatearen barruan ez dagoen bakarra ere bada. Agiriaren txostenak 100 bat indargune eta hobekuntza arlo jasotzen ditu, eta garapen mailaren kuantifikazioa hartzen du kontuan, 0tik 1000ra arteko eskalan.

700dik gorako puntuazioek urrezko agiria jasotzen dute eta hori da Arrasateko Udalaren kasua. Inazio Azkarraga-Urizar alkateak pozik hartu du: "Urtetako lanaren emaitza da eta ondo hartu dugu; orain lanean jarraitu beharra dago". Jose Felix Diaz de Tuesta euskara teknikariak honakoa gaineratu du: "Udalak indarrean duen euskara plana ona dela eta ondo gauzatzen dela saritu dute. Bertan jasotzen da zer egin dugun ondo eta baita zer dugun hobetzeko. Garrantzitsua da jakitea kanpoko baten iritziz zertan hobetu behar dugun. Hor dago, adibidez, Udalari zerbitzuak ematen dizkion kanpoko enpresei euskararen erabilera eskatu beharra. Udal eta erakunde publiko gehienok dugu erronka hori".

Elay eta Copreci ere, bikain

Antzuolako Elay taldeak bigarrenez jaso du urrezko Bikain ziurtagiria. Agiria banatzen hasi zen urtean, 2008an, jaso zuten lehenengoz: "Oso pozik gaude. Beti izan dugu euskaraz bizitzeko eta euskaraz lan egiteko konpromisoa. Horretarako lan handia egin dugu, eta azkenaldian, esaterako, hornitzaileekin euskaraz komunikatzeko ahalegin berezia egin dugu", adierazi du Iratxe Muxika Elay taldeko kideak eta halako errekonozimenduek bide horretan jarraitzeko indarra ematen dietela gaineratu du.

Aretxabaletako Copreci kooperatibak, azkenik, zilarrezkoa jaso zuen. Jaime Bengoa euskara batzordeko buruak azaldu digu aspalditik "lan itzela" egin dutela: "Kanpotik nola ikusten diguten aztertzeko aurkeztu ginen eta oso pozik jaso dugu saria. Aurrerantzean, orain arte egin duguna edo gehiago egin behar dugu. Copreci barruan euskaraz lan egiteko oztoporik ez izatea da lehentasuna".

ESANAK

"Garrantzitsua da jakitea zer hobetu behar dugun, kanpoko baten ikuspegitik"
JOSE F. DIAZ DE TUESTA
ARRASATEKO UDALEKO EUSKARA TEKNIKARIA

"Lan handia egin dugu euskaraz lan egin ahal izateko; hala izan da betidanik"
IRATXE MUXIKA
ELAY TALDEA

"Orain arte egin duguna edo gehiago egin beharra dugu aurrerantzean"
JAIME BENGOA
COPRECIKO EUSKARA BATZORDEKO BURUA

NIRE USTEZ

ANDER ETXEBERRIA

Olentzero 'batua'

Badatoz Gabonak eta harekin, besteak beste, Papa Noel. Harrigarria da itsasoz bestaldeko espezie inbaditzaileek planeta osoan sustraitzeko daukaten ahalmena. Iragan berri da Halloween eta, urte gutxi badarama ere Arrasaten irlandar pubaren eskutik, taberna gehiagora hedatu da. Urte batzuk barru, dagoeneko Peninsulako herri askotan ohikoa dena ezagutu dezakegu: umeak, behar bezala mozorrotuta, etxez etxe diru eske. Xarma berezia izan behar dute han eta hemen sartzeko pantaila, paper edo bestelako euskarrien bidez. Baina transmisioa beste elementu batek ere errazten du: Papa Noel-en figura, adibidez, sinplea eta beti berdina da. Hor zerbait ikas dezakegu. Ez da praktikoa gure ikazkinarekin gertatzen dena: bere irudi komertzialak izan dezake arropa ezberdina (blusa beltza, urdina edo berdea eta gerriko beltza edo gorria...), fisiko diferentea (bizarduna ala bizargabea, aurpegia zikin ala garbi, triparik ez ala tripandia) eta osagarriak aukeran (pipa, makila, faroltxoa, artilezko berokia...). Hau nahastea! Bizi dugun garaietarako beharrezkoa dugu Olentzero estandar bat; herrietan nahi dena erabiltzea dago, baina komunikabide, liburu eta beste produktuetarako, Olentzero *batua*.

Grabazio erraldoia Euskararen Eguna dela-eta

J.B. | ARRASATE

Bihar ospatzen den Euskararen Eguna aitzakia eta *Euskaraz bizi nahi dut* ekimena indartzea helburu, grabazio erraldoia antolatu dute biharko euskalgintzaren alde lanean diharduten herriko eragileek. Herriko askotariko sektoreak batu eta herritarrek parte hartzea gura dute. Hala, bideo horretan, merkatariak, enpresa arloa, SUDC, ikastetxeak, kirola, gazteak, Emakume Txokoa, alkatea bera eta, oro har, arrasatearrak izango dira protagonista. Grabaziorako hitzordua bihar da, 12:00etan, Herriko Plazan. Ondoren, triki poteoa egingo dute, eta, azkenik, AEDren egoitzan luncha eginda borobilduko dute egun berezia.

Bestalde, *Euskaraz bizi nahi dut* leloa duten izarak salgai jarriko dituzte Portaloian, gaur arratsaldean eta bihar goizean.

Gaztegunean bertso afaria

Gazte txokokoek ere ospatuko dute Euskararen Eguna. Izan ere, Txatxilipurdiko Gazte Sailak bertso afaria antolatu du biharko, erdiguneko gaztegunean. 21:00etan hasita, gaztetxeko bertso eskolakoekin batera arituko dira bertsotan. Izena eman behar da aurrez, egunean bertan gaztegunean edo gaur gazte txokoetako baten. Bi euro ordaindu behar da afaltzeko.

Ibai-Artek 100 otzara banatuko ditu bezeroen artean

Ibai-Arte merkataritza elkarteak eskaintza berezia prestatu du Gabonei begira. Ibai-Arteko laguntzaile diren saltokietan erosketak Ibai-Arte txartelarekin ordaintzen dituzten bezero guztiek izango dute otzaretako bat irabazteko aukera. Otzara horiek abenduaren 23an banatuko dira Herriko Plazan, 13:30etik aurrera.

Auto batek pertsona bat harrapatu zuen San Andresen, atzo

Atzo, 07:45 aldera, auto batek pertsona bat harrapatu zuen lehengo Polmetasa lantokiaren ondoko zebra-bidean. Udaltzaingoaren arabera, harrapatuak "kolpe gogorra" jaso zuen: "Istripua ez dirudi larria izan denik, baina orain lesioa nola garatzen den ikusi behar da". Kaltetua ospitalera eraman zuten.

Punk-oi! kontzertua egongo da gaztetxean bihar, zapatua

Kataluniako Codigo Neurotico, Galiziako Keltoi! eta Arrasateko Never Surrender eta Aggressive Combat taldeek egingo dute emanaldia gaztetxean. Sarrera bost euro da. 22:30ean hasiko da jaialdia. Codigo Neurotico talde arrakastatsua izan zen 80ko hamarkadan; orain bueltan dira, sorrerako 30. urtemuga ospatzeko biran. Never Surrender taldekoekin Katalunian topo egin eta erabaki zuten kontzertuetako bat Arrasaten egitea.

Ezohiko batzarra egingo du Mondrak abenduaren 5ean

Ezohiko batzar orokorreko gaiak ondorengoak izango dira: 2010-11 sasoiko kontuen onarpena; 2011-12koen aurkezpena eta Mondra tabernaren balantzea. Batzarra izango da Mojategiko batzar aretoan, 18:30ean lehenengo deialdian eta 19:00etan bigarrenean. Kluba kudeatzeko orduan gardentasun falta leporatu diote hainbatek Patxi de Andres presidenteari. Ezkutatzeko ezer ez duela erantzun zuen asteleheneko *Goiena*-n Mondrako buruak.

"Titulu hori jarri beharrik gabeko tertulia litzateke ideala"

Maialen Lujanbio eta Uxue Alberdi, 'Emakumeak protagonista' ekimenean

JULEN IRIONDO | ARRASATE

"Interesantea izan daiteke horrelako ekimen bat emakumeak plazaratze aldera; baina, zalantza barik, helburua litzateke titulu hori jarri beharrik gabeko tertulia bat, non emakumeak protagonista diren gizonak bezalaxe"; hausnarketa horixe utzi zion GOIENAri Maialen Lujanbiok, Emakume Txokoak antolatuta, *Emakumeak protagonista* ekimenaren barruan Uxue Alberdiren galderak erantzutera jarri aurretik.

Punta-puntako bi bertsolari –Euskal Herriko txapelduna Lujanbio–, beraz, Kulturateko areto nagusian, entzule ugariren aurrean, eguazten iluntzean egindako saioan.

Plazetan hasita, 15 urte zituela eta gizonezkoak gehiengo erabateko zireneko testuinguru hartan, hainbat egoerari aurre egin behar izan ziela adierazi zuen Maialen Lujanbiok Uxue Alberdik emandako hariari tiraka: "Bertso saioetan desberdina nintzen, emakumea", zioen hernaniarrak; eta gaineratu zuen horrek bakarrik ez zekarrela berezitasuna, bertso belaunaldi berriko kimuetako bat ere bai baitzen panorama hartan.

Jende ugari Lujanbio eta Alberdi entzuten Kulturaten. | TXOMIN MADINA

Emakume izateagatik eta bertsolaritzagatik lotutako gaiez gain, beste hainbat ere izan zituzten ahotan Lujanbiok eta Alberdik –Bilboko ikasle garaiak ekarri zituen gogora, adibidez, txapeldunak–. Aretoan batutakoek gustura entzun zituzten esanak, eta aukera izan zuten hobeto ezagutzeko Lujanbio eta haren bizitzaren hainbat nondik norako. Saio atsegina eta gertukoa izan zen, tarteka umorez ziprizdindua.

Gipuzkoako Txapelketa

Amaierara iristen ari den Gipuzkoako Txapelketari buruz, berriz, Lujanbiok Goienari adierazi zion "oso bertso maila handia" dagoela, baina jendea "estu samar" dabilela, txapelketako tentsioagatik. Saiorik onena finala izango dela uste duela gaineratu zuen.

ZALDIBAR

EMAITZAK

Fidel & Discipulos-Dribling	0-7
Portaboleiros 2.0-Aston Birra	3-4
Iluna-Sonografos	3-2
Dublin-Iriztu	1-4
Lasagabaster-Ekaitz	3-0
At. Betrayer-Iluntz	8-4
Mcawen-Aldatz	2-3
Abokajarro	Atsedena

SAILKAPENA

	TALDEA	P	J
1	Driblin	12	4
2	Aldatz	10	4
3	Dublin	9	4
4	Iriztu	7	4
5	At. Betrayer	6	4
6	Sonografos	6	4
7	Mcawen	6	4
8	Abokajarro	6	3
9	Fidel&Discipulos	6	3
10	Lasagabaster	3	4
11	Iluntz	3	4
12	Aston Birra	3	4
13	Iluna	3	3
14	Ekaitz	1	4
15	Portaboleiros 2.0	0	3

PARTIDUAK

Abenduak 3, zapatua

10:30 Iluntz-Dublin / **Abokajarro**
11:30 Aston Birra-Abokajarro / **Iluntz**
12:30 Portaboleiros 2.0-Iriztu / **Aston B.**
13:30 Lasagabaster-Aldatz / **Iriztu**
16:00 Iluna-Ekaitz / **Fidel&Discipulos**
17:00 Fidel&D.-Sonografos / **Iluna**

Abenduak 4, domeka

11:30 At.Betrayer-Mcawen / **Lasagab.**

Aretxabaletan, Txarapeako etxeetarako eskaintza berezia

Labe pirolitikoa opari

iKER

SUKALDEAK: ARRASATE: Udala Plaza z/g / 943 79 00 43 • OÑATI: San Lorentzo 1 / 943 53 35 48

FAGOR

Filantropo diskretu baten memoria, herriarendako

- Kalean da 'Pedro de Viteri Arana' liburua
- Lau arrasatearrek egin dute, Udalaren beka batekin
- Arrasaten eta kanpoan eskolak sortu zituen

Biteri, panamazko txapelaz, Patronatuko kideekin. | ARRASATEKO KULTUR ETXEA, JOSE LETONA FUNTSA

Biteri eskolak, lorategiko kioskotik. 1910 baino lehen. | MARTINEZ-ARANO FAMILIAREN ARGAZKIA

LEIRE KORTABARRIA | ARRASATE

Pedro de Viteri Arana liburu mardula eta ederra dago eskuragarri, arrasatear baten gainean eta lau arrasatearrek eginda: Ana Isabel Ugaldek, Arantza Otaduyk, Javier Balanzategik eta Juan Ramon Garaik. Joan den martitzenean aurkeztu zuten, herritar askoren aurrean.

Arrasateko historian erabakigarria izan den eskola-sortzaile eta filantropoaren figura hobeto ezagutzeko ezinbesteko liburua da. Izan ere, "Arrasate gaur egun dena, neurri handi baten, Biterik jarritako haziagatik da", esaten dute egileek.

Pedro Biteri Arana (1833-1908) ezaguna da, batik bat, eskolak sortu zituelako. Eskola publikoak ziren, eta patronatuak ere sortu zituen, eskolak finantzatuta egongo zirela bermatzeko. Kalitatezko eskolak ziren: guztiz ekipatuak eta jantziak, maisuendako etxe batekin –maisuak oso ondo ordainduta zeuden, urtean 2.000 pezetarekin–, marrazketa gela batekin... Eskola gaur egungo Biteri plazako pergola inguruan zegoen.

Egileek diotenez, "Pedro Biteri indianoa izan ez arren –haren aita izan zen–, indiano baten moduan jokatzen du. Indianoek, Ameriketatik aberats bueltatu ondoren, askotan inbertitzen zuten dirua jaioterrian. Baina Biterik duen berezitasuna hau da: Arrasaten ez ezik, Gipuzkoa osoan inbertitu zuela, beste 10 herritan ireki zituelako eskolak". Besteak beste, Aretxabaletan ere sortu zuen.

Orain zortzi urte hasi ziren

Intxorta 1937 kultur elkarteak argitaratu du liburua eta Udalaren Jose Letona bekaren laguntzarekin egin dute. Euskaraz eta gaztelaniaz dago, eta 100 argazki eta dokumenturen irudi baino gehiagorekin jantzi dute.

Lehenengo pausoak 2003an eman zituen Ana Isabel Ugalde historialariak: "Biteriren gaineko hitzaldia egitea eskatu zidaten, eta hor hasi nintzen bila". Aurrerapauso handi bat 2008an egin zuen, Biteriren testamentua topatu zuenean. Berau liburuan jaso dute.

Juan Ramon Garai bere aldetik ikertzen hasia zegoen, eta biak elkartu ziren eta beste bi lagun batu ziren proiektura. Jose Letona bekara aurkeztu ziren eta irabazi egin zuten.

Biteri bere garaian, bere jendartean eta bere familian kokatzen dute: "XIX. mendeko gertakizunak dira, familia baten pertsonalizatuta: merkatarien giroan bizi ziren, Baionan, eta giro horretako familia baten kezkak zeintzuk ziren ikusi dezakegu; baita nondik nora ibiltzen ziren ere", azaltzen du Ana Isabel Ugaldek.

Amaren oroimenez

Pedro Biteri ez da hain figura ezaguna, utzi zuen ondarea kontuan hartuta: "Mondragoen jaiotako euskaldun filantropo garrantzitsuenetariko bat da. Berak egindako lanari esker, XX. mende hasierako Mondragoe berritu zen: Garibai etxea berritu zuen, burdinazko berdura plaza egin zuen, eskola eraiki zuen, eta eskolaren finantzaketa bermatzeko fundazioa ere sortu zuen", esaten du Arantza Otaduyk.

Ana Isabel Ugaldek gaineratzen duenez, "familia umiletako seme-alabek lehenengo aldiz izan zuten aukera behar bezalako hezkuntza jasotzeko. Eta Biterik ardura berezia izan zuen neskatilak eskolara joan zitezen. Eskola hartako marrazketa gela izan zen geroko eskola profesionala. Mondragoeren modernizazioa, geroko lantegiak... ezin dira ulertu Biteriren lan barik".

Bizitzan oso aurreratuta, 60 urte inguru zituela erabaki zuen Biterik Arrasateri laguntzea.

ESANAK

"Biteriri esker, XX. mendeko Mondragoe berritu zen"

ARANTZA OTADUY | HISTORIALARIA

Zutik, Otaduy eta Ugalde; makurtuta, Garai eta Balanzategi. | A. TXINTXURRETA

Ordu askoko artxibo-lanaren ordaina

Lan eskerga egin dute lau arrasatearrek: Euskal Herriko artxibo garrantzitsuenetan egon dira, eta baita Parisen, Londresen, Madrilen eta beste leku batzuetan ere. Ikerketa ordu luzeen fruitua da honako liburua. Askotan, lan etsipengarria izan zen, eta hamaika pasadizo dituzte egileek: hala, Javier Balanzategi Londresko National Archives-era joan eta esku-hutsik bueltatu zenekoa, edo Parisen ia trena galdu zutenekoa, lana ezin utzita.

MONTE TABERNA
edari, jana eta kirola
Maalako errabala 2
Tel.: 943 79 20 56

PEUGEOT
OÑATI GARAJEA
PEUGEOT ETXEKO TAILER OFIZIALA
Mekanika, txapa, pintura, salmenta berriak eta 0 km.
Goribar auzoa 9, OÑATI
Tel.: 943 78 13 50 • Faxa: 943 78 33 69
garageonati@euskalnet.net

Marrazketako neska taldea lorategian, Luis Armengou irakaslearekin, 1927an. | EMILIA MADARIAGARI ESKER).

Musika-banda Biteri lorategiko kioskoan. 1910 baino lehenago. | TXARO VELEZ DE MENDIZABALI ESKER

Ordura arte, berak bizitza ona izan zuen, burges aberats batena: Parisko 16. distrituan, leku onenean bizi izan zen; Baionan eta Biarritzen ere bai; eta egileek uste dute Europan zehar ere dezente bidaiatu zuela. "Bera ondo bizi izan zen, eta ez zuen seme-alabarik. Bestalde, anaia hil zitzaion eta, seguru asko, horrek ere zerikusia izan zuen", esaten du Ana Isabel Ugaldek.

Mondragoek eskatu zion Biteriri laguntza, eta hori frogatzen duen gutuna batzen du liburuak. "Berak ere, aurretik, eskaini zion laguntza Mondragoeri", esaten du Balanzategik. Biterik 2 urte inguru zituen familia osoa Iparraldera bizi izatera joan zenean, baina ama eta amandrea Mondragoekoak ziren. "Amaren oroimenez, Mondragoeri lagundu gura zion", diote ikertzaileek.

Zacatecas, pista faltsua

Pedro Biteri Aranaren arrastoari jarraitzea, ordea, ez zen samurra izan lau arrasatearrondako: "Oso gizon diskretua izan zen. Ez zitzaion protagonismoa batere gustatzen. Adibidez, eskolako erregelamendua egin zenean, bera han egon zen, baina ez zuen ezer sinatu", esaten du Javier Balanzategik.

ESANAK

"Herriko umilek heziketa ona jaso zuten, lehen aldiz"

ANA ISABEL UGALDE
HISTORIALARIA

Ezustekoak ere izan dira: "Herrian betidanik entzundakoa zen dirua Zacatecasen zegoela. Bada, bilatzen hasi ginenean, topatu genuen ezetz, ez zegoela Zacatecasen", esaten du Ugaldek.

Ameriketan Biterirekin zerikusia duen herrialdea Guatemala da. Han Biteritarrak bizi dira oraindik. Biteri familiaren lehengusu bat elizgizon geratu zen han, eta haien ondorengokoak dira. Arrasateko adarra Pedro eta haren anaia Bernaberekin bukatu zen.

Durangoko Azokan

Liburua Intxorta elkartearen webgunean, Ttukun dendan eta Eroskiko kanpoko dendan eros daiteke. Durangoko Azokan ere salgai egongo da eta, azoka eta gero, liburu dendetan ere bai.

Felix Arano eta ikasleak. Erdian, Arzamendi. | INDALECIO OJANGUREN, CC BY-SA

"Mondragoe zorretan dago eurekin"

David Arzamendi Biteriko ikasle izan zen. 97 urte ditu eta liburuan bere mezua utzi du: "Mondragoeko kooperatibismoak lehenengo urratsa izan zuen Pedro Biteri Aranak emandako eskolarekin, Felix Arano maisuarekin eta Teresa Garcia maistrarekin, eta Luis Armengou artista eta marrazketa maisuarekin". Hango lehen ikasleek Zerrajeran lan egin zuten. Zerrajerak sortu zuen Aprendizen Eskola Biteriren eskolaren oinordekoa zen. Gero, ikasle eta langile haiek Elman eta Ulgorren jardun zuten.

Arzamendik Biteri, Arano, Garcia... guztien memoria berreskuratu gura du: "Mondragoe zorretan dago belaunaldi askoren hezkuntzaren alde hainbeste egin zuten haiekin".

David Arzamendi.

A Mondragon, route de Burgos, 1810. | KOLDO MITXELENA KULTURUNEA, CC BY-NC-SA

Pobreziak negarra eragin zion Biteriri

Esaten dutenez, Pedro Biterik negar egin zuen Mondragoera itzuli zenean. Bera Europako leku modernoenetatik zetorren eta Mondragoe lur jota zegoen: "Oso urte gogorrak ziren: gerrak egon ziren, Arrasatera etorri zen urtean greba egon zen, eta Udalak ez zuen dirurik. Etxeetan ez zegoen urik, ez zegoen komunik...", esaten dute egileek. Biterik Europako modernotasuna Arrasatera ekarri gura izan zuen: berdura plaza Pariskoaren erara egin zuen.

Restaurante
UGARAN
Jatetxea
Garagartza auzoa
Tel.: 943 79 76 58
ARRASATE

Pelukak eta ilea berreskuratzeko sistema berri eta pertsonalizatua
Gubi
ILE APAINDEGIA
Otalora Lizentziaduna 5
ARRASATE
Tel.: 943 79 12 74

BASATI
TABERNA
943 71 17 68

Egun osoko egitaraua Euskararen Egunerako

'Badakizu, erabili!' lelopean goizean eta arratsaldean egongo dira ekitaldiak

Jardunek iaz umeekin egindako jolasak. | JARDUN

MONIKA BELASTEGI | BERGARA

Badakizu, erabili! lelopean egun osoko egitaraua antolatu dute biharko, Euskararen Eguna, Udalak eta herriko hainbat elkartek elkarlanean.

Egitarau polita antolatu dute –ikus beheko taula– eta goizetik gauera arte euskal giroa nagusitzea da euren asmoa. Hitz gurutzatuen lehiaketarekin irekiko dute egitaraua, eta, dagoeneko izen-ematea itxita badago ere, nagusien taldean norbaitek parte hartzeko interesa izango balu, aukera izango duela aurreratu dute antolatzaileek. Eguerdiko bazkariari dagokionez, bertan behera geratu da txartel gutxi saldu direlako. Txartela erosita zutenei kultura etxean bueltatuko diete dirua. Bazkalosterako iragarrita zegoen *Erregea eta bufoia* ikuskizuna ere atzeratu egin dute datorren urteko kultura agendara.

Osintxun ere hainbat ekitaldi antolatu dituzte biharko: 11:30ean, mural erraldoia margotuko dute; 13:00etan, triki poteoa egingo dute; 16:30ean, umeendako jolasak; 17:30ean, txokolate jana; eta 19:30ean, triki poteoa.

Udalaren konpromisoa

Astelehenean ohiko osoko bilkura izan zen eta Euskararen Egunari buruzko Bilduk aurkeztutako mozioa onartu zuen udalbatzak, Gobernu taldearen eta EAJren aldeko botoekin eta PSE-EEren kontrakoarekin.

Mozioaren arabera, beharrezkoa da "gaurtik herrian euskarazko elebitasuna praktikan jartzea" eta norabide horretan Udalak hainbat konpromiso hartu ditu.

Hori horrela, konprometitu da bere esku dagoen guztia egitera bere zerbitzu publikoak eskaintzen dituzten langileen euskalduntzea bultzatzeko eta bermatzeko. Baita langile horien lehen hitza beti euskaraz izan dadin ere. Era berean, Udaleko barne funtzionamendua euskaraz izan dadin ere bere esku dagoen guztia egitera konprometitu da. Horrez gain, herriko euskal komunitateak dituen hizkuntza eskubide indibidual eta kolektiboak bermatze aldera, herrian eta arlo desberdinetan euskaraz bizitzeko eskubidea helburu duen plangintza integrala garatzeko konpromisoa hartu du.

PSE-EEko zinegotziak azaldu zuenez, eurek ere ospatuko dute Euskararen Eguna, konbentzituta daudelako "hizkuntza aniztasunak elkarbizitzan eta gizartearen kohesioan izan ditzakeen onurez".

EGITARAUA

11:30 Hitz gurutzatuen lehiaketa San Martin plazan.

11:30 *Euskara eta teknologia berriak* saioa San Martin plazan.

18:00 Taun-Taun taldearen *Txio-Txioka* antzezlana 4 eta 10 urte bitarteko umeentzako Zabalotegin. Sarrera 3 euro da.

19:00 Euskarazko kantuen kantu-jira San Martin plazatik irtenda.

Gobernu taldeak barau egingo du euskal presoen eskubideen alde 16an

Elkarretaratzea egingo dute 12:00etan; eta urtarrilaren 7an Bilbora joateko dei egin dute

M.B. | BERGARA

Euskal presoen eskubideen aldeko mozioa onartu zuen udalbatzak astelehenean egindako osoko bilkuran. Gobernu taldearen aldeko botoekin eta EAJren eta PSE-EEren kontrakoekin onartu zuten.

Mozioak hau dio: "Une historikoa bizi dugu Euskal Herrian, eta munduan izan diren beste prozesu politikoetan bezala, hemen ere preso politikoen errealitateari konponbidea eman behar zaio". Testuinguru horretan, bost puntuko mozioa onartu zuen udalbatzak. Batetik, "euskal preso politikoen eskubideen errespetua" eskatu dute; hala nola "dispertsioaren amaiera eta preso guztiak Euskal Herriratzea, gaixotasun larriak dituzten presoak askatzea eta zigorra beteta dituztenak askatzea". Bestetik, urtarrilaren 7an Bilbon presoen eskubideen alde egingo den manifestazioarekin bat egin dute eta herritarrei dei egin diete parte har dezaten. Era berean, abenduaren 16an barau egitea onartu zuten, eta 12:00etan elkarretaratzea.

EAJk mozio alternatiboa

EAJk mozio alternatiboa aurkeztu zuen, "Bildurena motz" ikusten zuelako, nahiz eta ez zuen aurrera egin. EAJren hiru puntuko mozioaren arabera, aintzat hartzen dute ETAk armak laga izana; uste dute beharrezkoa izango dela adiskidetzean, aitorpenean, konpentsazioan eta biktima guztien laguntzan aurreratzea, sortutako mina aitortuz eta pertsonen eta gizartearen zauriak sendatzen lagunduz eta euskal presoen urraketen aurrean, Eusko Legebiltzarrak 2006ko urriaren 6an euskal presoen eskubideen defentsarako konpromisoari buruz onartutakoa berretsi zuen.

Mozio horri erantzunez, Maren Belastegi Bilduko zinegotziak hau esan zuen: "Urtarrilaren 7ko mobilizazioa inflexio puntua da eta zuen mozioan ez duzue aipatu ere egiten. Egun garrantzitsua da aurrera begira. Zuen mozioa da hankamotz dagoena".

PSE-EE kontra

Alderdi sozialistako zinegotziak ezezko botoa arrazoitzeko orduan esan zuen, besteak beste, ETA izan dela "presoei birgizarteratzea debekatu" diena eta ezker abertzaleari dagokionez, "biktimei eragindako mina onartu egin behar duela eta pasa den denboragatik dagokion erantzukizuna asumitu". behar duela ere esan zuen.

Arrizuriagaren segurtasunari buruzko mozioa aurkeztu du EAJk

M.B. | BERGARA

Arrizuriaga parkearekin lotutako mozioa aurkeztu zuen asteleheneko osoko bilkuran EAJk, baina ez zuen aurrera egin –Gobernu taldeak eta PSE-EEk kontra bozkatu zuten–. Gobernu taldeari eskari bat egiteko mozioa zen: "Egin dezala beharrezko txosten teknikoa eta zabal dezala Arrizuriagako parkea segurtasun baldintzetan, horretarako aurreikusita zegoen diru partida erabiliaz".

Izan ere, EAJk azaldu zuenez, "parkearen inguruko etxeak egin zituzten promotoreekin lortutako akordioaren ondorioz, 300.000 euro eskuratu zituen Udalak behar bezalako proiektua egin eta parkea kondiziotan zabaltzeko". Eta hau gehitu zuen: "Hala ere, abuztuan parkea zabaldu egin zen, eta, udaletxean galdetu dugun arren, ez dakigu diru hori non dagoen, eta, horren ordez, 40.000 euro gastatu ditu Udalak parkea baldintza desegokitan zabaltzeko". Hori dela eta, "parkea inolako txosten teknikorik gabe" zabaldu dela eta "ez dituela herritarrendako eta, batez ere, haurrendako segurtasun neurriak betetzen" salatu zuten. Bestalde, parkeko "puntu beltzen gaineko azterketa eginda" dutela gehitu zuten. Horren haritik, herritarren "kexu asko" jaso dituztela azaldu zuten.

Alkatearen erantzuna

Bada, Elortza alkateak bilkuran azaldu zuen egindako lanek segurtasun irizpideak betetzen dituztela teknikarien txostenen arabera, eta gehitu zuen ez direla lan sakonagoak egin, permuta egiten denean UNED Arrizuriaga etxean kokatzeko obrak egin beharko direlako, eta, ondorioz, parkea apurtu. Udaletxean kexurik jaso ez dela gehitu zuen, eta herritarrei eskatu zien kexurik izanez gero, helarazteko.

GOIERRI
Autogidarien Eskola
Gidabaimena euskaraz zein gazteleraz atera dezakezu
Informa zaitez
Fraiskozuri plaza 5 Tel.: 943 76 41 50 BERGARA

MIZPILDI
OKINDEGIA
Matxiategi 1. 943 76 72 73. Mizpildi 8. 943 76 12 32. BERGARA

Mujika
gozotegia
Bizkotxoak
Erreilenoak
Tostoiak
Artekalea 3 BERGARA
943 76 10 34

OHARRAK

LANERAKO IKASTAROAK MIGUEL ALTUNAN

Lanerako formazioa egitarauaren barruan, langile eta langabeendako ikastaroak eskaintzen ditu Miguel Altunak. Katalogo modular berrira lotutako eta %100 diruz lagundutako ikastaroak dira. Argibideak Miguel Altunan, 943 76 70 49 zenbakian.

ODOL ATERATZEA ABENDUAREN 14AN

Urteko azken odol ateratzea abenduaren 14an egingo dute Bergaran, anbulatorioan, 18:00etatik 20:30era. Lokal berriaren zain, herriko odol emaileek ez dute lehen egiten zuten moduan telefonozko deirik egiten emaileei abisatzeko, eta, beraz, herritarrei dei egiten diete etzi anbulatoriora joateko. Aurreko eguaztenean, 55 odol ateratze egin zituzten eta hiru odol emaile berri joan ziren anbulatoriora.

KEINU HIZKUNTZA IKASTAROAK

Aransgik, Gipuzkoako pertsona gorren familien elkarteak, keinu hizkuntza ikasteko ikastaroak antolatu ditu. Gorrekin komunikazioa hobetu nahi duten debagoiendar guztiei daude zuzenduta. Hastapen eta sakontze mailak izango dira, urtarriletik maiatzera. Ikastaroak 30 ordukoak izango dira. Argibide gehiago Aransgiko egoitzan, Boni Laskurain pasealekuan, edo 943 76 27 03 telefonoan.

POL-POLEKO FEDERATU TXARTELAK

2012ko federatu txartela egin nahi dutenek Pol-Polek Oxirondo azokako goiko solairuan daukan bulegora jo dezakete, astelehen, martitzen eta eguaztenetan, 18:45etik 19:45era. Internetez ere egin daiteke: *www.pol-pol.net*.

GAZTETXOENDAKO IRTEERA

Xabalote gaztelekuak irteera antolatu du Elosuko aterpetxera asteburu pasa joateko. Abenduaren 10ean eta 11n egingo dute irteera. Izen-ematea, abenduaren 5era arte. Argibideak: 943 77 91 60.

Errege Mintegiko liburutegiko sarreran jarri nahi dute Zabalako frontispizioa. | UDALA

Fatxada Errege Mintegiko liburutegiko sarreran jarriko dute.



Bidekurutzetako 14. zenbakian zegoen Zabala etxea. 1919an bota zuten. | UDALA

Zabalako fatxada berreskuratuko dute

Errege Mintegian kokatuko den liburutegiko sarreran jarriko dute, Munibe plazan

EDU MENDIBIL | BERGARA

Udalak Zabala etxeko fatxada berreskuratuko duela aurreratu zuen Jesus Elortza alkateak egubakoitzean, Euskalerriaren Adiskideen Elkarteak udaletxean egindako ikasturte hasiera ekitaldian. Kimikaren Nazioarteko Urtea da amaitzera doana eta Bidekurutzeta kaleko 14. zenbakian zegoen Zabala etxeak garrantzi handia izan du kimikaren historian. Laboratorium Chemichum delakoa zegoen han XVIII. mendean eta Juan Jose eta Fausto Elhuyar anaiek wolframioa bakartu zuten 1783. urtean Bergaran.

Ibilbide bitxia

Euskalerriaren Adiskideen Elkartearen garai oparoenen ostean, XX. mendean gainbehera etorri zen eta Zabala etxea 1919an bota zuten. Ondoren, Luis Egaña zirujau donostiarrak eraman zuen bere etxera, Gros auzoan zegoen Maldonado izeneko txaletera, hain zuzen. Txaleta eraitsi zutenean, 1970eko hamarkadan, Zabala etxeko fatxada galtzeko zorian egon zen eta erabakigarria izan zen Jose Antonio Zabala Bergarako alkate zenak fatxada berreskuratzeko egindako lana.

Jose Maria Urkia EAEko presidenteak egubakoitzean aitortu zuenez, Imanol Olaizola garai hartako diputatuak eta Zabalak lan eskergarria egin zuten fatxada salbatzeko. Manuel Urkola arkitektoaren laguntzaz fatxadaren kalifikazioa egin zuen Olaizolak eta 1980. urtean Zabalak fatxada berreskuratzeko eskaria egin zuen. Fatxadako harriak ondo gordeta daude gaur egun Udalaren biltegi baten.

Dirulaguntzen zain

Etorkizunean Errege Mintegian kokatuko den liburutegiko sarrera apaintzeko erabiliko dute fatxadako *portada* (goian, ezkerrean). Oraindik ez dago proiektua gauzatzeko datarik ezta aurrekonturik ere. Edozein modutan, Elortza alkateak Diputazioari zein EAEri proiektuan parte hartzeko gonbita egin zien egubakoitzean.

Gregoria Azkaratek 100

Gregoria Azkaratek 100 urte egin zituen azaroaren 28an. Etxekoen eta Jesus Elortza alkatearen zorionak eta opariak jaso zituen Mizpirualden. 100 urteko bost emakume dira Mizpirualden: Angeles Bilbao, Felisa Larrañaga, Segunda Martinez, Teo Ortuzar eta Gregoria. Zorionak!

MIZPIRUALDE

TOKI-ONA
Bodegoia-taberna

Eguneroko janariak
Txitxizotzak
Kazolatxoak
Txabierroak

Matxiategi 1. BERGARA
Tel.: 943 39 53

PINTXOAK eta
OGITARTEKOAK
SEKULAKO MARTXA!!

EUXEBIO II

Irala z/g
Bergara
943 76 07 92

GURIA
Taberna

Bidekurutzeta 5
BERGARA
943 76 20 34

CAMACHO
Drogeria
Usaindegia

Bidekurutzeta 24
BERGARA
943 76 13 35

BEHEKO TABERNA

Menestra
eta untxia dira
gure berezitasunak

ANGIOZAR
Tel.: 943 76 55 74

PATXI CASTRO

Era guztietako aulkien konponketa
•
Tapizatu lanak
•
Zumezko eta kanaberazko artikuluen salmenta
•
Besaulki, mahai, saskiak e.a
943 78 71 65
639 01 69 69

Urtarrilean jokatuko du Realak herrian

Txapelketa atzeratu egin da, Realak hala eskatuta

ASIER ALKORTA | BERGARA

Bergara Kirol Elkarteak urtero antolatzen duen Gabonetako gazteen txapelketa urtarrilean jokatuko da, eta ez abenduan, orain arte bezala. Realak eskatu du txapelketa atzeratzeko eta horregatik jokatuko da ohi baino bi aste geroago. Realak, Eibarrek, UDAk eta Bergarak hilaren 3tik 5era jokatuko dute.

Bergarak eta Realak jokatzeaz gain, Eibar eta UDA taldeek ere norgehiagokan parte hartuko dute urtarrilean. Lehenengo hitzordua Bergararen eta Realaren artekoa izango da eta hilaren 4an Eibarrek eta UDAk elkarren aurka jokatuko dute. Bi partiduak Ipintzan jokatuok dira, 17:00etan. Finala, aldiz, hilaren 5ean Agorrosinen jokatuko da, 16:00etan.

Manu Diaz Bergarako entrenatzailearen esanetan, "ahalik eta ikuskizun politena" ematen saiatuko dira bergararrak. "Argi dago nork bere mailan jokatzen duela eta Reala, UDA eta Eibar gu baino maila handiagoa duten taldeak direla. Dena dela, gu ahalik eta ondoen egiten saiatuko gara".

Bergararrek Realaren aurka "ilusioz" jokatuko dute

Orain arteko txapelketak nola joan diren ikusita, hitzordua "interesgarria" izango dela aurreratu du. "UDAren eta Eibarren arteko partidua estu egongo da. Bergararen eta Realaren artean desoreka egon badago ere, ilusioz jokatuko dugu".

Dena dela, denaren gainetik Realeko gazteak berton ikustea pozgarria dela dio. "Gero, gazte horietako batzuek talde nagusian jokatuko dute, eta polita da orain gure kontra jokatzeko aukera izatea".

Aurtengo urtea, "oparoa"

Azken partiduetan bergararrek emaitza onak lortu ez badituzte ere, 31 punturekin oraindik orain lehenengo postuan daude Manu Diazen mutilak; Aloñak 25 punturekin atzetik segitzen dio. Orain artekoak jasota, bergararrek Realaren aurka "gogor eta ilusioz" jokatuko dutela iragarri dute. "Aurten urte oparoa izan dugu eta horri eusten saiatuko gara", gaineratu du Diazek.

Eskubaloikoak, bolada onarekin segitzeko asmoz

Soraluze BKEk La Bacaladera Hondarribiaren bisita jasoko du bihar, Labegaraietan, 17:00etan

MIREIA BIKUÑA | BERGARA

Aurreko astean Deustuan lortutako garaipenari balio handiagoa emateko eta etxeko bolada onarekin segitzeko asmoz, irabazi egin gura dute senior mailako eskubaloi taldekoek.

Bihar, zapatua, La Bacaladera Hondarribiaren bisita jasoko dute Labegaraietan, 17:00etan.

Gazteak eta azkarrak

Partiduz partidu antolatu dute denboraldia, baina irabaztea dute buruan. "Etxean ondo jokatzen gabiltza, eta bide beretik segitu gura dugu. Gainera, aurreko aste bukaeran Deustuan irabazteak indar handia eman zigun. Han lortutako puntuek balio handiagoa izango dute bihar irabazten badugu", esan digu Josetxo Muniategi entrenatzaileak.

Hondarribia talde gaztea da. Jokalari handiak eta bizkorrak ditu. Bergarak egiten duen jokoaren antzekoa egiten dute. "3-2-1 defentsa erabiltzen dute. Sendoa, eta baloiak lapurtzen dituztenean eraso azkarra antolatzen dute. Jokalari gazteak ditu. Askok Bidasoaren harrobiko taldeetan jokatu dute", dio Muniategik.

Sailkapenean paretsu

Bi taldeak paretsu daude sailkapenean: Hondarribiak 12 puntu ditu eta Bergarak, 10. Mahoneroek irabaziko balute, parekatu egingo lirateke. "Sailkapeneko goiko lekuetan jarriko ginateke, eta beste lasaitasun batekin jokatuko genuke aurrerantzean. Orain arte ihes egin diguten puntuak batuta, goi-goian egongo ginateke", dio Muniategik

Iñaki Manuel jaurtiketa egiten Elgoibarren kontrako partiduan. | GOIENA

Zarautz atzean lagatzen saiatuko da bihar Soraluce BKE taldea

Bost partidu galdu eta gero, bihar irabazteko grinaz aterako direla esan dute bergararrek

A. ALKORTA | BERGARA

Bost partidu jarraian galduta ere, bergararrek ez dute etsi nahi eta bihar Leihoak Zast Zarauzko taldearen aurka "gogor" jokatuko dutela diote.

Partidua Bergarako Labegaraieta kiroldegian jokatuko da, 19:00etan. Leihoak Zast taldea izango dute aurrez aurre, eta, orain arteko emaitzak albo batera utzita, "ahalik eta ondoen" egiten saiatzeko asmoa erakutsi dute.

Azken partidua, "ona ez"

Joan den astean Hernaniren aurka jokatu zuten Bergarako mutilek eta hasiera-hasieratik partidua ez zela bide onetik joan esan dute taldekoek. "Hasieratik hasi ginen akatsak egiten eta jaurtiketak huts egiten. Lehenengo laurdena berdinduta amaitu genuen, baina handik aurrera Hernanik aurre hartu zuen".

Hernaniarrak garaiagoak baziren ere, bergararrek erasotzeko gaitasun handia erakutsi zutela diote. "Atsedenaldia egin eta gero indarberrituta atera ginen, baina ezin izan genuen ezer egin. Hori bai, defentsa ondo egin genuen".

Izan ere, defentsa ondo egin izan ez balute partiduaren emaitza bestelakoa izango zela diote. "Jaurtiketa librean akats asko egin genituen eta azken zatian etsituta geunden, ez genuen ondo jokatu".

Horrekin guztiarekin, hondoratu ordez bergararrak hazi egin dira, eta, hala, bihar dendena ematen saiatuko dira, bost partidu galdu ostean, irabazteko gogotsu baitaude.

Astean ordubete bertsotan eta lagun giroan aritzeko aukera

Haurren bertso eskola martitzenetan izango da, 17:30etik 18:30era, doan

ARANTZAZU EZKIBEL | BERGARA

Haurren bertso eskola indartzeko asmotan dabiltza Jardunen. Bertso eskola ikastaro soil bat baino gehiago dela erakutsi gura dute. Bertsotan eginez lagun giroan ondo pasatzeko lekua da bertso eskola.

2002-2003 ikasturtean jarri zuen martxan Jardunek bertso eskola, bertsozaleen transmisioa ziurtatzeaz gain, bertsolaritzari bultzada bat emateko asmoz.

Haurren bertso eskolan parte hartzeko interesa dutenek Jardunera deitu beharko dute, 943 76 36 61 zenbakira. Ikastaroa martitzenetan izango da: 17:30etik 18:30era. Irakasle lanetan Eneko Beretxinaga soraluzetarra ibiliko da. Ikastaroa doan izango da, 8 eta 11 urte bitarteko gazteei zuzendua. Ikastaroa Jardunek koordinatzen duen arren, Gipuzkoako Bertsozale Elkartearen ardura da.

Irteerak egiten dituzte

Beretxinaga irakaslea taldearen bultzatzaile, indartzaile, animatzaile, koordinatzaile eta arduraduna izango da. Helburu nagusia bertso eskola sendotu eta indartzea da. Bertso eskolak, gainera, inguruko herrietako gaztetxoak ezagutzeko aukera eskaintzen du: Gipuzkoako bertsolari egunean parte hartzen dute urtero. Bertso giroa ezagutzeko aukera paregabea da.

Ikastetxeetan saioak

Haurrak eta gaztetxoak bertsolaritzara hurbiltzeko asmoz hainbat saio egin dituzte herriko ikastetxeetan azken asteotan. "Bi bertsolari ibili dira ikastetxeetan eta oso saio interesgarriak izan dira, ikasleak gustura egon dira", azaldu du Maitane Arizabaletak, Jardun elkarteko dinamizatzaileak.

G Puntuko finalerako sarrerak salgai

Abenduaren 18an Donostian jokatuko den Gipuzkoako bertsolari txapelketarako sarrerak salgai dituzte Jardun euskara elkartean. Sarrera arruntak dituzte salgai, 18 eurotan. Finala Illunbe zezen-plazan jokatuko da, 16:30ean. Aurkezleak Iñaxio Usarralde eta Itziar Etxezarreta izango dira. Finala jokatuko duten bertsolari guztien izenak erabaki barik daude oraindik.

Keu Agirretxea & Fignuh Experience domekan

A.E. | BERGARA

Ondarrutarrak Zabalotegi aretoan eskainiko du kontzertua etzi, 19:00etan. Sarrerak 5 eurotan egongo dira salgai.

Doinu akustikoak

Besteak beste, Etsaiak, Fjörd eta Uek taldeetan eta bakarka ere ibilitakoa da Keu Agirretxea. Thrasha, rocka, akustikoa... estilo asko jorratu ditu, "ikasten jarraitzeko" musika estilo ugari. Konposatzerakoan "riff kañeroa" oinarri duela dio. Azken lanean doinu akustikoak nagusitzen dira. Denon eskura jarri ditu Agirretxeak abestiak *Myspace* atarian. Disko berriarekin batera DVDa ere argitaratu du.

Keu Agirretxea ondarrutarra gitarrarekin. | GAZTELUPEKO HOTSAK

Udaleko osoko bilkuren aretoan dago erakusketa. | GOIENA

Kimika hobeto ezagutzeko aukera eskaintzen du 'Molekulen artean' izeneko erakusketak

A.E. | BERGARA

Martitzenean zabaldu zuten erakusketa udaletxeko osoko bilkuren aretoan. Izan ere, 2011 kimikaren nazioarteko urtea da; hori dela eta, kimikak gure gizartean duen eta izan duen garrantzia nabarmendu gura dute.

Molekulen artean erakusketa CSIC erakundeak prestatutako materialean oinarrituta dago. 22 panelez osatuta dago, eta unitate didaktikoak ere eskaintzen ditu, erakusketaren edukia sakontzen laguntzen dutenak. Astegunetan 09:00etatik 14:00etara eta 18:30etik 20:30era eta aste bukaeretan 12:00etatik 14:00etara egongo da zabalik.

Ikasleen esperimentuak

Ikusgai dagoen materiala Bergarako ikastetxeetako laboratorietatik eta Mondragon Unibertsitatetik ekarritakoa da.

Bestalde, aste bukaeran ikasleek egindako esperimentuak jarriko dituzte ikusgai erakusketan bertan.

Taila Elkarteak erakusketa zabalduko du Aroztegi aretoan

Gaur, egubakoitza, zabalduko du Bergarako Taila Elkarteak erakusketa. Aroztegin egongo dira lanak, martitzenetik egubakoitzera 18:00etatik 20:30era, zapatuetan 12:00etatik 14:00etara eta 18:00etatik 20:30era eta domeketan 12:00etatik 14:00etara. Hilaren 11ra arte egongo da zabalik.

'Gure bide galduak' lana eskainiko du Dejabu taldeak

Antzezlana gaur izango da, 22:00etan, Zabalotegi aretoan. Dejabu taldeak errealismo magikoz zipriztindutako ikuskizuna aurkeztuko du. Euskal Herriko historia hurbila kontatzen du lanak: baserria utzi eta hirira ikastera doan neska batena. Sarrerak 5 eurotan daude salgai.

LILURA
Guadalupe Garcia
Mikropigmentazioan espezialista.
Nº 1.793

Gorputz tratamenduak
(zelulitisa, biguntasunak, formen birmoldaketa, Zirkulazio alterazioa)

Aurpegi tratamenduak
(zimurrak, biguntasunak, orbanak...)

Behin betiko laser depilazioa eta elektrikoa

Manikura eta pedikura

Solariuma

Intolerantzia test-a

Test energetikoa (indargarria)

etor zaitez eta informa zaitez konpromiso barik!

Bidekurutzeta 7, 1a. 20570 BERGARA Tel.: 943 76 31 71
lilura@lilura.com • www.lilura.com

Visagismo proba doan!

Ezpainetan, bekainetan eta betazaletan egiten den makillaje proba honen bitartez, zure aurpegian bertan ikusiko dituzu mikropigmentazio tratamendu baten emaitzak.

Eta gustuko baduzu...
%20ko deskontua
mikropigmentazio tratamenduan.



Gerraren ondorioak Oñatin 370 orritan bilduta

Gogoratu Guran taldeak 'Gerrako garrak Oñatin' liburua aurkeztu du

MIREIA BIKUÑA | OÑATI

1936ko uztailaren 18an militar batzuk Errepublikaren kontra altxatu ziren, eta urte bereko irailaren 21ean matxino-faxisten eskuetan erori zen Oñati. Bada, data hura abiapuntu hartuta, 370 orriko liburua idatzi du Gogoratu Guran taldeak (Juan Ramon Garai, Nekane Arrazola, Beatriz Gomendio, Idoia Etxeberria eta Jerardo Elortza): *Gerrako garrak Oñatin*. Eguaztenean aurkeztu zuten; testigantzak eman dituzten oñatiar asko batu ziren ekitaldian.

Gogoratu Guran taldeko kideak liburuarekin. | MIREIA BIKUÑA

450 pertsona lehen lerroan

Intxorta 1937 Kultura Elkarteak orain dela bi urte 36ko gerrari buruz egindako erakusketan du oinarria *Gerrako garrak Oñatin* liburuak. Orduan sortu zuten Gogoratu Guran taldea.

"Egia eta justizia bilatu nahian, Oñatiko faxismoaren biktimei eman diegu hitza", esan zuen Nekane Arrazolak. Hori horrela, 62 testigantza jaso dituzte, erdiak emakumeenak. Gainera, 300 argazki eta dokumentu batu dituzte. "Ahalegin berezia egin dugu argazkietako pertsonak identifikatzeko. Erakutsi gura dugu pertsonak zirela, ez zenbakiak", esan zuen Idoia Etxeberriak.

Matxino-faxistek Oñati hartu zutenean 6.700 biztanle zituen, eta familia gehienek zuten kideren bat gerrako lehen lerroan. "Jaso ditugun datuen arabera, 450 pertsona ziren. 115 hil ziren. Datu horiek guztiak jasotzeko, oso lagungarria izan da sufrimendua bizi izan zuten pertsonek emandako informazioa. Euren laguntzagatik gure eskerrik beroenak", esan zuten aurkezpenean.

Hamar kapitulu

Gerrako garrak Oñatin liburuak hamar kapitulu zabal ditu: *Atarikoa*, *Bigarren Errepublika garaiko Oñati*, *Gerraren hasiera eta bilakaera*, *Oñatiarrak borroka lerroan*, *Oñatitik ihesi*, *Errepresioaren aurpegiak*, *Gerra ostea*, *Kausak*, *Bibliografia* eta *Eranskinak*.

Kapitulurik luzeena, eta akaso mamitsuena, *Errepresioaren aurpegiak* delakoa da. 100 orritan gerrako biktimen hitzak batu dituzte, eta lekuko gehienei aurpegia ipini diete.

Gerra osteko garaiari ere lekua egin diote: gosetea, lana izateko zailtasunak, umezurtzendako pentsioak, diktaduraren ondorioak...

Salgai 25 eurotan

Liburua salgai ipini dute kultura etxean, Turismo Bulegoan eta Altuna estankoan 25 eurotan, eta DVDarekin batera erosiz gero 30 eurotan. Durangoko Azokan ere erosi ahal izango da.

Bigarren saria Sustrai fruta-dendarendako

Mercabilbaok antolatutako lehiaketan parte hartu eta 200 euro jaso zituzten sari modura

M.B. | OÑATI

Sustrai fruta-dendak bigarren saria lortu zuen Mercabilbaok azaroaren 26an egindako lehiaketan. 23 parte-hartzailek beste horrenbeste saski prestatu zituzten, eta onenak saritu zituzten. Sustrai fruta-dendako kide Eneritz Arrondok jaso zuen saria. "Egia esan, ez genuen espero. Saski onak eta dotoreak zeuden. Oso pozik gaude", esan digu fruta-dendako ugazaba Alberto Vesgak.

Lehen saria Trapagako Frutas Zafra dendako Mari Carmen Galvezek jaso zuen (300 euro) eta hirugarrena, Bilboko Frutas Pino dendak (100 euro).

Tailagintza frutekin

Mercabilbaoren II. fruta-saski lehiaketako parte-hartzaile bakoitzak ordu eta erdi zeukan saskia egiteko. Fruta eta barazki ezberdinak erabiltzeko aukera zuten. Sustraiko Eneritzek piña, mangoa, mota askotariko sagarrak, kiwiak, franbuesa, tomatea, perretxikoak eta eskarola erabili zituen saskia egiteko. "Parte-hartzaile batzuek tailagintza egin zuten fruta eta barazkiekin. Ikusgarri geratu ziren", esan digu Vesgak.

2.000 poltsa euro baten

Lehiaketaren helburua da frutaren kontsumoa zabaltzea. Hori horrela, lehiaketa ikusten egon zirenek bost fruta-saskiren zozketan parte hartu zuten. Gainera, euro baten truke frutaz betetako 2.000 poltsa banatu zituzten. Batutako dirua Mugarik Gabeko Medikuak GKErendako izango da. Egindako fruta-saskiak Bizkaiko Elikagai Bankuak jaso eta banatuko ditu.

Eneritz Arrondo, saria irabazi zuen saskiarekin. | MIREIA BIKUÑA

Batzokia pintadekin zikindu zuen martitzenean

Eguazten goizean pintadak agertu ziren batzokiko fatxadan. Era berean, hiru auto kaltetu zituzten. EAJk eta GBBk ekintza salatu, eta esan dute "errespeturik gabe ez dago garai berririk". Bestalde, Bildu Udal Taldeak "elkartasuna" adierazi die EAJri eta kaltetuak izan ziren herritarrei, eta esan du halako ekintzekin "amaitu" behar dela.

Argazkioinaxxxx. | ARGAZKILARIAXXX

OHARRAK

ODOL-ATERATZEA

Urteko azken odol-ateratzea egingo dute hilaren 9an Txantxiku Ikastolako aretoan, 18:00etatik 20:00etara arte.

DEIALDIA

Gaur, egubakoitza, produktu iberikoen dastatzea egingo dute Kale Zaharreko Harripe tabernan. 19:00etatik 21:00etara arte.

Opariak banatuko dituzte saskibaloi bazkideen artean

Bihar, zapatua, 18:00etan jokatuko du Natra Oñatik Zubikoan Pas Pielagos taldearen kontra. Atsedenaldian hainbat opari zozketatuko dituzte bazkideen artean: Natra Oñatiren produktuekin egindako bost pack, Fuente Ferreroren urdaiazpikoa, eta, hilaren 13an Baskoniak eta Nancyk jokatuko duten Euroligako partidurako hiru sarrera bikoitz.

Ikusi Makusikoen beste antzezlan bat herritar guztiendako

Ikusi Makusi erretiratuen antzerki taldeak *Halako bizilagunetatik, libra gaitzazu Jauna* delako antzezlana egingo du domekan, 19:00etan, Santa Anan. Estreinaldia Pake Lekuren kultura astean egin zuten, erretiratuendako bakarrik egindako saioan. Domekako emanaldia herritar guztiendako izango da.

Ikastolakoak Goienan

Txantxiku Ikastolako Lehen Hezkuntzako bigarren mailako 60 bat ikasle Goienan egon ziren astelehenean. GOIENA papera egiten den erredakzioa ikusi eta Goiena telebistako platoan kamerak nola erabiltzen ditugun ikusi zuten.

MIREIA BIKUÑA

Ganbara Txiki abesbatzako kideak Santa Ana aretoan. | AITOR BIAIN

Ganbarakoen ipuin musikatuen lehen bi aleak: 'Jostailugilea' eta 'Eskolopendra'

Gaur, egubakoitza, egingo dute aurkezpena, 19:30ean, kultura etxean

MIREIA BIKUÑA | OÑATI

Ganbara Txiki abesbatzak azken hilabeteetan egindako lanak argia ikusiko du gaur. Ipuin musikatuen proiektu erraldoiaren lehen bi aleak aurkeztuko dituzte: *Jostailugilea* eta *Eskolopendra*. Ekitaldia 19:30ean egingo dute kultura etxean. Ganbarako presidente Miren Arregirekin eta Kultura zinegotzi Manu Egañarekin batera, ipuin musikatuetako musika egileak, Josu Elberdin eta Eva Gonzalez, egongo dira ekitaldian. Bukaeran, Ganbara Txiki abesbatzak emanaldia egingo du.

Protagonisten hitzekin, bi ipuin musikatuak egiteko bidean grabatutako irudiak erakutsiko dituzte. 25 bat minutuko dokumentala grabatu dute.

Bat 20 euro eta bi 35 euro

Aurkezpenaren ondoren, *Jostailugilea* eta *Eskolopendra* ipuinak salgai ipiniko dituzte. Bietako bat erosita 20 euro ordaindu beharko da eta biak erosita, 35 euro. Gainera, bihar, zapatua, Euskararen Egunaren barruan, mahaia ipiniko dute liburuak saltzeko, plazan. Bestalde, hainbat lekutan erosi ahal izango dira: kultura etxean, Urzai informatika-dendan, Altuna estankoan, Ibarrondon, Haritzan, Arantzazuko dendan eta Sesiñena ile-apaindegian, Donostiako Hontzan eta *www.ganbara.org* atarian.

Liburua eta CDa

Ganbara Txikik esku artean duen materiala didaktikoa da, "haur eta gazteen aisialdirako ipuin bilduma"; eta 3-9 urte arteko neska-mutikoendako da.

Ipuin bakoitzak liburua eta CDa ditu. Liburuan, ipuin musikatuan kontatutako istorioa jaso dute ilustrazioen bidez. Liburua osatzeko denbora-pasak eta ipuinarekin zerikusia duten beste hainbat ekintza gehitu dituzte: hizki-zopak, logika lantzeko ariketak, eskulanak, jokoak...

Ipuin musikatuak izanik, ipuinaren narrazioak eta abestiak CD baten jaso dituzte. Gainera, bigarren bertsio baten musikaren *playback* -a sartu dute, haurrek ipuina antzeztu eta abesteko aukera izan dezaten.

BETERANUAK

EMAITZAK "A" TALDEA

Indar 85-Bundeswehr	2-0
Sasquatch-Ankarteko	1-1
The Gibel Boys-Joxely	2-0
Xaguxar-Zorrobero	1-4

SAILKAPENA "A" TALDEA

	TALDEA	P	J
1	Doolygans	7	3
2	Etxaixat	7	3
3	Albok	6	3
4	Txarrixak	6	3
5	Kalañatasaray	6	3
6	Lozorromo	3	2
7	Txuskos	0	2
8	Nandrolona	0	3
9	Paketinaikos	0	2

SAILKAPENA "B" TALDEA

	TALDEA	P	J
1	Indar 85	7	3
2	The Gibel Boys	4	2
3	Bundeswehr	4	3
4	Zorrobero	4	3
5	Xaguxar	3	2
6	Sasquatch	3	3
7	Joxely	3	3
8	Ankarteko	1	3

ASTE BUKAERAKO PARTIDUAK

A TALDEA, 4. jardunaldia

Zapatua 13:00 Nandrolona-Paketinaikos
Zapatua 14:30 Albok-Kalañatasaray
Zapatua 16:00 Etxaixat-Txuskos
Zapatua 17:30 Txarrixak-Lozorromo

B TALDEA, atzeratutako partidua

Zapatua 19:00 Gibel Boys-Xaguxar

Atzeratutako partidua

Biharko jardunaldia ixteko, bere garaian atzeratutako partidua jokatu dute. B taldeko Gibel Boys-Xaguxar lehia jokatuko dute.

Auto barruan baliozko ezer ez uzteko aholkua eman dute Udaltzaingotik

M.B. | OÑATI

Azkeneko egunetan, autoen barruan uzten diren gauzak lapurtzeko saiakerak ugaritu egin dira Oñatin. Hori horrela, auto barruan baliozko ezer ez uzteko aholkua eman dute Udaltzaingotik. "Dirua, poltsoa, mugikorra... Ez da ezer utzi behar auto barruan eta begi-bistan. Barruko hori hartzeko autoan egiten duten kaltearen balioa lapurtutakoarena baino askoz handiagoa izaten da", esan digu Idoia Laspita udaltzainburuak.

Lapurreta saiakera horiek Aita Mortara eta Mikel Aozara kaleetan eta osasun etxeko aparkalekuan egin dituzte.

Erakusleiho lehiaketan izena emateko azken eguna

Oñatiko Udalak Txanda elkartearen laguntzarekin antolatu duen IV. erakusleiho lehiaketarako izen-ematea gaur, egubakoitza, itxiko dute. Interesatuek izen-emate orria eroan beharko dute udal bulegoetara, Turismo Bulegora edo Enplegu teknikariaren bulegora (Bidebarrieta 12). 4.500 euro banatuko dituzte saritan.

LOREA GOMEZ

Akordeoi lehiaketara gogotsu

Jose de Azpiazu musika eskolako lau akordei ikaslek Arrasateko 24. txapelketan parte hartuko dute: Nerea Zelaiak hastapeneko B mailan; Maddi Santa Krutzek A mailan; eta Oihane Lazkanoiturburuk eta Nora Freirek B mailan. Gaur, egubakoitza, egingo dituzte euren saioak.

Euskara kalera aterako dute ikastetxeek gaur

Hainbat ekintza egingo dituzte bihar, zapatua, Euskararen Nazioarteko Eguna dela ospatzeko

M.B. | OÑATI

Bihar zapatua, abenduak 3, Euskararen Nazioarteko Eguna da, eta hori aldarrikatzeko eta euskararen erabilera kalera ateratzeko, askotariko ekitaldiak egingo dituzte herriko ikastetxeetako neska-mutikoek gaur.

Txantxiku Ikastolak, Elkar Hezik eta Errekalde Herri Eskolak adinaren arabera antolatu dituzte ekintzak.

Elkar Heziko Batxilergoko 2. mailakoek egingo dituzte gidaritza lanak. Eurek proposatuko dizkiete ekintzak Elkar Heziko gainerako ikasleei: pailazoak, karaokea, herri kirolak, euskal mitologiaren ipuin baten kontaketa, bertsoen sorkuntza eta euskal kantuekin jolasak. 11:30ean ikasle guztiek giza-kate erraldoia egingo dute plazan, *Euskararen alde: bildu, zabaldu eta goratu euskara* lelopean.

'Euskaraz' erraldoia

Errekalde Herri Eskolako Haur Hezkuntzakoek herri jolasak egingo dituzte. Lehen Hezkuntzako 1., 2. , 3. eta 4. mailetakoek herri kirolak egingo dituzte; eta 5. eta 6. mailetakoek rally kulturala egingo dute herriko kaleetan. Bihar arratsaldean eskolako jolaslekuan argazki erraldoia egingo dute: ikasleek eta irakasleek *Euskaraz* erraldoi bat irudikatuko dute.

Azkenik, Txantxiku Ikastolakoek ere adinaren araberako ekintzak egingo dituzte: Haur Hezkuntzakoek Argitxo iratxoa izango dute lagun. Ipuin kontaketak, jolasak eta dantzaldia egingo dituzte. Lehen Hezkuntzakoek, berriz, ekitaldi nagusia herriko plazan egingo dute 10:00etatik 12:00etara eta DBHkoek jaialdia egingo dute gaztelekuan 12:35etik 14:30era. Ikastolako guraso kontseiluko euskara taldeak antolatuta kantu saioa egingo dute kalerik kale, 18:30ean.

Alex Elortondo hirugarrena karate txapelketan

M.A. | ARETXABALETA

Urritasunak dituztenen IV. arte martzialen nazioarteko txapelketa jokatu zuten Donostian, eta estatutik eta Italia, Frantzia eta Alemaniatik etorritako 41 parte-hartzaile elkartu ziren; tartean, Aretxabaleta Kirol Elkarteko Alex Elortondo karateka. Hirugarren postua eskuratu zuen, gainera, Elortondok.

Bada, UDAko karate taldeko arduradun Odilo Vazquezek eskerrak eman gura dizkie Donostiako Bera Bera elkarteko antolatzaileei: "Urritasunak dituztenak karatearen bitartez integratu gura dituztelako". Era berean, Elortondo zoriondu gura du, beste behin ere postu bikaina eskuratu duelako : "Zorionak, Alex, eta segi aurrera. Zu bai zarela handia!".

Elortondo trofeoarekin. | O. VAZQUEZ

Erakusleiho lehiaketa berrikuntzarekin dator

Herritarrek bozkatu ahal izango dute hirugarren saritua aukeratzeko

MIRARI ALTUBE | ARETXABALETA

Kultura Sailak Gabonetako erakusleiho lehiaketarako dei egin du, eta oinarriak banatu merkatarien artean. Aurrez eman beharko dute izena interesatuek Arkupen –*kultura@aretxabaleta.net*– eta gero, abenduaren 8an hasi eta 31 arte apainduta izan. Aurten, gainera, herritarrek ere izango dute bozkatzeko aukera.

Herriko denda Gabonetako apaingarriekin. | M.A.

Herritarren artean zozketak

Saltokiek ohiko produktuekin apaindu beharko dute erakusleihoa eta epaimahaiak kontuan hartuko ditu imajinazioa, originaltasuna eta kalitatea.

Hiru sari banatuko dituzte sektorea kontuan hartu barik: lehenengoa, 250 euro eta plaka; bigarrena, 150 euro; eta hirugarrena, 100 euro. Azken hori herritarrek aukeratutakoa izango da. Boto-txartelak egongo dira dendetan, eta horiek bete eta Arkupera eraman beharko dituzte. Parte hartu duten herritarren artean urtarrileko kultura ekintzetarako sarrerak zozketatuko dituzte (zinema, antzerkia...).

Umeei zuzendutako esaldi lehiaketa

Enplegu eta Garapen Ekonomiko Sailak esaldi lehiaketa antolatu du herriko ikastetxeetako 8 eta 11 urte artekoendako (LHko 3. eta 6. maila artekoak). Helburua da herriko saltokietan kontsumitzearen garrantziaz ohartaraztea umeak. Hauxe egin beharko dute: esaldi bat proposatu Gabon garaiko opariak herriko dendetan erostera animatuz edo herriko komertzioetan erosteak dituen abantailak aipatuz.

Parte-hartzaileen artean hiru sari banatuko dituzte: 50, 30 eta 20 euroko txartelak herriko dendetan erabiltzeko. Gainera, irabazlearen esaldiarekin kartela egingo dute, eta saltokietan banatu. Esaldiok aurkezteko azken eguna abenduaren 12a da.

Gabonetako kanpaina hasiko du Espetxe Pastoraltzak egunotan

Martuteneko espetxera produktuak bidaltzeko kanpaina egingo dute abenduaren 5etik 11ra –sakristiara eroan–. Hona produktuak: barruko arropa; galtzerdiak; tabakoa eta metxeroak; telefono txartelak (Telefonica, pin barik); kartazalak eta seiluak; xanpua eta xaboia; pilak; turroi biguna...

Hazkuntza taldea jarri gura dute abian eta bi berbaldi egongo dira

Hainbat gurasok 0 eta 3 urte arteko umeak dituztenendako hazkuntza taldeak osatu gura dituzte. Argibideak emateko, Zornotzako amatasunari laguntzeko zentroko arduradun Ana Bacigalupek bi berbaldi egingo ditu, abenduaren 16an eta 19an. Lekua eta ordua zehazteko daude.

Lanbide Eskolako ikasleak rallyetan ibiliko den autoarekin. | M.A.

Rallyetarako autoa gertatu dute Lanbide Eskolan

Gaur Valentziara eroango dute eta domekan Miguel Fuster Espainiako txapeldunak erabiliko du

M.A. | ARETXABALETA

Aretxabaleta Lanbide Eskolako automozioko ikasleak rallyetan erabiltzeko autoa gertatzen ibili dira asteotan. Gaur, Valentziara bidaliko dute auto hori eta domekan, Miguel Fuster Espainiako rally lasterketetako txapeldunak erabiliko du lasterketa batean.

Goi mailako pilotuen eskuetan

Euskadiko Automobilismo Federazioarekin elkarlanean dabil Lanbide Eskola; hain zuzen, eguaztenean Angel Gurrutxaga presidentearen bisita izan zuten. Federazioaren asmoa da Fiat etxeko autoak gertatzea rally txapelketatan jarduteko, eta auto horren prototipoarekin dabiltza lanean Lanbide Eskolan, behar bezala gertatzeko: "Ikasleendako oso motibagarria da halako lana", dio Jaime irakasleak.

Auto hori, gainera, goi mailako pilotuak dabiltza probatzen. Txus Jaio bizkaitarrak hiru txapelketatan erabili du eta domekan azken hiru urteotan Espainiako txapeldun izan den Fusterrek probatuko du. Valentziatik Galiziara eroango dute gero.

Abenduaren erdian ekarriko dute autoa berriro Aretxabaletara eta pilotuek egindako proposamenekin hobekuntzak egingo dizkiote. Asmoa da 2012ko Abarth Kopa txapelketa jokatzeko behar bezala gertatzea hainbat auto. Horiek Euskadiko zirkuituetan erabiliko dituzte eta kanpora ere joango dira –Valentzia, Galizia eta Kantabria, horiekin elkartuta dagoelako Euskadi.

OHARRAK

IBILBIDE HISTORIKOA: ORO ETA BEDOÑA

Loramendi elkarteko Toponimia Taldeak antolatuta azken ibilbide historikoa egingo dute domekan, hilak 4: Oro, Larrino eta Bedoña. Historia kontuak ezagutzeko aukera izango da adituen eskutik. Hitzordua (09:00) Herriko Plazan da (82. kilometro harria).

Mobiliario ARENAZA
ALTZARIAK
DISEINUA
APAINKETA
Bizkaia 1 - Tel.: 943 79 08 07
ARETXABALETA

BASABEAZPI

Gaztainak jaten aitaita-amamekin

Udazkeneko giro goxoan gaztainak erre eta jan zituzten Basabeazpiko umeek aitaita-amamekin batera. Zazpi danbolinkada gaztaina erre zituzten adituak diren aitaitek, eta giro alai eta jatorrean jan gero guztiek. "Umeak eta aitaita-amamak elkarrekin egoteko arratsaldea da", azaldu dute ikastolako kideek. Gaur, ostera, San Frantzisko Xabier eguna ospatuko dute jolasak egin eta txistorra janda.

Ekainera arteko lehiaketa jarri du abian Loramendik

Herriaren gaineko ezagutzak bultzatzea du helburu; bi galdera egingo ditu hamabostean behin

M.A. | ARETXABALETA

Loramendi elkarteko Sustapen Taldeak lehiaketa jarri du abian, eta helburua da herriaren inguruko ezagupideak bultzatu eta kultura zabaltzea. GOIENAren bitartez egingo dituzte galderok bi astean behin, eta ekainera arte iraungo du lehiaketak.

Euskara eta Aretxabaleta

GOIENA astekariko Aretxabaletako atalean eta *Goiena.net* atarian galdera bi botako dituzte Loramendiko kideek hamabostean behin, gaur hasita –azpian lehenengo galderak–. Eta biek euskararekin eta Aretxabaletarekin izango dute zerikusia. Bi eratako galderak izango dira: irekiak eta hainbat aukera dituztenak.

Erantzunak bideratzeko astebeteko epea izango dute herritarrek, eta hiru bide helarazteko: postaz –Aretxabaletako 96 posta kutxatilara bidali–, posta elektronikoz –*lehiaketatxabalta@gmail.com*– edo Loramendi elkartera eroan (16:00-20:00).

Ekainean, erantzun zuzen gehien eman dituen parte-hartzaileak saria jasoko du. Baina ez da izango oparia jasoko duen bakarra; lehiaketan parte hartu duten guztien artean zozketa egingo dute, eta saria eman.

ATXABALTA LEHIAKETA

Hartu parte eta irabazi hainbat sari

loramendi

1. XIX. mendetik XX.eko erdialdera arte, Aretxabaleta hiru kalek osatzen zuten:
   a) Mitarte, Durana eta Otalora
   b) Kalegoixena, Erdikokalia eta Kalebarrena
   c) Santa Kurtz, San Miguel eta Lausita
   d) Portasol, Asuncion eta Ibarra
2. Bukatu esaera zahar hau: "Dakienak badaki..."

Erantzunak eta zure datuak (moztu azpialdea) Loramendi Elkartera ekarri (16:00-20:00) edo bidali hona: Aretxabaletako 96 posta-kutxa edo *lehiaketatxabalta@gmail.com*.

1:_____ 2:_____
Izen-abizenak:_____ Tel.: _____
Azken eguna: abenduaren 9a.

Biharko akordeoi kontzertuak zabalduko du Arkupeko abenduko egitaraua

M.A. | ARETXABALETA

Gertu dauka Kultura Sailak abenduko egitaraua, eta musikak tarte handia izango du Arkupen. Bihar, hain zuzen, akordeoi kontzertua izango da; Arrasate Hiria nazioarteko akordeoi lehiaketako iazko txapeldun Iban Sverko kroaziarrak eskainiko du (20:00). Herriko akordeoi orkestrak, ostera, abenduaren 17an egingo du kontzertua (20:00).

Bestalde, Donostiako The Upper Room taldeak gospel, soul eta blues doinuak ekarriko ditu Arkupera hilaren 28an (19:00). Eta egun berean, Aretxabaleta Abesbatzak emanaldia egingo du parrokian (19:00); Gabon kantuen kontzertua izango da.

Euskararen Eguna izango dute gogoan gaztelekuan

MIRARI ALTUBE | ARETXABALETA

Atzo hasi eta domekara bitartean euskara izango dute gogoan Atxagazte gaztelekuko kideek. Hori aldarrikatzeko ekitaldiak antolatu dituzte Gazteria Zerbitzuak eta Euskara Sailak elkarlanean.

Atzo hasi ziren Euskararen Nazioarteko Eguna girotzen, umeak lagun hartuta; musika eta aurpegia margotzeko tailerrak jarri zituzten plazan. Gaur, ostera, amodiozko SMS mezuen lehiaketaren sari banaketa ekitaldia egingo dute gaztelekuan (18:30). Lehiaketan parte hartutako guztiei egin diete dei eta orduantxe emango dute irabazlearen berri. Ondoren, kontzertua eskainiko du Freedom Boys taldeak.

Zapatuan, ostera, irrati tailerra egingo dute: *Gaztiak euskaraz zertarako?* gaiaren gainean hausnartzeko; eta domekan, hilak 4, euskal film laburrak emango dituzte.

"Euskaraz bizi nahi dut"

Udalbatzak Euskararen Nazioarteko Egunari begirako mozioa onartu zuen asteleheneko osoko bilkuran. Euskararen alde egotetik *euskaraz bizi nahi dut* barneratu beharra aldarrikatu zuten eta "erdaraz egitetik euskaraz egitera pasatu". Baita hainbat konpromiso hartu ere; besteak beste, zerbitzu publikoak eskaintzen dituzten Udaleko langileen euskalduntzea bermatzea eta euskaraz bizi izateko eskubidea helburu duen plangintza garatzea.

GAZTELEKUKO EKITALDIAK

ABENDUAK 2
18:30 Amodiozko SMS bidezko lehiaketaren sari banaketa.
19:00 Kontzertua: Freedom Boys taldea.

ABENDUAK 3
18:00 Irrati tailerra: *Gaztiak euskaraz zertarako?*

ABENDUAK 4
18:30 Euskal film laburren emanaldia.

Kilo eta erdiko eta kiloko onddoak

Satuk eta Canok ia zortzi kilo onddo batu zituzten joan den zapatu goizean Gasteiz aldean. Argazkikoak dira jasotako handienak: bata kilo eta erdikoa eta bestea, 900 gramo pasatxokoa. Gustura itzuli ziren.

CANO

FELIS BELTRAN DE HEREDIA

50 urte, zerbait bada gero!

Errioxa aldera egin zuten 1961ean jaiotako 37 lagunek, eta egun-pasa dotorea egin: Toloño mendi magalera igo, Bastidan paseatu, Ardoaren Museoa bisitatu eta Ribas de Tereso herrian bazkaldu.Guztia, giro ezin hobean eta sasoi bateko kontuak gogoan. Herrira itzulitakoan batzuek goizaldera arte segitzeko indarra izan zuten.

Inkernu tabernak beste jabe bat izango du gaurtik aurrera

A. ALKORTA | ESKORIATZA

Inkertu tabernak jabe berria izango du gaurtik aurrera. Bada, tabernak orain arte izan duen funtzio bera izaten jarraituko badu ere, jabe aldaketa ospatzeko ekitaldi itxurako zer edo zer egingo dute gaur bertan tabernan. Eta Aitzorrotz elkarteak jakin eragin duenez, orain arteko eskaintza kulturala bera izaten segituko du Inkernuk.

Dagoeneko zortzi urte bete ditu Inkernu tabernak. Hasiera-hasieratik Aitzorrotz elkartearen egitekoa izan da taberna kudeatzeko ardura. "Orain arte egon direnak hiru urtez egon dira tabernan lanean eta orain beste batek eramango du", esan dute Aitzorrotzekoek.

Inauguraziorako hitzodura

Tabernaren eskualdaketa ospatzeko, Inkernuk 19:00etan zabalduko ditu ateak gaur. "Orain arte egin izan diren ekintza berak egiten jarraituko dugu, baina jabe berriekin", argitu dute Aitzorrotz kultura elkarteko kideek.

Bide horretatik, abendurako sorpresa batzuk dituztela aurreratu dute.

Gaur inaugurazioa egin eta plazako kontzertua amaitzean, Inkernun garagardo jaia izango dela iragarri dute kultura elkarteko kideek. "Kontzertuaren ostean jaiak aurrera segituko du Inkernun eta herritarrei tabernara etortzeko gonbita egin nahi diegu", gaineratu dute Aitzorrotzekoek.

Kultura etxeko euskarazko jostailuen erakusketa atzo itxi zen, hiru egun zabalik egon eta gero

Martitzenetik atzora arte egon da zabalik euskarazko jostailuen erakusketa, 17:00etatik 19:30era. Eta hiru egunean herritar asko joan dira hara. Erakusketa umeei eta gurasoei zuzenduta egon da, eta, besteak beste, Gabonei begira opariak egiteko aukerak erakutsi dituzte. Beti-betiko jostailuak egoteaz gain, jostailu berriak ere bildu dituzte aurtengo erakusketan. Bada, erakusketan gaur egingo den mahai-jolasen txapelketarako izena emateko aukera ere egon da.

Olazar erretiratuen elkarteak bazkideentzako Gabonetako Loteria jarri du salgai

Urtero egiten duen moduan, aurten ere Olazar erretiratuen elkarteak bazkideentzako Gabonetako Loteria jarri du salgai. 99.649 da zenbakia eta bazkideek zenbaki horren txartelak erosi ahal izango dituzte. Loteria erretiratuen tabernan egongo da salgai, orain arte bezala, eta euro bat balio du. Dena dela, erosterakoan, bazkideek aurtengo kuota "ezinbestean" ordainduta izan beharko dutela iragarri dute erretiratu elkartekoek. Loteriaren zozketa abenduaren 22an egingo da.

Hauteskundeetan jasotako konfiantza eskertu nahi izan du PSE-EEko ordezkariak

Jose Luis Cantero Eskoriatzako PSE-EEko ordezkariak Espainiako Gorteetarako Hauteskundeetan herrian jasotako konfiantza eskertu nahi izan du. "Herrian bigarren indar politikoa gara, eta, horri jarraituz, borondate osoz eskoriatzarren aldeko politika egiten segitzeko asmoa dut", adierazi du. Bide beretik, bizi dugun krisi garaiari aurre egiteko sektore ahulenei laguntzeko asmoa duela azpimarratu du: "Lanpostuak sortzeko lanari gogor ekingo diot".

REHABILITACIONES IKERRA S.L.

ERAIKUNTZAK - PROIEKTUAK

Aranburuzabala 27 - ESKORIATZA
Tel.: 943 53 38 31. Mugikorra.: 630 087 071
E-posta.: re-ikerra@hotmail.com

Ordenantza fiskalei erreklamazioak egiteko epea zabaldu du Udalak

Abenduaren 12a izango da alegazioak aurkezteko azken eguna

ASIER ALKORTA | ESKORIATZA

Udalbatzak urriaren 26ko bilkuran onartutako 2012. urterako ordenantza fiskalei alegazioak egiteko epea zabaldu du Udalak. Epe hori hilaren 12ra arte egongo da zabalik eta herritarrek udaletxera joan beharko dute alegazioak aurkezteko.

Udalak herritarrei aplikatuko dizkien udal zerga eta tasak dira ordenantza fiskalak. Motzean esateko, Udalak uraren, hondakinen bilketaren eta kiroldegiaren tasak igo ditu Kontsumo Prezioen Indizea (KPI) kontuan hartuta: "2012. urteko ordenantza fiskalak berrikustean Udal Gobernuak buruan izan dituen irizpide orokorrak izan dira 2010eko iraileko 2011ko irailera arte egondako KPIren gorakada eta inguruko herrietako batez besteko tarifa Eskoriatzakoa baino askoz handiagoa dela". Horrela, bada, hori guztia kontuan hartuta, igoera KPI baino zertxobait handiagoa izatea erabaki zuen Udalak.

Ordenantzak aztertzeko aukera ere badago

Ura eta hondakinak

Ur Partzuergoak %8ko igoera aurreikusten bazuen ere, Udalak ez du ontzat eman igoera hain handia izatea: "Ez dugu ondo ikusten kostu guztia herritarrei aplikatzea, eta, ondorioz, igoera %5,5 izango da; hori onartu dugu".

Hondakinen kasuan, aldiz, Debagoieneko Mankomunitateak hartutako erabakiari eutsi dio Udalak: "Horretan igoera %2,82 izango da, Mankomunitateak erabaki bezala".

Kiroldegia eta terrazak

Kiroldegiko bazkideek ere urteko kuota garestiago ordainduko dute datorren urtean: "Haiek %4,5eko igoera izango dute". Dena den, orain arte ez bezala, urte berrian gimnasioa eta sauna kuotaren barruan sartuko dira eta ez dituzte aparte ordaindu beharko: "Horiek erabiltzea abonatu prezioaren barruan egongo da".

Tabernetako terrazak ere garestiago izango dira: "Orain arte hiruhileko lau tasa ordaintzen zituzten tabernariek. Aurrerantzean tasa bakarra kobratuko zaie, urtekoa. Horren prezioa lehengo hiruhileko tasarena gehi %25eko igoera izango da".

Baina gorakadak batean eta bestean izan badira ere, Udalak bonifikazioak eta salbuespenak jaso ditu. "Ez dira garai onak herritarrei esfortzu fiskal handia eskatzeko. Gehien dutenek gehiago aportatu beharko dute".

Erabakiak hartuta eta igoerak zeintzuk diren azalduta, orain herritarren txanda da. Alegazioak hilaren 12ra arte jasoko dira udaletxean, eta ondoren aztertu egingo ditu Udalak. "Alegazioak aurkezteaz gain, ordenantza berriak ere aztertu ahal izango dituzte herritarrek, udaletxean bertan".

Udalbatzak urriko azken bileran onartu zituen igoerak. | ASIER ALKORTA

Euskararen Eguna ospatzeko ekintzak antolatu dituzte Udalak eta Aitzorrotz eta Eingeinke elkarteek

A. ALKORTA | ESKORIATZA

Gaur (egubakoitza) hasi eta domekara arte, Euskararen Eguna ospatzeko hainbat ekintza antolatu dituzte Eskoriatzako Udalak, Aitzorrotz kultura elkarteak eta Eingeinke elkarteak. Hain zuzen, gaur eta domekan ekintza gutxiago egingo badituzte ere, biharko egun osoko egitaraua prestatu dute.

Ospakizunari hasiera emateko kontzertua eskainiko du gaur gauean, 22:30ean, Bide Ertzean taldeak. Kontzertua Herriko Plazan izango da eta sarrera hiru euro da.

Domekan antzerkia

Zapatuan egun osoko jaian murgildu eta gero, ospakizunak amaitzeko antzerkia egongo da domekan ikusgai.

Horretarako hitzordua plazan jarri dute antolatzaileek, 19:00etarako.

Morritson eta Gartzia: Kultoko antzezlana izenburupean, helduei zuzendutako umorezko antzelana da. Besteak beste, VI. Cafe Bilbao antzerki gidoien saria jaso zuen antzezlanak (2008). Aktoreak Jon Urraza eta Jon Zubiaga izango dira eta 60 minutu iraungo du.

Biharko ekintzak, goizetik gauera arte

Zapatua izango da egun handia. 12:30ean euskal dantzak egongo dira ikusgai Gorosarrin. Ondoren, 13:30ean, triki poteoa egingo dute herrian eta ondoren, bazkaria. Bazkarirako txartelak salgai daude Goxto Txikin eta Aldatzen. Bazkalostean, Mihiluze txapelketa erraldoiaren eta Dorleta Kortazar ipuin kontalariaren txanda izango da. 22:30ean kontzertuak egongo dira, plazan.

Alaitz Jauregi, Xinkona dendan, eskulan ikastaroan ari diren ikasle batzuekin. | USOA AGIRRE

"Oso ondo moldatu dira gaztetxoak eskulanetan"

Urtarrilean egingo da bigarrenez ikastaroa Xinkonan

USOA AGIRRE | ANTZUOLA

Irailean izena emateko epea zabaldu eta urrian hasi zuten eskulan ikastaroa Xinkona dendan. Lau urtetik hasi eta 11 urtera arteko umeak ari dira ikastaroan (datorren astean bukatuko dute) eta hasieran uste baino arrakasta handiagoa izan duela esan digu Alaitz Jauregi irakasleak: "pentsatzen nuena baino jende gehiagok eman du izena; 55 ume dabiltza! Hurrengo ikastarorako 72rendako lekua jarri dut; gehiago ez gara kabitzen hemen".

Etxean dituzten materialak birziklatuz egin dituzte eskulan gehienak: diru-zorroak egin dituzte tetra-brikekin eta eskumuturrekoak laten eraztunekin, adibidez. Horrez gain josten ere aritu dira. Urtarrilean hasiko dira berriz ikastaroak eta filosofia berberarekin jarraituko dute. "Birziklatutako gauzekin beti saiatuko gara moldatzen gauza batzuk, baina jostea ere ez dut alde batera laga nahi. Gaur egun ez du jende askoko josten eta umeei asko gustatzen zaie. Gainera, behin ikasiz gero hor egongo da hori", esan digu Jauregik. Bestalde, zehaztu digu oso ondo moldatu direla ume guztiak eskulanetan: "Pentsatzen nuen 4 urtekoak, agian, ez zirela moldatuko, baina oso ondo josi dute".

Oparitzeko ere bai

Irati da ikasleetako bat eta kontatu digu zer egin duen ikastaroan: "Bereizleak, amantala eta etxera gauzak eramateko motxilatxo bat egin ditut, besteak beste". 11 urte ditu Iratik eta etxean ere eskulanak egiten aritzen dela esan digu: "Telebistan saio bat dago eskulanak ikusi eta gero egiteko, eta horretan aritzen naiz".

Laster Gabonak direla eta oparitzeko eskulanak ere egin dituzte. Lau urteko Maialen eta Alejandrak, adibidez, oparitzeko brotxeak egin dituzte, "gurasoei eta lagunei oparituko dizkiegu", azaldu digute.

Izen-ematea zabalik

Xinkona dendako bigarren eskulan ikastaroa urtarrilean hasi eta martxoaren 30ean bukatuko da. Izena emateko epea zabalik dago dagoeneko eta abenduaren 30era bitartean eman daiteke izena, dendara bertara joanda. Hamabi euro ordaindu behar da izena emateko eta hilabeteko kuota borondatezkoa izango da. Jauregik azaldu digunez, "hasierako ikastaroan borondatea bakarrik eskatu nuen, baina bigarrenean 12 euroko matrikula jarri dut izen-ematea serioagoa izan dadin; ez daitezela etorri izena matera etxean ezer esan gabe". Jasotako diruaren %30a herriko Anelkar gobernuz kanpoko elkarteari emango dio Jauregik.

DATUA

55

IKASLE

Hasieran uste baino ume gehiagok eman dute izena ikastaroan eta guztira 55 ume ari dira eskulanak ikasten Xinkona dendan.

Pintxoak eta musika Euskararen Egunean, gaztetxoen eskutik

U.A. | ANTZUOLA

Bihar, zapatua, da Euskararen Eguna eta hori ospatzeko pintxoak eskainiko dituzte gazte txokoko gaztetxo eta begiraleek. 19:00etatik 19:30era egongo dira gaztetxe aurrean. Iluntzea alaitzeko gazte txokoko trikitilariak ere egongo dira bertan.

Urtero egiten dute ekintza hau Euskararen Egunaren inguruan, gaztetxoak herrira zabaldu eta euskararen aldeko ekintza bat egiteko. Idoia Ramirez de Okariz koordinatzailearen arabera, "euskara sustatzea" baita gazte txokoko helburuetako bat. Jasotako dirua ikasturte amaieran irteera bat egiteko erabiliko dute.

Herritarrak animatu

Herritar guztiak euskararen aldeko jaian parte hartzera animatu nahi izan ditu Ramirez de Okariz koordinatzaileak, "Euskararen Eguna egunero delako".

Gazte txokokoak iaz, Euskararen Egunean. | GAZTE TXOKOA

Erretiratuen karta-joko txapelketan izena emateko epea zabalik dago

U.A. | ANTZUOLA

Erretiratuen elkartean karta-joko txapelketa antolatu dute urtero moduan. Abenduaren 13tik 16ra bitartean jokatuko dira partiduak: abenduaren 13an puntuan; 14an briskan; 15ean tutean; eta 16an musean. Abenduaren 19rako bukatu beharko dituzte modalitate bakoitzeko partiduak.

Txapelketan parte hartzeko izena emateko epea zabalik dago eta abenduaren 11 izango da izena emateko azken eguna. Elkartean bertan eman beharko da izena.

Bailarako txapelketara

Herriko txapelketa irabazten dutenek abenduaren 22an jasoko dituzte sariak, egun horretan egingo den txistor-janean. Ondoren, bailara mailako txapelketa jokatuko dute Antzuolako irabazleek.

OHARRAK

FUTBOLA

Preferente mailako futbol taldeak ez du partidurik aste bukaeran; hurrengo partidua abenduaren 10ean jokatuko dute, Ordiziaren kontra. Kadete mailako taldeak bihar, zapatua, etxean jokatuko du Eibartarrak taldearen kontra. Infantilek ere ez dute partidurik aste bukaeran; abenduaren 10ean jokatuko du hurrengoa.

PILOTA

Manex Balerdik gaur jokatuko du eskuz banakako partidua Lazkaon; larruzko paletan gaur, Zubietan, Usurbilen kontra.

Jaso dituzte sariak argazkilariek

Joan den domekan banatu zituzten Olaranen XVII. argazki lehiaketako sariak. Lierni Errasti lehen mailan eta Iker Aizkorbe bigarren mailan izan ziren irabazleak; bigarren sariak eskuratu zituzten Euken Rodriguezek eta Iñigo Alonsok.

JONE LARRAÑAGA

GAILUR
taberna eta gozotegia
Buztinzuri 13 ANTZUOLA
Tel.: 943 78 70 32

ANTZUOLA
Apainketak eta solamenduak
•
Pladurrezko dibisioak
Kalegoi 21 ANTZUOLA
676 997 400
Biltegia: 943 78 70 40

Gai zerrenda luzea izango du gaurko osoko bilkurak, hiru mozio eta guzti. | JOKIN BEREZIARTUA

2012rako aurrekontuak hizpide gaurko osokoan

Zirriborroa aurkeztu ahal izateko azaroko bilkura gaur egingo da (17:00)

JOKIN BEREZIARTUA | ARAMAIO

Azaroko ohiko bilkura eguaztenean, hilak 30, egitekoa bazen ere, gaur egingo dute. Arrazoia da, Lierni Altuna jarduneko alkatearen arabera, 2012rako aurrekontuen zirriborroa prestatzeko atzerapenak izan dituztela eta batzorde guztietatik pasatzerik izan ez dutela. Hala, gainerako zinegotziei proposatu zitzaien bi egun geroago egitea, bi bilkura ezberdin ez egitearren. Aho batez onartu zen proposamena.

Ongizatea bermatzea

Aurrekontuetan bi arrazoik eragin zuzena izango dute, Altunak aurreratu duenez: lehena da Arabako Aldundiak urtero bideratzen duen diru kopurua %15 murriztuko duela. Diru hori da Udalaren diru iturri nagusia, eta, beraz, asko baldintzatuko du kudeaketa. Beste arrazoi bat ere badago: Etxaguen auzoko hiri-azpiegiturak eraberritzeko lanak –errepidea zabaldu behar da, besteak beste– urtarrilean hasiko dira, lanok egingo dituen enpresa esleitzeko prozesua ondo badoa. Bada, lan horien %80 Diputazioak ordaindu behar baditu ere, Udalak ere diru asko gastatu beharko du. Hala, nahitaez murrizketak egin beharko dituzte: "Murrizketak orokorrak izango dira, baina Ongizatea, Euskara eta Kultura bermatzeko, Hirigintza Sailak jasoko du murrizketa handiena", dio Altunak.

ESANAK

"Orokorrak dira murrizketak; handiena jasoko du Hirigintzak"

LIERNI ALTUNA | JARDUNEKO ALKATEA

Bilduren hiru mozio

Bestalde, bilkuran hiru mozio aurkeztuko ditu Bilduk: lehenak emakumeen kontrako indarkeria izango du hizpide, eta genero indarkeriaren aurrean "udal politika aktibo, osoa eta koordinatua" egiteko konpromisoa jasotzen du; bigarrenak, Euskararen Egunaren harira, udal jarduna euskaraz egiteko konpromisoa jasotzen du; eta azken mozioak, berriz, euskal presoen eskubideak aldarrikatzea du helburu.

Kukubiltxo taldearen 'Mortimer' gaur, Euskararen Egunaren harira

J.B. | ARAMAIO

Euskararen Eguna ofizialki bihar ospatuko den arren, Aramaion gaur, bezperan, izango dira ekitaldi nagusiak. Ekitaldion artean, nabarmentzekoak dira Udalak eta liburutegiak elkarlanean antolatu dituzten ipuin kontalari saioak eta antzezlana.

Arratsaldean ipuin kontalaria egongo da liburutegian, Eñaut Gorbea, Zurrunka antzerki taldeko kidea, hain justu. Haurrekin hainbat urtean lan egindakoa da Gorbea; bada, gaur bi saio eskainiko ditu: lehena 17:00etan, eta 3 eta 6 urte bitarteko haurrendako izango da; bigarren saioa, berriz, 18:00etan da, 6 urtetik gorakoendako. Gauean, amaitzeko, Kukubiltxo taldearen *Mortimer* ikuskizuna egongo da kultura etxean (22:15).

Mortimer ikuskizuna. | GOIENA

Hezitzaileek euskara erabiltzeko ikastaroa Zuiako Koadrilan

Zuiako Koadrilak haur eta gazteekin lan egiten duten hezitzaile eta begiraleendako ikastaro berezia antolatu du. Ikastaroaren helburuen artean dago, esaterako, hezitzaileen euskararekiko motibazioa eta kontzientziazioa areagotzea.

Abenduaren 17an da hitzordua, Zigoitiko (Araba) kultura etxean. Zortzi ordu iraungo du, honako ordutegian: 10:00etatik 14:00etara eta 15:30etik 19:30era. Abenduaren 15a baino lehen eman behar da izena, *euskara@cuadrillazuia.com* helbidera mezua bidalita edo 945 43 01 67 telefono zenbakira deituta (Manex Agirre). Doan da.

Ainhoa Sanz | Bideojokoen erabilera seguruan aditua

"Guraso gehienek ez dakite euren seme-alabak zertan jolasten diren"

'Ciberbullying' eta 'Grooming' kasuak gero eta gehiago gertatzen direla adierazi du Sanzek

J.B. | ARAMAIO

Gabonak ate joka ditugu eta ziur Aramaioko hainbat gaztetxok bideojokoak eskatuko dizkiola Olentzerori. Ainhoa Sanz adituarekin egon gara, horien erabilera seguruaz berbetan. Martitzenean izan zen Aramaioko kultura etxean, gaiaren gainean hitzaldia egiten.

Gaztetxoek erabilera egokia ematen diete bideojokoei?

Badakite jolasten, baina horien erabilera egokia gurasoen esku dago, neurri handi baten. Hau da, bideojokoen edukiak aproposak diren edo ez gurasoek kontrolatu beharko lukete. Hitzaldiaren helburua da bideojokoak zer diren aurkeztu, zein onura dituzten azaldu eta, batez ere, sor ditzaketen arriskuen gainean ohartaraztea.

Hala, gurasoei lagundu gura diegu, eta arriskuok aurreikusten lagundu.

Izan ere, helburua da joko horiek modu seguruan erabil ditzaten lortzea.

Gurasoendako ekimena da, beraz.

Bai, hala da. Izan ere, gaztetxoek badakite kontsola edo ordenagailua erabiltzen, eta alde horretatik gurasoak baino aurreratuago daude. Guraso gehienek ez dakite euren seme-alabak zertan jolasten diren.

Ainhoa Sanz. | J.B.

Orduan, gurasoei bideojoko horiek ezagunagoak egin gura dizkiegu.

Zeintzuk dira erabilera desegokiaren adibide garbienak?

Batez ere, Internet bidezko jokoetan gertatzen dira seguruak ez diren erabilerak.

Haur eta gaztetxoek ez dute pribatutasunik gordetzen, hainbat datu ematen dituzte jakin gabe zergatik eta zertarako ari diren datuok ematen.

Ciberbullying eta *Grooming* kasuak geroago eta gehiago gertatzen dira eta berba horrek zer esan gura duen eta nola ekidin daitezkeen azaltzen dugu.

Menpekotasun kasuak ere gertatzen dira eta horiei nola aurre egin erakusten dugu.

NIRE USTEZ

XABIER AGIRRE

Ateak zabaltzen

Esaera da ezezagun bati hitz egitean hizkuntza horretako atea zabaltzen zaiola.

Hasieratik euskaraz eginez gero atea zabaltzen diozu ez dakienari; horrela ez diozu euskal komunitateko atea itxiko.

Bi komunitate ezberdin? EZ! Euskaldunak eta ez dakitenak komunitate bat osatzera goaz. Gazteleraz eginez gero, euskararen atea ixten diozu euskaraz ez dakienari.

Horrela bai, bi komunitate ezberdin izango dira.

Ate asko ireki izan da Euskal Herriaren historian zehar, komunitatea ez apurtzeko: Ikastolak sortu genituen, unibertsitateak euskaraz, telebistak, eta irratiak, eta kantuak, eta udaletxeko zerbitzuak, eta...

Eta beste ate mordoxka bat zabaltzen jarraitzen dugu: egunkari eta astekariak, eta idazle sortzaileak, abeslariak, eta zinematarako filmak euskaraz, kontzertu eta antzerkiak, eta Interneten dauden aukera amaigabeak –euskal blogariak, twiterrak, wikipedia euskaraz ...–, lider politikoak mitinetan euskaraz –PSE ta PP barne–, baita autoeskolak ere...

Eta zenbat ate geratzen diren oraindik!

Kantuak dio: *"Hik bultza gogor hortikan, ta bultza nik hemendikan, ikusiko da nola..."* euskaraz hitz egiteko elkartzen diren "mintzalagun" taldeak, nola ari diren ateak irekitzen.

Aramaion ere hala izan dadila.

"Euskaraz eginez gero atea zabaltzen diozu ez dakienari"

ELGETA

Pilotalekua erabiltzeko arautegi berria onartu du osoko bilkurak

Langile berria du Udalak; Aner Fernandez urtebeteko praktika-aldian dago

LARRAITZ ZEBERIO | ELGETA

Pilotan egin nahi dutenen eta ume txikiak dituzten gurasoen artean egoera deserosoak sortu dira, eta, irtenbide bat topatu nahian, pilotalekurako arautegi berria landu eta onartu du Udalak. Arautegi berriak bi eremu ezberdintzen ditu: lehenengo sei koadroak eta hortik atzerakoak. Orain arte ez bezala, 16:00etatik 18:00etara erabilera librekoak izango dira lehenengo sei koadroak. Horrek esan gura du lehenengo iristen denak izango duela lehentasuna; berdin dio pilotaria edo haurra izan. Haurrak ez dira jolastokirik gabe gelditukо; 16:00etatik 18:00etara umeen erabilerarako erreserbatzen dira frontoiko azken lau koadroak.

Ordu horretatik aurrera erreserbaz hartutako orduak hasten dira; beraz, kantxa libre utzi beharko dute erreserbarik egin ez dutenek. Frontoiko ateak itxi egingo dira eta ikusleak harmailetan bakarrik egon ahal izango dira. Inola ere ez kantxan. Oxel Erostarberen iritziz, zenbait gurasoren aldetik abusuzko jarrerak izan dira: "Ume bakar batek pilotan ari den koadrila frontoitik botatzea, esaterako. Ezin da izan".



Aner Fernandez elgetarra, Udal Liburutegian aldizkariak antolatzen. | L.Z.

Langile berria udaletxean

Bestalde, Gureak taldearen ekimenez, Aner Fernandez elgetarrak urtebeteko praktika-aldia hasi du Elgetako udaletxean. Arratsaldez egingo du lan eta hainbat zeregin izango ditu: udal brigadakoei lagundu, banaketa lan txikiak egitea, liburutegiko aldizkariak txukuntzea... Egunotan, dituen egitekoen gaineko azalpenak jasotzen ari da Fernandez.

Bisita gidatua domekan

Azkenik, Intxortako ibilbide tematikora bisita gidatua egingo du domekan, abenduak 4, Iraitz Lazkanok. Eta ezinbestekoa da aurrez izena ematea: 943 79 64 63 edo 943 71 89 11.

Argazkilari onenak, aurten, Koldo Izagirre eta Mikel Ormaetxea

L.Z. | ELGETA

Zapatuan banatu zituzten azaroaren 13an egindako argazki rally lehiaketako sariak. Koldo Izagirrek argazki onenari emandako saria jaso du eta Mikel Ormaetxeak, berriz, argazki bilduma onenari emandakoa.

Elgetako alde zaharrari Izagirrek ateratako argazki batek –ondoan ikusgai– jaso du sari nagusia. Hamar lagun aurkeztu ziren lehiaketara eta ordubeteko tartea izan zuten bost argazki ateratzeko. Emandako gaiak honakoak izan ziren: *Udazkena; Alde zaharra; Zer erakutsiko zenioke kanpotar bati?; Pintxo-domekak;* eta gai librea. Bada, ez da Koldo Izagirrek jasotzen duen lehenengo saria; izan ere iazko argazki lehiaketan ere hark eraman zuen sari nagusia, *Azkonabieta* izeneko argazkiarekin.

Saritutako argazkia. | KOLDO IZAGIRRE

Bilduma onena, Ormaetxeak

Aurtengo argazki lehiaketako beste protagonista Mikel Ormaetxea izan da; argazki bilduma onenari emandako saria jaso du elgetarrak.

Ormaetxeak Asentzion atera zuen *Zer erakutsiko zenioke kanpotar bati?* atalera aurkeztutako argazkia eta konposizio aldetik oso argazki politak sortu ditu.

Koldo Izagirreren argazkia eta Mikel Ormaetxearen argazki bilduma *www.elgeta.org* webgunean eta *www.goiena.net* atarian daude ikusgai.

VIII. PILOTA TXAPELKETA

AZKEN EMAITZAK

Ibai Etxaniz - Jon Irazabal / Iban Retolaza - Jabier Larrañaga	22-17
Odei Zenitagoia - Andoni Elortza / Sergio Bouzas - Koldo Erostarbe	22-16
Iñaki Ugarteburu - J.M. Zubiaurre / Angel Ibarluzea - Alberto Telleria	16-22
Antxoka Etxabe - Igor Irazabal / Oskar Sarasua - Iñaki Olaortua	16-22
Iker Irazabal - Diego Cantabrana / Mikel Ormaetxea - Garikoitz Arrazola	18-22
Oskar Askasibar - Haritz Gallastegi / Ibon Untzetabarrenetxea - Mikel Beretxinaga	11-22

BARIKUKO PARTIDUAK, 20:00ETAN

Ibai Etxaniz - Jon Irazabal / Sergio Bouzas - Koldo Erostarbe

Antxoka Etxabe - Igor Irazabal / Mikel Ormaetxea - Garikoitz Arrazola

Satur Ramos - Mikel Arkarazo / Alex Arantzabal - Iñaki Izagirre

Iker Irazabal - Diego Cantabrana / Ibon Untzetabarrenetxea - Mikel Beretxinaga

Odei Zenitagoia - Andoni Elortza / Oskar Askasibar - Haritz Gallastegi

DOMEKAKO PARTIDUAK, 11:30EAN

Iban Retolaza - Jabier Larrañaga / Oskar Sarasua - Iñaki Olaortua

Asier Morales - Koldo Goenaga / Satur Ramos - Mikel Arkarazo

Pailazo ikuskizuna eta margotze tailerra zapatuan Euskararen Nazioarteko Eguna ospatzeko

Udaleko Kultura Sailak bi ekintza antolatu ditu biharko, zapatua. Patxin eta Potxin pailazoek *Bizitza zirkuan* izeneko ikuskizuna egingo dute, 12:00etan, kiroldegiko gimnasioan. Sarrera doan da. Jarraian, 13:00etan hasita, margotze tailerra iragarri dute antolatzaileek. "Euskara margotu eta herria kolorez jantziko dugu", adierazi dute.

Erretiratuen elkarteak gonbidatuta Oñatiko Ikusi Makusi taldeak emanaldia egingo du eguaztenean

Oñatiko erretiratu talde batek dihardu Ikusi Makusi antzezlan taldean eta eguaztenean, abenduak 7, Elgetan izango dira. *De vecinos como estos líbranos señor* antzezlana eskainiko dute Espaloia kafe antzokian, 17:30ean hasita. Ez da Elgetako erretiratuek abenduan duten hitzordu bakarra: 12an bingoa egingo dute; 14an Alai taldearen emanaldia dute; 15ean podologoaren kontsulta; eta 16an Gabonetako luncha Ozkarbi elkartean.

Manolo Montielek herrian ateratako hainbat argazkirekin egindako bideoa erakutsi du

Argazki-kamerarekin ikusi dugu azkenaldian atzera eta aurrera eta emaitza 20 bat minutuko argazki-muntaia da. Elgetar ugariren laguntza izan du proiektu horretan eta jendaurrean erakutsi nahi du lanaren emaitza. Bihar, zapatua, aurkeztuko du egindako bideoa Ostatu tabernan, 19:00etan eta 21:00etan.

Geaxi Ezpeleta elgetarra emakume onena jokatu berri den Euskadiko hiru txirlo txapelketan

Zapatuan jokatu zen azken saioa, Markinan. Txapel nagusia Bittor Astigarraga eibartarrak eraman du, 17 txirlo jota. Geaxi Ezpeleta elgetarra, berriz, laugarren sailkatu zen saioan eta emakumezkoen sailkapenean hura izan da onena, hamar txirlo jota. Taldekako sailkapenean Elgeta laugarrena izan da.

LEINTZ GATZAGA

Udaleko informazioa posta elektronikoz jasotzeko aukera dago

MIRARI ALTUBE | LEINTZ GATZAGA

Herritarrei erraztasunak eman gura dizkie Udalak informazioa eskuratzeari dagokionez. Hori horrela, posta elektroniko bidez hasi da bidaltzen informazioa. Hala jasotzeko interesa dutenek eskaera egin behar dute Udalaren webgunearen bitartez: *www.leintzgatzaga.com*.

Webgune barruan, eskumako aldean, jarri dute *Informazioa emailez* izeneko atala, eta hara sartutakoan eskaera orria bete behar dute herritarrek. Eskatzailearen izena eta posta elektronikoa besterik ez dute eskatzen. Bada, hori bidalitakoan, informazioa jasotzen hasiko dira eskatzaileak.

Albiste guztien berri

Agintaldia hasi berri duten udal ordezkariek erabaki dute herritarrak posta elektroniko bidez informatzea. Eskaera egiteko tartea orain hilabete batzuk jarri zuten, baina asteotan hasi dira bidaltzen lehenengo albisteak.

Hain zuzen, udalbatzak ordenantza fiskalak onartu dituela jakinarazi dute zerbitzu horren bidez, eta herritarren interesekoak izan daitezkeen beste hainbat dei egin dituzte. Gero, informazio hori guztia Udalaren webgunean dago landuta. San Milixan feriako eta Emakumeen Aurkako Indarkeriaren Kontrako Nazioarteko Egunean egindako elkarretaratzeko argazkiak ere badaudela webgunean iragarri dute egunotan.

Beste eragiketa batzuk egiteko aukera ere eskaintzen du webguneak, bi ataletan sartuta: *Udal zerbitzu telematikoak* –errolda kontsultatzeko eta tasak ordaintzeko–; eta *Nire ordainketa* –administrazioarekin harremanetan jarri eta ordaintzeko.

Abenduaren 19an bakarrik zabalduko dute KZgunea

Abenduko egitarauaren berri eman dute KZguneko kideek, eta jai egun asko dituen hilabetea izanik, bakarrik hilaren 19an zabalduko dute; goizez izango da (09:00-13:00).

Hainbat ikastaro egiteko aukera eskainiko diete 16 urtetik gorakoei, eta Interneten gaineko zalantzak argitzeko ere bai.

PILOTA

Aitor Mendizabal | Aspeko pilotaria

"Jendeak zoriondu egiten nau finalera iristearren, baina partidua irabazi nahi dut"

- Zapatuan jokatuko du promes mailako finala
- Tolosako Beotibar pilotalekuan, 18:00etan

XABIER URTZELAI | TOLOSA

Aitor Mendizabalek (Antzuola, 1989) bost hilabete baino ez ditu behar izan profesional mailako lehenengo finalera iristeko. Bihar, zapatua, jokatuko du Lemuno kolonbiarraren kontra, eta finalaren jokaleku berean erantzun ditu galderok; Tolosako Beotibar pilotalekuko harmailetan.

Aurreikusten zenuen profesional mailan halako hasierarik?

Ez, egia esateko. Poliki-poliki hasteko asmoa nuen eta partiduak bata bestearen ostean irabazita konturatu orduko finalera iritsi naiz.

Zer sentitzen da finalaren atarian?

Bi aste daramatzat itxaroten, eta egia da azkenerako luze ere egin zaidala. Ondo entrenatzeko aprobetxatu izan dut denbora hau, hainbat lan-saio espezifiko egiteko, eta bai, azken aste honetan urduritasunak ere igarri ditut.

"Poliki hasteko asmoa nuen, baina konturatu orduko finalera iritsi naiz"

"Urduritasuna igarri dut astean, baina finala jokatzeko gertu nago"

Baina, finalerako prest, partidua jokatzen hasteko deseatzen nago.

Gustura aukeratutako materialaz?

Bai. Bi pilota ezberdin aukeratu ditut, batek bote handiagoa du, bestea gehiago dabil behetik, eta badaezpada ezberdinak aukeratu nahi izan ditut, partidua zelan doan ikusita baten edo bestearen alde egiteko. Biekin irabazi daiteke finala, baina euretako bat jokatzeko da gehiago, eta bestea tantoak azkar amaitzeko.

Eta Lemunok aukeratu dituen pilotekin?

Txapelketa osoan zehar bote askoko pilotak aukeratu ditu Lemunok, eta orain ere halakoxeak iruditu zaizkit, biziak. Baina ez dakit bote larregikoak diren, orain ez dut halakorik antzeman, baina partiduan ikusiko dugu. Dena dela, hark aukeratutako materialaz ez daukat kexarik.

Eta, finala Beotibarren izateaz?

Ikusten da pilotaleku formala dela, eta noblea. Uste dut bi pilotariondako pilotaleku aproposa dela; alde horretatik ere ez dugu kexarik.

Lemuno izango duzu kontrario; ligaxkan haren kontra jokatu zenuen, eta baita irabazi ere. Baina, gogotik sufrituta.

Mendizabal, Beotibarko harmailetan, eguaztenean. | XABIER URTZELAI

DEBAGOIENA EZAGUTZEN LEIHAKETAKO SARIEN IRABAZLEAK

goienakluba" Abantailaz betetako kluba!

Txema Arenaza Garitano
Herria: Bergara

Txaro Yaniz Laskurain
Herria: Oñati

Ana Mari Ruiz Santos
Herria: Eskoriatza

Zuk ere otar bat irabazi nahi?
Egin zaitez bazkide eta parte hartu lehiaketetan!

goienakluba" 2011

Tel.: **943 25 05 05** | e-posta: *kluba@goiena.com* | *www.goienakluba.com*
Urteko kuota: **48 €**

JAKION
www.jakion.es
SARIA:
Jakionek emandako otar eder bat!
Zorionak eta on egin!

Aita-semeak, eguazteneko material aukeraketan. | XABIER URTZELAI

Bai, asko sufritutako garaipena izan zen hura, erraz irabazten joan eta alde polita neukalako markagailuan. Baina partidua errematatu ezinka Lemuno aldea txikitzen joan zen, eta urduri jarri nintzen [21-22]. Baina partiduetan garrantzitsuena 22ra iristea da, eta orain ere firmatuko nuke Antzuolan beste sufritzea, emaitza bera baldin bada.

Zelako pilotaria izango duzu aurrean? Zelakoa da Lemuno?

Ikusten da kontrario gogorra dela, asko sufritzen dakiena. Pilotari osoa da, airez, botez... denean moldatzen da ondo eta garbi daukat hura menderatzeko partidu txukuna egin beharko dudala. Lehia gogorra izango da.

Finalak jokatzeko, eta irabazteko dira.

Bai, behin honaino iritsita... Jendeak kalean zoriondu nau esanez finalera iriste hutsa gauza handia dela, baina aukera hauek aprobetxatu egin behar dira, eta finala irabaztera kantxaratuko gara.

Etxeko zaleen babesa ondoan

Profesional mailan jokatuko duen lehen finalean Mendizabalek antzuolarren babesa izango du, ia-ia etxean jokatuko balu moduan, lagunek autobusa antolatu dute-eta. Ondoren sagardotegira joango dira: "Partiduan gertatzen dena gertatzen dela Tolosa aldean geratuko gara, ospatzen. Eskertzekoa da holako partiduetan lagunak ondoan izatea", adierazi zigun Mendizabalek.

ASTEBURUKO HITZORDUAK

FUTBOLA

LEHENENGO MAILA
Reala-Malaga
Domeka. 16:00. Anoeta.

EMAKUM. BIG. MAILA
Mondra-Pauldarrak
Domeka. 12:00. Mojategi.

GAZTEEN EUSKAL LIGA
Aretxabaleta-Lengokoak
Zapatua. 16:00. Ibarra.

OHOREZKO ERREGIONALA
Pasaia-Bergara
Zapatua. 16:30. Don Bosco.
Tberio-Mondra
Igandea. 11:30. Berio.
Aloña Mendi-Hondarribi
Domeka. 16:30. Azkoagain.
Tolosa-Aretxabaleta
Zapatua. 16:30. Berazubi.

ERREGIONAL PREFERENTEA
Aretxabaleta-Lagun Onak
Eguena. 16:30. Ibarra.

LEHEN ERREGIONALA
Mondra B-Urki
Zapatua.16:00. Mojategi.
Aretxabaleta C-Ikasberri
Zapatua. 16:30. Ibarra.

GAZTEEN OHOREZKO MAILA
Billabona-Bergara
Zapatua. 15:30. Arratzain.
Tolosa-Aloña Mendi
Zapatua. 17:30. Usabal

EMAKUMEZKOEN LIGA
Lagun Onak- Arizmendi
Zapatua. 16:00. Garmendipe

LEHEN MAILAKO GAZTEAK
Aloña Mendi B- Eibartarrak
Domeka. 12:00. Azkoagain.
Bergara B- Aretxabaleta
Zapatua. 15:30. Ipintza.
Urki-Arizmendi
Zapatua. 17:30. Unbe.

OHOREZKO KADETEAK
Aloña Mendi-Aretxabaleta
Domeka. 10:00. Azkoagain.
Bergara-Real Sociedad
Domeka. 11:30. Ipintza.

LEHEN MAILAKO KADETEAK
Antzuola-Eibartarrak B
Zapatua. 11:00. Estala
Elgoibar B- Aloña Mendi B
Domeka. 12:15. Mintxeta.
Arizmendi-Bergara B
Domeka. 12.00. Almen
Eibartarrak-Aretxabaleta B
Zapatua. 18:00. Unbe.

ARETO FUTBOLA

EUSKADIKO TXAPELKETA
Eskoriatza-Sasikoa
Zapatua. 18:00. Eskoriatza.

BIGARREN MAILA
Aretxabaleta-Power Rangers
Zapatua. 17:00. Antonianos.

KADETE MUTILAK
Concepto Creat.-Arizmendi Es.
Domeka. 11:00. Elgoibar.

ESKUBALOIA

EUSKADIKO TXAPELKETA
Soraluce BKE-Hondarribia
Zapatua. 17:00. Labegaraieta.
Ford Mugarri Arrasate-Elgoibar
Zapatua. 19:30. Iturripe.

EMAKUMEZKOAK PREF.
Leizaran-Aloña Mendi
Domeka. 11:30. Andoain.

LEHEN SENIOR GIZONEZK.
Eibar-Izarraitz Tab. Aloña
Zapatua. 16:00. Eibar.

BIG. SENIOR GIZONEZK.
Decotena-Arrasate
Zapatua. 19:00. Zumaia.

GAZTE MAILA, GIZONEZKOAK
Talleres Chap. Arrasate-Elgoib.
Zapatua. 17:00. Iturripe.
Mondragon Lingua Aloña-Urola
Zapatua. 16:00. Zubikoa.
Bergara-Amenabar
Zapatua. 11:00. Labegaraieta.

GAZTE MAILA, EMAKUM.
Bera Bera-Aloña Mendi
Zapatua. 19:30. Donostia.

KADETE MAILA, EMAKUM.
Aloña Mendi B- Egia Bera Bera
Zapatua. 17:30. Zubikoa.
Aloña Mendi A-Urnieta
Zapatua. 16:00. Zubikoa.

KADETE MAILA, GIZONEZ.
Talleres Chapim.-Soraluce BKE
Zapatua. 10:00. Musakola.

SASKIBALOIA

EBA
Aloña-Pas Pielagos
Zapatua. 18:00. Zubikoa.

PILOTA

PROMOZIOKO LAU T'ERDIKO PILOTA TXAPELKETA FINALA
Zapatua. 18:00. Tolosa..

ARGENTINAKO JOSÉ C. PAZ herrirako elkartasuna JOSTAILU ETA ESKOLA MATERIAL BILKETA

Olentzerok zakua zimurturik dakar ez baitu ezer jaso bideetan zehar, guri laguntza eske dator bidenabar eta ez al diogu zerbait eman behar?

Ikazkinari zaio nekea nabari begirune apur bat zor diogu hari, eska diezaiogun atariz atari barruan daramagun esku zabalari.

Neska-mutilok jarri gara akorduan opari zaharrak bilduz etxe inguruan. Zuretzat, Olentzero, eraman orduan: guk ez ditugu behar, banatu munduan!

ABENDUAREN 17an, San Martin plazan (goizez)

ARANZADI ikastola
Kalitatezko Euskal Heziketa

KULTURA

HODEIEN AZPIAN

Egilea: Ruper Ordorika.

Argitaletxea: Elkar.

New Yorken grabatutako diskoa da. Diskoak sasien gainean eta hodeien azpian dagoenaz diharduela dio Ordorikak berak.



PEDRO DE VITERI ARANA

Egileak: Ana Isabel Ugalde, Arantza Otaduy, Javier Balanzategi eta Juan Ramon Garai.

Argitaletxea: Intxorta 1937.

Arrasateko historian erabakigarria izan den eskola-sortzaile eta filantropoaren figura hobeto ezagutzeko liburua da.

1996TIK BIDETXURRIAN

Egilea: Fly Shit.

Argitaletxea: Gaztelupeko Hotsak.

Bergarako gaztetxean 2010eko abenduaren 29an eginiko emanalditik ateratako eta material gehiagoz hornitutako bideoa.

COLLAGE

Egilea: Governors.

Argitaletxea: Oihuka.

Joera, emozio, bidelagun eta esperimentu asko batzen dituen diskoa da. Beste musikari batzuen kolaborazioak ere biltzen ditu.

MARTIN LARRALDE

Egileak: Eneko Barberena eta Mikel Oceja.

Argitaletxea: Bonberenea Ekitzak.

Galeretan hil zen Hazparneko zapatari eta koblakari Martin Larralderen gaineko lana. Poesia, irudiak eta musika biltzen ditu.

HILTZERA GOAZ

Egilea: Fiachras.

Argitaletxea: Bonberenea Ekintzak.

Ruper Ordorika, Jon Mirande, Mike Tyson eta halako izenak ikonotzat dituztenei zuzendutako lan moduan aurkezten da.



HISTORIA UNIVERSAL DE LOS HOMBRES GATO

Egilea: Josu Arteaga.

Argitaletxea: Alberdania.

Egileak berak sortutako istorio baten barruan sortutako nobela irakurterraza da. *Hijos de Satán* lehiaketako irabazlea zen 2009an.

MUSIKA KAXA

Egilea: Ain_1.

Argitaletxea: MusikHerria.

Sentimendu eta bizipenetatik irtendako poesiek osatutako letraz betetako diskoa. Gitarra, kaxa flamenko eta biolin soinuak ditu.

AZKEN GARAIPENA

Egilea: Julen Rivas eta Iban Zaldua.

Argitaletxea: Euskal Herriko Ikastolak.

Zientzia fikzioan eta genero beltzean kokatutako istorioarekin 2052ko Berlinera garamatzan komiki liburua.

DES-PIEZAK

Egilea: Gose.

Argitaletxea: La Chiquilla Produkzioak.

Orain arteko diskoetan agertu ez diren abestiak, egoera berezietarako egindako bertsioak... biltzen dituen lana da.

Debagoienetik Durangora

- Abenduaren 4tik 8ra egongo da azoka zabalik, 10:30etik 20:00etara
- Ahotsenea gunean ibarreko hainbat taldek zuzeneko emanaldiak egingo dituzte | **32**



ZAI AT DEVO CITY

Egilea: Klak!son.

Argitaletxea: Mauka.

Zazpi abestiz osatutako diskoa da. Abstraktua eta poetikoa, fonetikaz baliatuz letrek joko polita sortzen dutela dio taldeak.

AIZKORRIKO ATARIA

Egilea: Juan Carlos Irizar.

Argitaletxea: Autoekoizpena.

Zortziko erritmoa duten 18 abestiz osatutako lana. Aizkorriko puntatik ikusten diren herriei eskainitako lana dela dio egileak.

XARMA

Egilea: Karenka.

Argitaletxea: Autoekoizpena.

Rock doinuek pisu handia hartzen duten lana. Besteak beste, gai sozialak, politikoak eta intimistak tartekatuta aurkezten dira.

Gorbeian duzu Gabonetako
SARI NAGUSIA

Lehenengo Saria: 3000 EURO*

7000 EURO SARIETAN

Bigarren Saria: 2000 EURO*

Hirugarren Saria: 1000 EURO*

10 Sari: 100 EURO*

Sartu: centrocomercialgorbeia.com

(*)Erosketa txarteletan. Baldintza osoak ikusteko sartu: www.centrocomercialgorbeia.com Abenduak 2tik 21era balio duen promozioa.

ABENDUAK 3tik URTARRILAK 15era ARTE

ETOR ZAITEZ PATINATZERA GORBEIAKO IZOTZ PISTARA

5.000 SARRERA OPARITZEN DITUGU

INFORMAZIO GUZTIA: www.centrocomercialgorbeia.com

Parte hartu PlayStation 1. Txapelketan
Abenduak 22, 23, 24, 29, 30 eta 31 egunetan
Izena emateko 622 411 857 telefonoan
Informazio gehiago www.centrocomercialgorbeia.com

GORBEIA
www.centrocomercialgorbeia.com

Carrefour DECATHLON Norauto BRICO DEPOT i'm lovin' it merkal calzados YELMO CINES DIGITAL 3D MUEBLES MAX DESCUENTO CIMER el outlet del electro SAMIRA CÓCTEL hairrak CORTEFIEL ABIAN CENTER

Debagoienetik Durangora

31. orrialdetik dator.

ASIER ALKORTA | ARRASATE

Kulturaren kamioiak beste behin ere geraleku bera izango du abenduko lehenengo astean: Durango. Izan ere, domekan jarriko da abian 46. Durangoko Disko eta Liburu Azoka. Beste behin ere, editorialek, banatzaileek, diskoetxeek, erakundeek eta kultura eragileek kontsumitzaileekin aurrez aurre egoteko aukera izango dute Durangon.

Cristobal Aguilo diseinatzaile espainiarraren kartela aurrean jarrita, oraingo honetan, Gerediaga elkarteak Durangoko Azoka osatzen duten bi osagaiak aurre-aurrean jarri ditu: diskoak eta liburuak. "Binilizko diskoa oinarri hartuz sortu du irudia: liburu bat irakurtzen dabilen pertsonaia", argudiatu du azoka iragartzeko kartel irabazlea aukeratu duen epaimahaiak.

Hilaren 4an, domekan, zabalduko ditu ateak azokak eta hilaren 8an itxiko ditu. Tarte horretan, egunero Durangoko Landako erakustazokako ateak zabal-zabalik egongo dira, 10:30etik 20:00etara.

Bisitariek denetariko produktuak erosteko aukera izango badute ere, produktuek urteroko oinarrizko arau bera betetzen segitu beharko dute: euskarazko argitalpenak edota euskal gaiak edozein hizkuntzatan jorratzen dituztenak izatea, alegia. Guztira, 132 erakusle egongo dira hainbat mahaitan banatuta.

Egongo diren nobedade guztien gainetik, gune berezien nobedadea gailentzen da aurten. Izan ere, bost gune berezi izango ditu azokak: orain arte antolatu izan diren Haur Literatura eta Ahotsenea eta hiru gune berri: Irudienea (ikus-entzunezkoentzat), Szenatokia (antzerkigintza) eta Kabi@ (sareko ekimenak).

Hemengoak azokan

Urtero bezala, aurten ere ibarreko egile eta talde askoren lanak egongo dira Durangoko Liburu eta Disko Azokan.

Musikaren alorrean, talde hauek joango dira azokara: Governors (*Collage*), Fly Shit (*1996tik bidetxurrian*), Ruper Ordorika (*Hodeien azpian*), Fiachras (*Hiltzera goaz*), Ain_1 (*Musika Kaxa*), Gose (*Des-piezak*), Klak!son (*Zai at devo city*) eta Juan Carlos Irizar (*Aizkorriko ataria*). Xarma taldeak ere bere azken lana eramango du Durangora: *Karenka*.

Liburuetan ere eskaintza oparoa izango da Debagoienetik: *Martin Larralde* (liburua eta diskoa; Eneko Barberena eta Mikel Oceja), *Azken garaipena* (Julen Rivas eta Iban Zaldua) eta *Historia universal de los hombres gato* (Josu Arteaga). Bestalde, Intxorta 1937 elkarteak ibarreko historian oinarritutako lau liburu eramango ditu: *Pedro de Viteri Arana*, *Gerrako ipuinak* (liburua eta diskoa), *Gerrako garrak Oñatin* eta *No busqué el exilio*.

Aurtengo kartela. | GOIENA

Dena dela, orain arte gertatu bezala, aurten ez da Debagoieneko Mankomunitatetik lan bakar bat bera ere aurkeztuko.

Aurtengo sariak

1992a ezkero, Gerediaga elkarteak azokan Argizaiola saria ematen du, eta aurten Iñaki Beobide Agirrezabalaga zumaiarrari emango diote. Agirrezabalaga Herri Gogoa diskoetxearen sortzaileetako bat izan zen, eta Euskal Kantagintza Berriaren hainbat disko grabatu zituen Donostiako estudioan. Jarrai antzerki taldean atzerriko antzerkigileen obrak euskaratu eta taularatu zituen, eta Ikuska liburu saila sortu zuen. ETBren sorreran ere parte hartu zuen.

Sari horretaz gain, aurten Gerediaga elkarteak berak ere jaso du saria: Lauaxeta saria. Bizkaiko Foru Aldundiaren eskutik jaso zuen saria, atzo, azoka bultzatzen duen elkarteak. Besteak beste, euskara zabaldu, sustatu eta normalizatzeko egindako ahaleginagatik nabarmentzearren jaso du ohorezko sari sinbolikoa.

Liburu eta disko artean, denaren gainetik bisitariek bertoko kulturaz blai-blai egiteko aukera izango dute beste behin ere Durangon. Jendetza artean, nork bere produktuak eskuratzeaz gain, guneetan egingo diren 200 ikuskizun baino gehiagoz gozatzeko eta egile askoren sinadurak biltzeko aukera ere egongo da.

Izan ere, 46. Durangoko Liburu eta Disko Azoka azoka hutsa baino haratago doa. Aurten, euskal kulturaren kamioia produktuz, ikuskizunez eta, oro har, entretenimenduz beteta dator.

Telebista, zuzenean

Azokak irauten duen egunetan, Landakon gertatzen direnak zuzenean, bertatik bertara, ikusteko aukera eskainiko du Goiena telebistak. Azokan bertan gertatzen dena jasotzeaz gain, Ahotsenea eta Irudienea txokoetan gertatzen dena ere jasoko du Goienak. ETB3rekin eta Hamaika Telebistarekin batera egingo du Goienak jardun hori.

Aurreko urteetan egin bezala, pantaila erraldoi bat jarrriko dute azokako gunean. Bestetik, emisioa Tokiko TVren bitartez *streaming*-ean ikusi ahal izango da. Hori *Goiena.net* atariaren azpi-atal baten ikusten da.

Orain arte bezala, zuzeneko konexioak, elkarrizketak, inkestak, kontzertua eta gehiago ikusteko aukera egongo da.

Klak!son talde antzuolarrak Ahotsenea guneko azken emanaldia egingo du azken egunean. | KLAK!SON

Debagoiendar batzuk Ahotseneako agertokian egongo dira

Aurten ere Ahotseneak euskarazko liburu eta diskoak aurkezteko txokoa jarriko du azokan. Bost egunean egongo da zabalik gunea eta guztira 95 emanaldi egingo dira. Emanaldiak 10:30ean hasi eta 19:30ean amaituko dira.

Ain_1 taldeak lehenengo egunean, abenduak 4, zuzeneko emanaldia egingo du, 16:30ean. Xarmak ere egun berean, 17:30ean, egingo du emanaldia eta ondoren, 18:00etan, Bide Ertzean taldearekin igoko da agertokira. Ruper Ordorikak ere hilaren 4an joko du, 19:00etan. Fiachrasek hilaren 5ean egingo du emanaldia, 16:30ean, eta Eneko Barberenak aurkezpen solasaldia egingo du hilaren 7an, 13:00etan. Azkenik, Antzuolako Klak!son taldea igoko da taula gainera, hilaren 8an, 19:30ean.

zure ziztada behar dugu

Hedabideen aldaketa sakonari indartsu heltzeko, egoera ekonomiko zailari erantzutekoeta BERRIA proiektuaren geroa ziurtatzeko, BERRIAzaleon komunitatea indartu nahi dugu. Erleak bezala, elkarlanean, gai garelako.

Izan zaitez berrialaguna

berrialaguna izan nahi baduzu, bete datuak eta helarazi:
- www.berria.info/berrialaguna
- Postaz: BERRIA. Martin Ugalde kultur parkea, z/g. 20140 - Andoain
- Posta elektronikoz: laguna@berria.info
- Telefonoz: 943-30 43 45

berria

Amodiozko gutunak idazteko epea zabaldu dute

2012ko urtarrilaren 7ra arte aurkeztu ahal izango dira gutunak Jardunen

ARANTZAZU EZKIBEL | BERGARA

Jardun euskara elkarteak Amodiozko gutunen lehiaketa jarri du abian. Oraingoa 20. edizioa izango da. Lehiaketan parte hartu ahal izango du 1997an edo lehenago jaiotako edonork.

Lan guztiek jatorrizkoak, argitaragabeak eta euskaraz idatziak izan beharko dute. Gutunak Jardun elkarteak Errotalde jauregian duen bulegora bidali behar dira 2012ko urtarrilaren 7a baino lehen –posta elektroniko bidez: *amodiozkogutunak@euskalerria.org*. Sariak otsailaren 14an banatuko dituzte.

Nagusien saria kendu egin dute

Iazko formatu bera izango du lehiaketak. Hala ere, aldaketa txiki bat egongo da: iaz 50 urtetik gorakoei begira helduen saria jarri zuten, baina, hiru gutun bakarrik jaso zituztela ikusita, aurten sari hori kentzea erabaki dute. "Helduen saria kendu egin dugu, baina gazteen saria handitu. 100 eurotik 150 eurora pasa dugu", azaldu du Maitane Arizabaletak, Jardun elkarteko kultura koordinatzaileak. Antolatzaileek nahi dutena da lehiaketak gero eta parte hartzaile gehiago izatea, eta ahal den neurrian hain gazteak ez direnak euskaraz idaztera animatzea. "Ate guztiak" zabalik dituztela gaineratu du Arizabaletak.

ESANAK

"Helduen saria kendu egin dugu eta gazteena handitu"

MAITANE ARIZABALETA | JARDUN

DATUA

1.050

EURO

1.050 euro banatuko dituzte, lau saritan: nagusia 500 euro da.

60 gutun inguru jasotzen dira

Azkeneko urteetan amodiozko gutunen lehiaketan parte hartu izan duten lagunen kopurua antzerakoa izan da, bost gutun gorabehera. "60 gutun inguru jasotzen ditugu urtero", gaineratu du Arizabaletak.

Jardunek antolatzen duen lehiaketak izen handia hartu du 20 urteotan: "Euskal Herri osotik parte hartzen du jendeak", dio Arizabaletak. Erreferente bilakatu dela esan daiteke.

Lau sari banatuko dituzte: sari nagusia 500 euro izango da; bigarren saria 250 euro; bergarar onenak 150 euroko saria izango du (1. edo 2. saria Bergarako norbaitek lortuko balu, bergarar onenarentzako saria hurrengo bergarar onenari emango litzaioke); eta 26 urtetik beherakoendako saria 150 euro (1. edo 2. saria 26 urtetik beherako norbaitek lortuko balu saria hurrengo gazteari emango litzaioke).

Egindakoarekin gustura daude; epaiarekin, ordea, ez

Euskal kantu txapelketan izandakoen esperientzia

A.E. | ARRASATE

Ibarreko bederatzi ordezkarik parte hartu zuten joan den domekan Donostian egindako euskal kantu txapelketako finalean. Gure ordezkariek ez zuten sari nagusirik lortu. Hala ere, esperientzia ona izan zela azaldu dute eta pozik daude egin zuten lanarekin; ez, ordea, emaitzarekin.

Segurtasuna eta konfiantza

Josu Zubia oñatiarrak *Atian* abestia eskaini zuen, abesti berria. "Gustura aritu nintzen, baina akats txiki bat egin nuen", azaldu du. Oñatiarrarendako ez da lehenengo aldia izan: "Aurten bakarrik aritu naiz eta lasaiago ibili naiz".

Eneritz Urrutia eta Maialen Arratibel bikote arrasatearra gustura zegoen egindako lanarekin, eta jendea ezagutzeko izan zuen aukerarekin. Abeslarien artean "maila handia" zegoela nabarmendu dute. Hala ere, ez zuten emaitza hura espero: "Alegiakoek eraman dituzte sari guztiak", zioten. Zubiak hau esan du: "Ez dakit ze baloratzen duen epaimahaiak, baina ez nago emaitzarekin konforme".

Sara Manzano bergararrarendako oso esperientzia polita izan zen eta ondo ibili zela uste du.

Bergarako Nau taldea. | KANTUZALE ELKARTEA

Josu Zubia. | KANTUZALE ELKARTEA

Maialen Arratibel eta Eneritz Urrutia. | KANTUZALE ELKARTEA

Sara Manzano. | KANTUZALE ELK.

Joan den astean egin zuten lehiaketaren aurkezpena. | JOKIN BEREZIARTUA

Akordeoi soinuek hartuko dute, beste behin, Arrasate

Bihar hasi eta abenduaren 6ra arte nazioarteko XIX. akordeoi lehiaketa jokatuko dute

A.E. | ARRASATE

Amaia antzokian, Kulturaten eta Arizmendi ikastolan egingo dituzte akordeoi kontzertuak datozen egunotan. Akordeoi soinuak entzungo dira, beste behin ere, Arrasaten; izan ere, bihar hasiko dituzte Arrasateko akordeoi lehiaketak.

Nazioarteko lehiaketa

Arrasate Hiria nazioarteko lehiaketa jokatuko dute, aurten, XIX. aldiz. Domekan, abenduak 4, hasiko da lehiaketa: 08:30ean eta 15:00etan jokatuko dituzte kanporaketa faseak. Azken fasea, ostera, martitzenean, abenduak 6, jokatuko dute: 09:00etan eta 15:00etan. Nazioarteko kanporaketa guztiak eta azken fasea Amaia antzokian jokatuko dituzte. Azken ekitaldia eta sari banaketa 20:00etan izango da, martitzenean.

Parte hartuko duten akordeoi joleak hauek dira: Igor Krizman (Kroazia), Elexey Nefedov (Errusia), Iosif Purits (Errusia), Ivana Mirkov (Serbia), Live Berger (Danimarka), Blai Navarro (Espainia), Saila Korhonen (Finlandia), Ander Telleria (Euskadi), Marko Sevarlic (Serbia), Jose Valente (Portugal), Jiang Bolong (Txina), Andreogloc Panagiotis (Grezia), Nikola Malidzan (Serbia), Olivia Steimel (Alemania), Ivan Tibor (Eslovakia), Jonna Pirttijoki (Finlandia), Harri Kuusijarvi (Finlandia), Eva Maria Mitter (Austria), eta Mia Cojbasic (Kroazia).

Gipuzkoako lehiaketa

Astelehenean Gipuzkoako 32. lehiaketa jokatuko dute haur, gazte eta nagusi mailetakoek. Kulturaten eta Amaia antzokian izango dira saioak. Gainera, bihar eta etzi, Gipuzkoako jaialdia egingo dute gaztetxoek.

Kontzertuak herrian

Ivan Sverko musikariak kontzertua eskainiko du bihar, zapatua, Aretxabaletako Arkupen, 20:00etan, eta astelehenean Arrasateko Kulturaten, 20:00etan. Gainera, Bergarako Belceblues taldeak Kajoi tabernan joko du martitzenean, hilak 6, 12:00etan.

Abenduaren 11n Ruper Ordorikak Espaloian aurkeztuko du diskoa

Hodeien azpian diskoa aurkeztuko du oñatiarrak Elgetan. Ordorikaren aurretik Joseba Irazokik joko du, 30 minutuz, eta ondoren oñatiarra igoko da taula gainera. 19:00etan hasiko da kontzertua. Ordorikak azaro hasieran argitaratu zuen *Hodeien azpian* azken lana, 11 abestiz osatutako diskoa.

Ainhoa Agirreazaldegik Hernanin jokatuko du G Puntuko finalaurrekoa

Hernaniko Galarreta kiroldegian jokatuko dute domekan, 17:30ean, Gipuzkoako bertsolari txapelketako azken finalaurrekoa. Tartean izango da Ainhoa Agirreazaldegi elgetarra. Gainerako bertsolariak Amaia Agirre, Iñaki Apalategi, Iñigo Mantzizidor, Jokin Uranga eta Jon Martin izango dira.

Olatz bere bi zaletasunekin: gitarra eta artisautza.

ANDER MONEDERO

Olatz Urkia | Hezitzailea

"Artisau lana oso gogorra da eta gauzak egiteko denbora eta pazientzia handia behar dira"

ANDER MONEDERO | ARRASATE

Ipurterrea da Olatz Urkia (Arrasate, 1983). Hezkuntza Berezia ikasi zuen eta musika kontserbatorioan piano ikasketak hasi zituen. Egun, San Andresko gazte txokoan lan egiten du eta Asmoz fundazioak eskaintzen duen musika eta pedagogia ikasten dabil. Horretaz aparte, Transit Blues taldean gitarra jotzen du eta artisautza lanak ere egiten ditu.

Lana, ikasketak eta musika batzea zaila da?

Ondo antolatuz gero, hirurak egin daitezke. Musika eta pedagogia ikastaroa Internet bitartez egiten ari naiz, eta, nahiz eta epeak bete egin behar ditudan, askatasun handia dut. Horretaz aparte, gitarra eta harmonia ikasten dut Arrasate Musikalen.

Zen-nolako esperientzia da gazteekin lan egitea?

Oso esperientzia aberasgarria da. Asko ikasten da gazteekin lanean eta haiek gugandik ere asko ikasten dutela uste dut. Gazteei balio positiboak ereiteko aukera dugu.

Gazte txokoetan zer-nolako ekintzak egiten dituzue?

Mahai-futbolean, ping-pongean eta eskulanak egiten ibiltzen gara. Horrez gain, irteerak ere egiten ditugu: patinatzera, mendira... Gazteek proposatutako ekintzak ere egiten ditugu; esate baterako, eskalada eta buztingintza.

Lan kontuak alde batera utzita, musika da zure zaletasunetako bat.

Bai. Musika txikitatik gustatzen zait. Pianoarekin hasi nintzen, eta kontserbatorioan piano ikasketak hasi nituen, baina ez nituen bukatu. Bada, ikasketak utzi ostean, gitarra jotzen hasi nintzen. Orain, harmonia ikasten hasi naiz.

Musika talde baten ere jotzen duzu.

Bai. Transit Blues da taldearen izena. Musika instrumentala egiten dugu.

Ze musika mota jotzen duzue?

Bluesean oinarritzen den rock taldea gara. 70eko hamarkadako musika da gure oinarria, baina estilo asko jorratzen ditugu. Orain, lokalean abesti berriak egiten ari gara.

Aurretik beste musika talderen baten jo izan duzu?

Bai: Muskaria eta Ozen taldeetan. Muskarian, Transit Blues taldean bezala, anaiarekin batera jotzen nuen. Ozenen, berriz, pianoa jotzen hasi nintzen eta gero baxua ere jo nuen.

Artisautza ere gustuko duzu.

Beti gustatu izan zait eskulanak egitea, eta Hego Amerikan zehar bidaiatzen ibili nintzenean gauza asko ikasi nituen. Izan ere, maleta ostu egin zidaten eta artisautza egiten zuten lagun batzuekin hasi nintzen. Egia esan, diru pixka bat irabazteko hasi nintzen, eta, gustuko nuenez, bueltan berriz ere nire lantxoak egiten hasi nintzen.

Zuk egindako lanak ere erakusten dituzu.

Bai; iaz, santamasetako azokan postu bat jarri nuen, eta aurten ere egin dut eskaera.

Zer egiten duzu?

Gehienbat, makramea lantzen dut. Makramea argizariz estalitako koloretako haria da eta horrekin osagarriak egiten ditut: belarritakoak, eskumuturrekoak... Larrua ere lantzen dut, baina ez dakit azokarako gauza asko egiteko denborarik izango dudan.

Polita izango da zuk egindako gauzak beste bati jantzita ikustea.

Artisau lana oso gogorra da. Gauzak egiteko denbora eta pazientzia handia behar dira, eta oso polita da norberak egindako osagarri bat jendeak eramatea. Santamasetan, nahiz eta produkturik ez saldu jendeak nire lana ondo baloratzen badu, pozik joango naiz etxera.

Garai baten, eskalada ere egiten zenuen.

Garai baten, eskalada egitera joaten nintzen. Eskuek asko sufritzen zuten, eta, musikaren eta eskaladaren artean aukeratu behar nuen; bada, gitarrarekin geratu nintzen.

PERTSONALA

Liburu bat: Margo Morganen *El viento del desierto.*

Musika talde bat: Deep Purple.

Musika tresna gustukoena: Pianoa eta gitarra.

Kolore bat: Ortzadarra.

Pelikula bat: Wolfgang Petersen-en *La historia interminable.*

Ikusi duzun azken pelikula: Telmo Esnalen *Urte berri on, Amona!*

Bidaiatzeko leku bat: Latinoamerika.

1. ETXEBIZITZAK

101. SALDU

Antzuola. Beheko auzoa 1 zenbakian etxebizitza salgai. Berritua. 120.000 euro negoziagarriak. 943 72 27 86

Arrasate. Uriburu kalean etxebizitza salgai. Hiru logela, sukaldea, egongela, komuna eta despentsa. Berogailua. Barrutik eta kanpotik berritua. Ikuspegi ederra. Unibertsitatetik gertu. 153.000 euro. 615 71 86 84 edo 645 00 89 97

Bergara. 70 metro koadroko etxebizitza salgai Toki Ederren. Terraza handia. Bi logela, egongela, bainugela handia eta komuna. Igogailua eta berokuntza zentrala. Seigarren solairuan. 191.000 euro. 670 55 87 41

Bergara. Etxebizitza salgai San Pedro kalean. Bi logela. Ganbara. Egoera onean. 155.000 euro. 671 84 15 63

Oleta. 5 urteko etxe bakarra salgai. Lursaila dauka. Bizitzera joateko prest dago. Prezio interesgarria. Etxea trukatzeko ere aukera egon daiteke. Idatzi *camilabagues@gmail.com* helbidera edo deitu telefonoz 945 45 05 15 edo 645 73 82 31 zenbakietara.

Oñati. 67 metro koadroko etxebizitza salgai. Sukalde hornitua, jangela-egongela, bi logela eta bainugela. Jantzia eta bizitzera sartzeko moduan. 252.000 euro. 35 metro koadroko garajea aukeran. Inigo. 659 72 06 64

103. ERRENTAN EMAN

Arrasate. Etxebizitza ematen da errentan Biteri kalean, Grupo San Juanen. Hiru logela, sukaldea, komuna eta egongela. Ganbara. Jantzia. Interestuok deitu zenbaki honetara:605 43 29 31

Arrasate. Musakolan etxebizitza ematen da errentan. Bi logela. Prezio interesgarria. 645 72 53 51

104. ERRENTAN HARTU

Arrasate. Etxebizitza behar dugu errentan. Bikotea gara, neskatila batekin. Presazkoa da. 666 98 25 45

Arrasate. Etxebizitza behar dut errentan erdigunean edo San Andresen. 610 82 02 17

Arrasate. Etxebizitza behar dut errentan. 500-600 euro ordaintzeko gertu nago. Brigitte Castro. 664 51 64 98

Bergara. Bertako bikoteak etxebizitza behar du errentan. Hiru logelakoa, ahal bada. 675 62 30 03 edo 651 56 55 30

Logela bakarreko pisua. Bikote langilea, umerik gabea, estudio edo logela bakarreko pisu bila Arrasaten, Oñatin edo Bergaran. 652 76 67 04

105. ETXEAK OSATU

Aretxabaleta. Logela ematen da errentan Araba ibilbidean. Mutil batentzat. Deitu 678 73 66 54 telefonora.

Arrasate. Logela ematen da errentan San Andresen. Erosoa eta handia. 617 98 78 67

Arrasate. Logela ematen da errentan, erdigunean. Pertsona bakarrarentzat. Mutila bada, hobeto. 688 69 64 90

Arrasate. Pisukide bila nabil. Erdigunean dago etxea. Ione. 636 05 36 18

Bergara. edo inguruan errentan hartzeko logela bila nabil. Mutila naiz. Lehenbailehen hobe. 672 68 57 77

Erasmus ikasleentzat logelak. Otsailaren 1etik ekainaren 30era etorriko diren Erasmus ikasleentzat logelak behar dira Debagoienean. 600 04 76 38

106. BESTELAKOAK

Trukea. Aramaioko etxe txukuna trukatuko nuke Arrasateko antzeko bategatik. 636 64 90 94

2. GARAJEAK

201. SALDU

Aretxabaleta. Lausitta kalean aurkitzen den garajea salgai. 676 43 28 05

Arrasate. Garaje itxia salgai Musakolan. 659 94 67 65

Bergara. Bolu auzoko frontoian garaje plaza bat saltzen da. 677 51 16 22

Bergara. Garaje handia salgai. 30 m^2 garaje itxia, Burdinaten (Konde Panaderokua aldean). 24.000 €. 685 72 51 58.

4. LANA

402. ESKAERAK

Arrasate edo Bergara. Neska gertu orduka lan egiteko: nagusiak zaindu, garbiketak edo sukalde laguntzaile. Honetan esperientzia daukat. Deitu 659 37 41 95 zenbakira.

Arrasate, Aretxabaleta edo Eskoriatza. Neska euskalduna esperientzia handia duena, prest haurrak zaintzeko, eskolara eramateko edota etxerako lanak egiten laguntzeko. Magisteritzan diplomatua eta hezkuntza berezian espezialista. 600 39 47 77.

Arrasate, Aretxabaleta eta Eskoriatza. Emakumea gertu nagusiak zaindu edota garbiketa lanak egiteko. 672 88 01 01.

Arrasate. 53 urteko emakume euskalduna, lanerako gertu, ume edo nagusiak zaintzen, etxeko lanak egiten eta abar. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 943 79 60 89

Arrasate. Emakume euskalduna gertu plantxa egin edo bestelako etxeko lanetarako, orduka. 699 54 17 27

Arrasate. Erreferentzia onak dituen neska lan ezberdinetarako gertu: garbiketan, nagusiak zaintzen eta abar. Marta. 671 15 96 97

Arrasate. Orduka edo etxean bertan bizi izaten lan egingo nuke. 682 31 97 37

Bergara edo Eibar. Emakume euskalduna eskaintzen da lan egiteko: etxeko lanak edin edo ume zein edadetuak zaintzen. 606 50 25 67

Bergara. Neska gazte eta euskalduna asteburuetan pertsona nagusiak zaintzeko prest. Bailarako edozein herritan ere egingo nuke lan. 649 19 81 15

Bergarako neska gertu nagusi zein umeak zaintzen jarduteko Bergara, Arrasate, Eibar edo inguruan. Irene. 651 70 81 70

Debagoiena. Bergarako neska gertu orduka edo egun osoz lan egiteko: nagusiak zaintzen, garbiketak egiten, tabernan zein sukaldean arituko nintzateke. 671 18 50 83

Debagoiena. Emakumea etxean bertan bizi izaten lan egiteko gertu. 618 80 75 66

Debagoiena. Emakumea gertu etxean bertan bizi izaten edo bestela, nagusi edo umeak zaintzen. Gauez ere bai. Legezko paperak ditut. Romelia Castaño. 632 83 45 10

ZURE IRAGARKIAK

IRAGARKIA JARTZEKO BIDEAK:

943 25 05 05 | sailkatuak@goiena.com | www.goiena.net/sailkatuak

Eguazteneko 12:00ak arte jasotako iragarkiak bakarrik iragarriko ditugu.
Ordu horretatik aurrera ez da onartuko aldaketarik eta ezta iragarkia bertan behera uzterik ere.
GOIENAk ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzukizunik.

ORDAINTZEKO ATALAK DIRA: PREZIO BEREZIA GOIENA KLUBEKO BAZKIDEENDAKO

- Etxebizitza Saldu/Errentan. Lokala Saldu/Errentan. Garajea Saldu/Errentan. Motorra Saldu/Errentan.
Egubakoitzean + Astelehenean: 21 € (BEZ barne).
Astebete baino gehiagoz argitaratu nahi izanez gero, prezio bereziak aplikatuko dira.
- Profesionalen moduluak.
Modulu bakarra egubakoitzean EDO astelehenean: 22 € (+BEZ).
Egubakoitzean + Astelehenean: 29 € (+BEZ).

Debagoiena. Emakumea gertu sukaldari edo garbiketa lanak egiteko. Deitu 662 26 71 42 edo 943 25 36 14 telefono zenbakira.

Debagoiena. Emakumea lan egiteko gertu, umeak zaintzen, garbiketa edo dendari lanak. Orduka edo egun osoz. Erreferentziaduna. 606 72 28 76

Debagoiena. Erizaintzako laguntzaile titulua duen neska prest edozein lanetarako. Jacqueline. 650 83 66 58

Debagoiena. Esperientziadun emakumea pertsona nagusiak zaindu edo garbiketa lanak egiteko gertu. Zaharren egoitzetan eta tabernak garbitzen lan egindakoa. 680 77 06 46

Debagoiena. Etxean bertan bizi izaten lan egingo nuke, nagusiak zaintzen eta abar. 699 70 38 82

Debagoiena. Etxeko lanetarako emakumea gertu, baita asteburuak edo gauak etxean egiteko ere. 659 90 85 13

Debagoiena. Garbiketan, nagusiak zaintzen (baita gauez ere), tabernatan zein sukalde laguntzaile jardungo nuke. 943 10 96 89

Debagoiena. Lan egingo nuke nagusiak zaintzen, sukalde edo jatetxean, garbiketa lanetan eta abar. 633 37 53 13

Debagoiena. Lantegian, zerbitzari, kamioilari, nagusien zaintzan edo etxeko garbiketan lan egingo nuke. Anbulantzia gidari titulua daukat. Eduardo. 690 25 29 33

Debagoiena. Mutila peoi lanetan, sukalde laguntzaile, taberna, garbiketa eta abarrean lanerako gertu. Andres Felipe. 632 83 45 10

Debagoiena. Nagusiak zaintzeko ikasketak dituen mutila gertu lanerako. Nagusi eta Alzheimer gaixoen zaintza, etxeko lanak egin, sukaldatu eta abarretan ondo moldatzen naiz. Debagoienean zehar mugiteko arazo barik. 693 72 41 66

Debagoiena. Nagusiak zaintzen edo sukalde laguntzaile lan egingo nuke. 697 88 35 62 edo 691 03 25 02

Debagoiena. Neska arduratsua orduka garbiketa lanak egiteko gertu, umeak edo nagusiak zaintzeko eta nagusiak pasioan ateratzeko. Deitu 943 71 53 74 edo 695 73 87 95 telefono zenbakietara.

Debagoiena. Neska euskalduna, eskarmentuduna eta erreferentzia onekoa, gertu nagusi edo umeak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. 671 35 22 60

Debagoiena. Neska garbiketa lanetarako gertu. Deitu 635 71 12 88 telefonora.

Debagoiena. Neska gaztea gertu ume edo nagusiak zaintzeko, eta zerbitzari edo garbitasun lanak egiteko. Deitu 674 95 79 28 telefonora.

Debagoiena. Neska gertu astean zehar orduka edo asteburuetan lan egiteko. Deitu 659 90 85 13 telefonora.

Debagoiena. Neska gertu nagusiak edo umeak zaintzeko, garbiketak egiteko eta abar. 645 67 82 24

